

Eur oar ekin, zer?



- GURUTZ ANSOLA
- BALEREN BAKAIKOA
- JAVIER BILBAO
- JOSELU CERECEDA
- M.C. GALLASTEGI
- JENARO GARATE
- IÑAZIO IRIZAR
- ANTXON LAFONT
- C. URDANGARIN
- MIKEL ZURBANO

Historia bizia

Juan San Martini elkarriketa
IMANOL MURUA URIA

Egunen gurpilean

ALBERTO BARANDIARAN • EDORTA JIMENEZ • IMANOL AGIRRE
• ERRAMUN BAXOK • LUIS FERNANDEZ

JAKiN

10

iraila
urria
1998



Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)




Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura
eta Euskara Departamentuaren laguntza jaso du



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Aurkibidea



Zerbaki honetan

► 7

Gai nagusia

Euroarekin, zer?

Moneta batasunaren ondorioak aztergai ► 11

GURUTZ ANSOLA

BALEREN BAKAIKOA

JAVIER BILBAO

JOSELU CERECEDA

M^a CARMEN GALLASTEGI

JENARO GARATE

IÑAZIO IRIZAR

ANTXON LAFONT

CARMELO URDANGARIN

MIKEL ZURBANO

Historia bizia

Juan San Martini elkarrizketa ► 67

IMANOL MURUA URIA

Egunen gurpilean

ALBERTO BARANDIARAN • EDORTA JIMENEZ ► 119

• IMANOL AGIRRE • ERRAMUN BAXOK • LUIS FERNANDEZ

Ciburri

Jaso ditugu ► 151

IDAZKARITZA

© JAKIN

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Imanol Murua Uria

KONTSEILU EDITORIALA


Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20009 Donostia
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07
jakin@jalgi.com

1998ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	5.500 pzta.	—
Ale arrunta	925 pzta.	1.350 pzta.
KANPOAN		
Harpidetza	6.000 pzta. (246 FF)	—
Ale arrunta	1.000 pzta. (41 FF)	1.550 pzta. (64 FF)



The euro under examination

Ten Basque economists analyze the consequences of the coming into force of the euro from the 1st January 1999. The ten article writers assess the advantages and disadvantages of the European Economic and Monetary Union from above all the point of view of the Basque economy. The authors of the works are Gurutz Ansola, Baleren Baikaioa, Javier Bilbao, Joselu Cereceda, M^a Carmen Gallastegi, Jenaro Garate, Iñazio Irizar, Antxon Lafont, Carmelo Urdangarin and Mikel Zurbano. ▶ *Various Authors*




Living history: an interview with Juan San Martin

The journalist Imanol Murua Uria carries out a full interview with the writer and Basque Language academic Juan San Martin, in this, the third issue of the series *Living History*. In this series have already been published statements by Piarres Xarriton in 1996 and Federico Krutwig in 1997. Juan San Martin, a tireless writer and researcher, is the author of books of poetry, essays, stories, art, ethnography and literary reviews, among other disciplines - and he has been, without doubt, a leading figure in and privileged witness to Basque cultural history in the second half of the 20th century. ▶ IMANOL MURUA URIA



News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, entertainments, sociolinguistic, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Alberto Barandiaran, Imanol Agirre, Erramun Baxok, Luis Fernandez and Edorta Jimenez. ▶ *Various Authors*



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 108. zenbakia da eta 1998. urteko bosgarrena.

Nazioarteko harreman ekonomikoak ez ezik gutako bakoitzaren sakeleko gora-beherak erabat aldatuko dituen, eta dagoeneko aldatzen ari den, fenomenoari eskaini diogu zenbaki honetako *Gai Nagusia*: euroa. Datorren urteko ur-tarrilaren lehenean indarrean izango da Europako Batasuneko 11 estatuen arteko Ekonomi eta Moneta Batasuna eta, beranduenez 2002. urtearen hasieran, pezeta, libera eta beste moneten txanpon-bileteen ordeztasunak erabil-tzen hasiko gara.

Euroaren sarrerak ekarriko dituen abantailak eta era-gozpenei buruzko liburu, txosten, artikulua eta eztabaiden garai honetan, aletxo bana eskain dezatela eskatu diegu Euskal Herriko hainbat ekonomilariri, «Euroarekin, zer?» galderari erantzuteko proposatuz.

Hamarrek erantzun digute: Europako Banku Zentrala-ren Sistemaren funtzionamendua nolakoa izango den eta horren ondorioak zein izan daitezkeen azaltzen du bere artikuluan Gurutz Ansola idazleak; Baleren Bakaikoa irakasleak, abantailak bezala ondorio negatiboak ere ekarriko dituela ohartarazi ostean, azterketek diotenez euskal ekonomian aldaketa handirik ez dela ikusiko dio; Javier Bilbao irakasleak Ekonomi eta Moneta Batasunak gizarte politikan izango duen eraginaz azterketa egin du; Joselu Cerecedak, Ipar He-goia Fundazioko kideak, «arazo kezkarri» ugariri buruzko gogoeta egitearekin batera, «Euroarekin Euskadi garaile» le-

loak oinarririk ez duela dio; Eusko Jaurlaritzan Ekonomi kontseilari izandako M^a Carmen Gallastegik «gertakari historiko» hau euskal ekonomiaren onerako izan dadin egin beharrekoaz gogoeta egin du; Jenaro Garatek euroak «askatu, indartu eta batu» egingo gaituela dio baikortasuna darrion artikuluan; Iñazio Irizar irakasleak ere, eguneroko bizi-moduan bezala euskal industriagintzan, egoera berriak abantailak ekarriko dituela nabarmentzen du; Baionako Merkataritza Ganbarako buru izandako Antxon Lafont-ek hego eta ipar Euskal Herrian berehalako eragina izango duela dio, «zuzenean alderatu ahal izango baitira, kilometro gutxiko distantzian, prezioak eta soldatak, kotizazio sozialak eta zergak»; Carmelo Urdangarin enpresariaren iritziz, moneta ebaluatzeko ahalmena galduko denez, munduko onenekin baldintza berberetan lehiatu beharra izango da euskal enpresen erronkarik zailena egoera berrian; Mikel Zurbano irakasleak, dossierraren azken idazlanean, ekonomi subiranotasunari buruz dihardu: EBeko herrialdeetako «ekonomia *nazionalen* ohiko zutabeak» kolokan jarriko dira eta behin-betiko amaituko da «*nazio* bakarreko ekonomi subiranotasun aroa».

Historia Bizia sailean Juan San Martin idazle eta euskaltzaina elkarrizketatu du Imanol Murua Uria kazetariak. Arte, etnografia, literatur kritika, hizkuntza, entseiu, narrativa eta poesia liburu anitz argitaratzeaz gain, azken mende erdi honetako gure kultur historiaren protagonista eta lekuko apartekoa izan da San Martin, euskara eta euskal kulturaren aldeko hainbat eta hainbat ekimenen bultzagile gisa. Bere bizitzari eta lanei buruzko testigantza jaso dugu *Historia Bizia* sailaren hirugarren emanaldi honetan, lehenengoan Piarres Xarritonekin eta bigarrengoan Federiko Krutwigekin egin genuen gisara. Eskerrak zor dizkiogu oraingoan ere Euskadi Irratiari, dokumentazio lanean emandako laguntzagatik.

108. zenbaki honetako azken orrialdeetan, ohi bezala, kultura, literatura, ikuskizunak, soziolinguistika eta komunikazioaren inguruko berriak dituzte aipagai, *Egunen Gurpilean* saileko estilo arin eta bizian, Alberto Barandiaranek, Edorta Jimenezek, Imanol Agirrek, Erramun Baxokek eta Luis Fernandezek. ¶

Euroarekin, zer?



iritzi bilke t

Moneta batasunaren ondorioak aztergai

GURUTZ ANSOLA ▶ BALEREN BAKAIKOA ▶ JAVIER BILBAO

▶ JOSELU CERECEDA ▶ M^a CARMEN GALLASTEGI

▶ JENARO GARATE ▶ IÑAZIO IRIZAR ▶ ANTXON LAFONT

▶ CARMELO URDANGARIN ▶ MIKEL ZURBANO ▶ *1*

Gurutz Ansola

Europar Banku Zentrala eta moneta-politika bakarra

Euroa zer den galdetuz gero, bidezkoa dirudi honela erantzutea: Europar Batasunerako moneta bakarra eta Europar Banku Zentralaren Sistema (EBZS). Jakin eta ikasi nahi izan dugu nolakoa izango den EBZSren barne-egitura. Ea Banku Zentral Nazionalekin konparatuz, ze berezitasun propio izango dituen. Dakienengandik¹ ikasi duguna hemen laburki agertzea da artikuluko honen xedea.

EBZSren barne-egitura emango diren ezaugarri nagusienak, puntu hauetan ordena daitezke: EBZSk moneta-politika bakarra eta orokorra gauzatzeko erabiliko duen bankugintza-tresneria; zein izango den moneta-politika horren emaitzarik funtsezkoena; diru-kopurua eta diru-eskaintza zuzen gobernatzeko ze estrategia hautatuko ote den; eta esan beharrik ez dago, EBZSren azken helburu ekonomikoa zein izango den, estatutuek agintzen duten arabera; azkenik, ohar labur bat, EBZSko agintaritzari buruz.

Moneta-politika bakarra

Euroak berarekin dakar moneta-politika bakarra eta orokorra. Lehendabizi, «bakarra» adigaiak zer adierazten du hemen? Banku sistemak, besteak beste, likidezia erregulatzen du. Horretarako, baldintza eta lanabes jakinekoak erabiltzen dira. Beraz, Europa Batasuneko banku guztientzat baldintza berdinak izango dira, gorago aipatu dugun likidezia erregulaziorako.

Honek bi arazo sortzen ditu: armonizazioarena eta gauzatze deszentralizatuarena.

Armonizazioak adierazten du estatu kideetako banku zentral orok zenbait arau errespetatu egin beharko dituela:

1) Moneta-politikarako behar diren xedapenak Euro-par Banku Zentralak (EBZ) hartuko ditu Frankfurt-en.

2) Xedapen horiek gauzatzeko, eragiteko, lanabesak behar direnez gero, banku zentral nazionalek lanabes berdintsuak erabili beharko dituzte.

3) Estatu kideetako Banku Zentral eta finantz artekari-arten arteko harremanak, esparru lehiakor baten barnean burutuak izan beharko dute. Honek esan nahi du artekari guztiei tratu berdina zor zaiela. Ez da beraz, aldeko nahiz aurkako bereizketarik egingo baloreen artean, hauek berme gisa aurkezten direnean.

Artekariak eta baloreen berme-gaitasuna aipatu ditugu. EBZsko artekaritzat onartua izateko, Europar Moneta Institutuak ezarri dituen baldintza orokorrak bete behar dira. Berme-gai izango diren baloreak, berriz, EBZak onartuko dituen zerrendatan sartuak egotea, nahitaezkoa izango da.

EBZSk erabilgarri izango dituen lanabesak

Hiru eratako tresnaz baliatuko da EBZS moneta-politika bakarra gauzatzeko: merkatu irekiko eragiketak eta eskuhartzeak, kreditu eta gordailuetarako erraztasunak, eta kaxa-koefizientea.

Merkatu irekiko eragiketak

Eragiketa hauek egiteko ohizko era, enkantearen bidez izango da. Eta deszentralizatuak gainera. Eragiketa hauek hiru mailatan bana daitezke:

a) Ohikoak: batzuk asterokoak, besteak hilean behingoak izango dira.

b) Doikuntza operazioak (*fine-tuning*): hauek erabiliko dira, epe txit laburreko interes tipoen doikuntza lortzeko.

c) Egiturazkoak: honela deitzen zaie, sistema osoaren likideziaren egoera, sakonki eta iraunkortasunez, aldatzea xede duten ekintzei. Esaterako, likidezia gehiegi emendatu eta goi mailan finkatzeko joera dagoenean, merkatu irekiko neurri «egiturazkoak» hartuko dira.

Kreditu eta gordailuetarako erraztasunak

Bankuek, EBZsrekin diru-harremanak izateko onartuak izan direnek, erraztasunak izango dituzte kredituak hartzeko eta baita gordailuak mugitzeko ere.

Kredituak hartzeko erraztasuna: bankuek, edozein unetan, likidezia kreditu bidez eskuratzeko atea zabalik izango dute. Itzultzeko epea egun batekoa izango da. Interesa zenbaterainokoa izango da? Lehenago aipatu ditugun «ohiko eragiketetan» ezarritako interesa baino zertxobait handixeagoa. Interes hau, gainera, egunerako merkatu monetarioaren maila gorenekoa finkatuko duen interes-tasa izango da.

Gordailuak ireki ahal izateko egokiera: eragiketa hau aurrekoaren simetrikoa da. Bankuek gordailuak Banku Zentralean sartu ahal izango dituzte.

Ordainduko zaien interes-tasa, berriz, merkatu irekian finkatzen den interesa baino zertxobait gutxiago izango da. Gordailuen interesak, orobat, egunerako merkatu monetarioko maila beherenekoa markatuko du.

Laburbilduz. Epe guztiz laburrerako diru-merkatuko interesak, beraz, tarte horren barnean gauzatuko dira. Alegia, goreneko (kredituak) eta behereneko (gordailuak) izendatu ditugun mailen barnean.

Kaxa-koefizientea

Bankuak behartuak daude, Banku Zentralaren aginduz, erreserba eta gordailuen arteko gutxienezko erlazio bat edukitzera. Esate baterako, banku batek bere bezeroengandik 1.000 euro hartu baditu kontu korrontean sartzeko, Banku hori obligatua dago parte bat erreserban jartzera. Eta erreserba hauek Banku Zentralean ipintzen dira. Estatu batzuetan erreserba horiek interes-tasa irabazten dute eta beste batzuetan ez. Kaxa-koefizientea, Banku Zentralak diru-kopurua, sisteman dagoena, kontrolatzeko tresna bat da.

Bada, une honetan zalantzan dago ea EBZak kaxa-koefizientea indarrean jarriko duen ala ez. Izan ere EBeko zerbait gobernu tresna hau erabiltzearen aurka dago. Kontuan eduki behar da, tresna honi esker, Banku Zentralek zerga baten antzeko zerbait ezartzeko ahalmena daukatela.

Moneta-politika bakarraren emaitzarik ezaugarriena

Ikusi ditugu euro-kopurua kontrolpean edukiarazteko EBZ eta EBZSk erabiliko dituzten tresnak. Tresneria horren erabileraren fruitu nagusia edo emaitzarik ezaugarriena zera izango da: alegia, EBeko merkatu monetarioetako epe laburrenako interes-tasa berdintzea lortuko da.

Berdintze honek, alabaina, ez du esan nahi beste merkatu guztietan ere gauza bera gertatuko denik. Esaterako, epe luzeko baloreen merkatuetan ez da interes bat eta berdin bat emango. Izan ere, interesen sorta desegin eta bat eta berdina izatera iristeko, konpli ezin daitezkeen baldintzak bete beharko lirateke epe luzeko baloreen merkatuetan. Aipatu bederen egingo ditugu baldintza horiek. Lehenik, balore bakoitzak badu beregan arrisku maila bat eta, baita ere, badu likidezia handiago edo txikiagoa. Beraz, arriskua nahiz likidezia maila berdinekoak ez direnez gero, interesak ere ezin berdin-berdinak izan. Bigarrenik, epe luzeko balore bat norbaitek erosten duenean, alde batetik erosleak balorearen prezioa saltzailearen eskuetaraino helarazi behar du. Eta, beste aldetik, balore saltzaileak titulua eroslearen eskuetan jarri. Bistan da transferentzia hauen kostuak ezberdinak izango direla, operazioa gertuko batekin ala urrutiko batekin egin.

Nolanahi ere, epe labur-laburreko interes-tasak berdintzeak, baliapideen transferentziak azkar eta oztoporik gabe berehala egiteko bideak ongi prestatu izatea eskatzen du. Oraino, nazio bakoitza bere bankuarterko merkatu propioaz baliatu da. Zatiketa hau, beraz, gainditu beharra dago, EB osorako izango den bankuarterko merkatu bakar bat eraiki ahal izateko. Alor honetan badago, banku teknika aldetik, erronka seriorik. Esaterako, *target* deritzan pagamendu handietarako egokia den mekanismoa sortzea eta ezartzea. Orobat erronka da dirutzaren zein baloreen ekarri-eramanak denbora errealean likidatu ahal izatea.

Zein estrategia erabiliko du EBZak moneta-politika bakarra egiteko?

Hans Tietmeyer Bundesbank-eko presidentea ezin argiago esan du: EBZren helburu nagusia, edo hartu duen eginkizuna eta agindua, prezioen egonkortasuna lortzea

da, euro-eremuaren luze-zabalean, hots, EB osoan. Helburu nagusi hori erdiesteko, zein estrategiaz baliatuko da EBZ? Aukeran bi jokabide dauzka jarraitzeko. Hobeto esan, bi jokabideetatik bat aukeratu behar du. Bat, «bitarteko helburuak» jarraitzea da. Bestea, «zuzeneko helburua» deritzana da.

Monetarismo pentsakeraren oinarri-oinarrizko tesietako bat zera da, alegia, inflazioa gauza guztien gainera gertakari monetario bat besterik ez dela. Esan nahi da inflazioa zerak sortzen edo indartzen duen fenomeno dela, hots, sistemak une batean darabilen diru-kopuru edo masaren handitze gehiegizkoak dakarrela inflazioa. Orduan, prezioen egonkortasuna lortzeko, diru-masa neurri baten barnean edukitzea da politikarik zuzenena.

Nola kontrolatu, ordea, diru-kopuruaren mugimendua? Horretarako, Banku Zentralak seinaleak behar ditu. Seinaleak, zeharkakoak dira, zeinen bitartez asma dezake noiz doan diru-masa gehiegizkoa goranzko abiada hartzen. Eta seinale horiek, bi aldetatik jaso ditzake, hots, lehen aipatu ditugun «bitarteko helburuak» deritzanetatik eta «zuzeneko helburua» izendatu dugunetik.

Zer da, beraz, «bitarteko helburuak» estrategia gisa hautatzea? Diru-kopuru osotua era askotara uler eta izenda daiteke. Har daiteke M1, M2, M3 agregatu monetarioetatik bat seinale nagusi bezala. Eta agregatu hautatu horren higikerak adieraziko luke diru-masa osoa zertan den. Adibidez, M3 agregatua aukeratuz gero seinale nagusizat, honen higikerak adieraziko lioke Banku Zentralari, kontrolatu eta eskuan eduki nahi duen diru-kopuru edo masa nola dabilen, une hartako errealitatean.

Besterik da «helburu zuzeneko» estrategia izendatu duguna. Inflazioa diru-kopuruaren aldaketek, eta batik bat ustegabeko aldaketek, erakartzen badute, logikoa dirudi inflazioa bera hartzea seinale nagusizat. Inflazioa goruntz doan seinaleak ematen baditu, une batean, ekonomiak, orduan gauza garbia da diru-kopuru neurritz kanpotik atera dela. Eta honek, Banku Zentralarentzat gauzak estutzeko aski izan beharko luke. Eta erabakiak hartu eta tresnez baliatu diru-masaren eskaintza murrizteko.

EBZak, alabaina, bietatik zein estrategia hautatuko ote du diru-eskaintza eta diru-masa kontrolpean edukitzeko?

Badirudi, praktikak erakusten duela ez batak ez besteak ez dutela beti seinale ematea zuzen betetzen. Esaterako, hipotesia da M agregatu bat handitzen denean, ekonomia osoko eskari agregatuak edo gastuak, batera, handitu egin behar lukeela. Eta ondorena inflazioa izan behar lukeela. Aldagai makroekonomikoen artean ez dira, ordea, hipotesi gisa ezartzen diren erlazio horiek aski garbi eta ziur agertzen ekonomiaren bizitzan.

Beraz, posible da EBZak estrategia bikoitz edo nahasi bat, azkenean, jarraitzea. Esan nahi da, agregatu monetarioei eta inflazioari guztiei batera jarraitzea.

Europar Banku Zentraleko agintariak

Hans Tietmeyer Bundesbank-eko presidentek argi eta garbi azaldu ditu EBZren agintaritzari buruzko zenbait puntu nagusi. Lehenik, aitortu du, hein handi batean, Bundesbank hartu dela eredutzat EBZ eraikitzeke.

EBZren egitekoa, Trataturtik hartu duen agindua, inflazioa kontrolpean edukitzea da. Edo bestela esan, prezioen egonkortasuna lortzea.

Kontseilariak edo agintariak, askea eta menpekotasunik gabea izango dira aginte politikoaren aurrean. «Despolitizatua» izan behar duela esan du EBZak. Bestela izanik, nazioen arteko gatazka anitz sortuko omen litzateke.

EBZeko buru izango diren kontseilariek ez dute beren burua norberaren nazioko ordezkari bezala hartu behar. Nahiz kontseilari bat aleman hiritar izan, ez da Alemaniaren ordezkari. Baizik EB osoaren ordezkari. Bere erantzukizuna ez da Alemaniako estatuaren aurrean, baizik Europa Batuaren aurrean.

Ziur nago, *Jakin*-en «Euroarekin, zer?» ale berezi honetan, izango dela artikulurik EBZren agintaritzza eta Aginte Politikoaren arteko arazo serioak aztertuko dituenik. Izan ere gaia garrantzirik handienekoa da eta dagoneko eztabaida guztiz bizia agertzen da. ♣

1. L.A. Rojo — *Revista
de Occidente*. 200.
zkia. 1998.



Baleren Bakaikoa

Euroaren ondorioak

Aro berri batean sartu da Europako Batasunaren ekonomia. Izan ere, pentsatu behar da betirako gambio-tasa finkoa izango duen moneta-sistema batean gaudela. Moneta-sistema zurrun batean EBarri begira, eta aldakorra dolar edo yenarekiko. Beraz, hemendik aurrera euroa desbalioztatu edo gainbalioztatu nahi baldin bada, EBeko 11 kideentzat egingo da eta kanpo geratuko dira Suedia, Britaina Handia, Danimarka eta Greziako monetak.

Euroak sorreratik dakarrena

Larrun aldizkariaren 12. zenbakian (1992ko martxoa) ECU eta Maastrichteko Konbergentzi Planari buruz idatzi nuen artikulu bat. Eta artikulu horretan nioen Espainiako estatuaren egoera ekonomikoa ez zela batere egokia moneta bakarrak suposatzen zituen erronkei aurre egiteko, horretara heltzeko baldintza gogorrak eskatzen baitziren. Gainera, ez da ahaztu behar Maastrichten onartu zen egutegiaren arabera, ECUa 1997an ipini behar zela zirkulazioan, baldin eta horretarako nahikoa hautagai baldin bazeuden, eta bigarren aukera zen 1999an indarrean jartzea.

Konbergentzi Plan honetan, bestalde, estatu kideei joakera zuhurra eskatzen zitzairen. Inflazio-tasa, defizit publi-

koa eta zor publikoa ere ezin zitezkeen zuritu. Inflazioari langileen alokairuak kontrolatuta aurre egingo zitzaion. Hori zen entzun eta irakurtzen genuen mezua eta berau zen ekonomiak zeukan arazo nagusia. Behin inflazioa konpondurik, lanpostuak sortuko omen ziren eta ongizatea gizarte osoarentzat hedatu.

Orain, inflazioa erabat murrizturik eta kontrolpean dago EBeko hamalau estatutan, eta Konbergentzi Planak eskatzen duen muga barruan, baina langabeziak horretan dirau. Badirudi, bestalde, inflazioaren neurgailuak ez direla oso zorrotzak, eta honela inflazio-tasak hurbiltzea erosoagoa izan da, nahiz erosketak egiterakoan ondasun eta zerbitzu ugarien prezioek bestelakoa adierazi. Gainera, maiatzaren 9ko *The Economist* astekariak zioenez, gaur egun inflazioa ez da batere ondo neurtzen, ez delako kontuan hartzen ondarearen prezio-aldaketa, eta jakina, ondarean egiten diren gastuak garrantzi handia dute.

Defizit publikoa Barne Produktu Gordinaren % 3ra heltzea ez zen batere erraza 1992an, hasiera batean ez zelako onartzen pribatizazioen fondoak defizit hori murrizteko erabiltzea. Baina gerora, data hurbildu ahala, estatu kideek, Espainiako estatuak barne, pribatizazioekin erdie-tsitako diruak erabili dituzte sarrera gehigarri gisa defizit publikoa mugaren barruan ipintzeko, edo RTV bezalako erakunde publikoari estatuaren aurrekoentuetatik dirua transferitu ordez, estatuaren bermearekin maileguak egin dizkiote zenbait bankuk. Era honetan, hasiera batean aurreikusten zen bezala ez dira murriztu gizarte-gastuak, gehiegi urritu izan balira EB eta euroaren legitimazioa auzitan egongo baitziren.

Beraz, nola edo hala bi baldintza horiek bete dira, baina ez da hori zor publikoaren kasua. Izan ere, zenbait estatuk Konbergentzi Planak ezarritako muga baino bi bider handiagoa dute eta beste batzuek ere erraz gaintzen dute muga hori, baina ez da eragozpen izan hautatuak izateko. Borondate politikoa dago eta honela 11 kide izan dira hautatuak eta gainontzekoek ez dute nahi parte hartu Euroclubean, Greziak salbu.

Azkenik, laugarren baldintzak interes-tasen hurbilketa eskatzen zuen hautagaien artean eta hori burutzen ari da. Hain zuzen, interes-tasa apalak luze da ez ditugula ezagutu gure artean eta hori onuragarria izango da inbertsioak areagotzeko euskal ekonomian, eta ziurrenik jendeak gordailuetan ipini orde, fondo abantailatsugotan kokatuko du dirua.

Dena dela ere, moneta batura heltzeko prozesu honetan, bakar-bakarrik moneta-neurriak hartu dira eta neurri hauek betetzea ez da oso zaila izan ekonomia bizkorraldian dagoelako. Baina zer gertatuko zen depresio-garaian egongo bagina? Bestalde, ekonomi egiturak ez dira batere aldatu prozesu honetan. Beraz, moneta-aldaketak sor al dezake egituren hobekuntzarik? Ez.

Euroaren sendotasuna eta defizit demokratikoa

Baina, egoera honetan sortutako moneta noraino izan daiteke sendoa? Nik baietz diot. Zergatik? Lehenbizi euroaren atzetik alemaniar markoa eta holandar florina daudelako, eta bigarrenik, Euroclubeko estatuen merkatal balantza positiboa da eta horrek euroaren eskaria bermatuko du. Hala ere, badirudi gainbalioztatuta egongo dela % 10 inguruan dolar eta yenarekiko, eta honek kanpo-merkataritzan eragin negatiboa izango du, batik bat ekonomia ahula duten estatu kideentzat.

Halaber, euroak izango ditu zenbait ahulezia eta horietako bat Europako Banku Zentralarekin erlasionaturik dago. EBZak independentea izan behar omen du eta gobernuek ez omen dute sartu behar banku honen aferetan. Eta Bruselan gai honi buruz egin zen Kontseiluan politikoei nabarmenki eskuhartu zuten. Baina egia da ere munduko banku zentral guztien agintariak gobernuaren onesperekin izendatzen direla, eta ez al dute izaten finantzarien onesperekin? Are gehiago, EBZren hautaketa horretan ez al zuten ezer esatekorik Nazioarteko Moneta Fondoak edo Munduko Bankuak edo EKGE/OCDEk? Edo erakunde boteretsu hauek ez al dute politikarik egiten? Erantzuna ez da zaila, irakurle!

Jakin, badakigu, nazioarteko finantz erakunde botere-tsuek markatzen dituztela gobernarien politikak eta gobernari hauek, estatu demokratikoetan kontrol politikorik badute, baina inola ere ez banku zentralerako zuzendariek, NMF/FMI edo antzeko finantz erakundeek ez duten bezala, nahiz atzean agintzen berauek egon. Gainera, ez da ahaztu behar, diruaren inguruko politika guztiez gain, estatuaren aurrekontuak nolakoak izan behar diren ere banku zentralak definitzen dituela, eta ez gizarteraren premien arabera, finantza munduaren interesen arabera baizik; horregatik, EBZren menpe geratuko dira kideen aurrekontuak. Beraz, EBZren gobernari nagusiak inola ere ez dira neutralak, politika egingo dute eta horretarako lanabesak badituzte, nahiz politikatik kanpo daudela esan.

Euroaren eragina euskal ekonomian

Nolakoa izango da, ordea, euroaren eragina Euskal Herrian? EBaren barruko transakzio ekonomikoetan diru-trukaketak sortzen dituen eragozpenak eta gastuak desagertuko dira eta hori abantaila da. Geroko dirua gaur egungo pezeta baino egonkorragoa izango da eta horrek eragiketa ekonomikoak erraztuko ditu eta ziurrago bihurtu.

Bestalde, pezeta eta libera desagertzerakoan, estatu-subiranotasunaren ikur garrantzitsuak desagertuko zaizkigu. Izan ere, estatuaren ezaugarri nagusietakoa dirua jaulkitzea da eta moneta-politika egitea, eta euroarekin eskuduntza hori EBZra joango da, nahiz mota honetako politika gauzatzea estatu kideetako banku zentralaren esku geratu.

Euskal ekonomiak berdintsu jarraituko du EBaren baitan. Gaur egun, Eusko Autonomi Erkidegoko, Nafarroako eta Iparraldeko ekonomi maila (lehenengo biek EBeko erregioen estatusa dute eta bestea Akitaniaren zatia da) EBeko batez bestekoa baino zertxobait apaltxeagoa da, eta ez dut uste asko aldatuko denik.

Hala ere, ez da ahaztu behar, 1993tik aurrera Hego Euskal Herriko esportazioek gorakada handia izan dutela pezeta desbalioztatu zelako, eta bide horri eutsi zaio azken urte hauetan guztietan. Baina hemendik aurrera ezin izango da moneta desbalioztatu eta beraz, lanabes inportante

bat galtzen da. Horregatik, hemendik aitzinera esportatzeko zailtasunak baldin badaude eta ekozen-kostuak, oro har, Europako Batasuneko batez bestekoak baino gutxiago ez badira hazitzen, esportazio-mailari eustea zaildu egingo da. Beraz, geldituko den erremedio bakarra alokairu-igoera kontrolatzea, berau Europako Batasuneko baino txikiagoa izan beharko duelarik, batik bat, euskal ekoizkinekin lehiakatu duten herrialdeetako baino apalagoa. Era honetan, ahalbideratuko da lehiakortasun erlatiboa mantentzea.

Bestalde, ez da pentsatu behar herrialde pobreek aberatsak harrapatuko dituztela integrazio handiagoa egongo delako. Ezagunak ditugu, izan ere, estatu baten barruan ematen diren erregioen arteko diferentzia ekonomikoak, eta estatu bateko indar ekonomikoak ez badira gai izan desberdintasun horiek murrizteko, lortuko al du EBak honelako helburua? Alderatu, bestela, Katalunia eta Extremaduraren arteko diferentzia, edo Kalabria eta Milanen artekoa. Estatuetak gobernariak saiatu izan dira diferentziak urritzen, hala ere urteetako diferentziek hor diraute, eta gerora ere ez da gora-behera nabarmenik egongo. Haatik, lehen aipatu bezala, Euskal Herriaren egoera erlatiboa ez dut uste asko aldatuko denik. Hau da, behintzat, ikerketek diotena. Izan ere, inbertitzaileek ez diote bakarrik begiratzeko alokairu-mailari, bestelako faktoreak ere kontuan hartzen baitituzte.

Finantz sistema

The Economist astekarian azaldu zen artikulua batean esaten zenez, euroak eragina izango omen du bankaren negozioan. Alde batetik, kostuak igoko omen zaizkie informazioa eta teknologia egokitzerakoan. Horrez gain, irabazkiak ere murriztuko zaizkie diru-trukaketa gutxiago egin beharko dituztelako.

Halaber, hegoaldeko estatuetan, hain zuzen, Portugal, Espainia eta Italian, diru-eskaintza gehitu egingo omen da, iparraldeko bankuen aukera herrialde hauetan dirua eskaintzeko handituko delako, eta ondorioz, interes-tasak egokiagoak izatera helduko lirakeke. Gainera, badirudi Iparameriketara gertatzen ari den fenomeno bera ematea,

hau da, enpresen fi-
nantzbideak alda-



tzea eta banku-maileguen bidez dirua lortu ordez, bonuen bidez egitea. Euroarekin EBeko bonu-merkatu egokia garatzeko aukera legoke, eta beraz, bankuen mailegu-kopurua urrituko litzateke.

Haatik, bankuetako langileek erne egon behar dute, oro har, banku-negozioa murriztu egingo delako eta honen ondorioa langileak kaleratzea izango da, nahiz bankuen leihatilak beste zerbitzu batzuk eskaintzeko mantentzen daitezkeen. ¶

Javier Bilbao

Gizarte politika European integratzeko prozesuan

Gogoeta honen xedea Ekonomi eta Moneta Batasuna (EMB) egituratzeko prozesuak, aurki kontu unitate nazionala euroagatik ordezkatzeko dituenak, gizarte politikan ekarriko dituen ondorioak aztertzea da. Europako ekonomi integrazioaren prozesuak —enpresaren dinamismo eta eraginkortasunari dagokionez dituen abantaila potentzialak txosten askotan, hala nola Cechinniren txostenean¹, aipatuak— nazio politikak definitzeko esparruan autonomia galera nabarmena ekarri du.

Aipatu prozesuaren amaierak, EMBren egituraketarekin batera, estatu kideek duten erabaki ahalmeneren murrizketa gehigarria ekarriko du: horrela, truke eta moneta politikak, dagoeneko eskumen txikiz erabil zitezkeenak,

herrialde mailan ezabatu egingo dira, arantzelezko politikarekin gertatu zen bezala; zerga politikak, orain arte Maastriichten zergak trinkotzeko ezarri ziren baldintza latzak betetzeko bideratua, ustez murrizketa handiagoa pairatuko du Egonkortasun eta Ekonomi Hazkuderako Ituna indarrean jartzen denean; azkenik, Europako Batzordeak gero eta gehiago zergapetzen ditu industri eta eskualdeko politikak, elkarlehiaren aizunketa saihesteko barne merkatuan. Hau da, alde batetik, eta Francisco Rodríguezek baieztatzen duenez, «EMBren proiektuak, politika antizikloari dagokionez, estatuen subiranotasunaren bazterketa hutsa dakar»², eta bestetik, egun modan dauden eskaintza politikak, ez lukete askatasun osoa izango ekoizpen sistemen elkarlehia erlatiboan eragiteko.

Beste alde batetik, Batzordeak berak egin duen, eta berriki argitaratua izan den, Europako Batasunaren ekonomi eta gizarte kohesioaren gaineko lehen txostenak³, Erki-degoaren baitan ekonomi eta gizarte egoera erabat desberdinak daudela, eta eskualdeen arteko aldeak txikiagotu baino finkatu egiten direla baieztatzeko bide ematen digu.

Gizarte politikaren azterketa esparru zehatz honetan kokatzen dut. Gizarte politikaz, hiritarren bizi mailan eta kalitatean nahiz lan baldintzetan zuzenean eragiten duten jarduketara publikoen multzoa ulertzen dugu. Kontzeptua garatzeko, errentak iraunarazteko programak (pentsioak eta langabeziaren babesa), Osasun, Hezkuntza, Etxebizitza eta Gizarte Zerbitzuen kudeaketa publikoa, edo lan merkatuan esku-hartzea jotzen ditugu politika honen eduki nagusitzat. Eremu hauetan, arlo publikoak funtsezko bi egi-terapide baliatzen ditu helburuak erdiesteko:

- arauak, bai erregulatzailerak bai prestazio zehatz bat jasotzeko eskubidea aintzatesten dutenak, aurrekontu publikoen pentzurakoak (gizarte politikaren araudi edo gainezko aurrekontuen aldea).

- gastu publikoa; honen bidez onetsitako eskubideei arreta egiten zaie edo administrazio publikoek erabakitzen dituzten eskumen prestazioak finantzatzen dira (gizarte politikaren aurrekontuen aldea, finantzaketa sistema berezia eskatzen duena).

1 koadroa: Gizarte babeseko gastuak, biztanleko adierazita

(Urteroko batez bestekoak ecutan, biztanleria guztiarekiko)

Herrialdea	1991	1992	1993	1994
Belgika	4.374	4.591	4.803*	5.142*
Danimarka	6.284	6.779	7.380	8.020
Alemania	5.009	5.681	6.223	6.520*
Grezia	1.054	1.068	1.166*	1.236*
Espainia	2.398	2.624	2.556	2.451*
Frantzia	4.835	5.214	5.718	5.903*
Irlanda	2.138	2.364	2.423	2.591*
Italia	3.960	4.223	3.797	3.789*
Luxenburgo	5.386	5.835	6.678	7.279*
Holanda	5.037	5.384	5.817*	5.924*
Austria	e.e.	e.e.	e.e.	6.276*
Portugal	1.085	1.329	1.337	1.435*
Finlandia	5.900	5.561	4.991*	5.616*
Suedia	e.e.	e.e.	e.e.	e.e.
Erresuma Batua	3.583	3.755	3.847*	4.128*

Iturria: Eurostat (1997): Europako Batasuneko oinarrizko estatistikak, 33. argitalpena. Luxenburgo: EEn argitalpen ofizialeko bulegoa (or. 169).
*Behin-behineko datua / e.e.: erabil ezina.

Gizarte politikaren esparruan ere, egoera zeharo heterogeneoa da Europako Batasunaren barnean. Erkidegoaren oinarrizko estatistiken⁴ azken argitarapenak, Eurostak-ek egina, estatu kideen gizarte babesarako ahaleginen artean ezberdintasun handiak daudela egiaztatzen du, erabiltzen den adierazlea edozein izanda ere —gizarte gastua Barne Produktu Gordinaren (BPG) ehuneko modura, gastua biztanleko, ecu edo PPCTan (*Purchasing Power Currency* edo Erosketa Ahalmen Unitateak)—. 1 koadroak, adibidez, Europako hirritarrek beraien administrazio publikoengandik jasotzen duten tratuan izugarritzko aldeak daudela adierazten du: Danimarkako biztanle batek Greziako biztanle batek baino sei aldiz gehiago jasotzen du batez beste urtero. Eta neurrigabetasun hau ez da denborarekin murrizten.

2 koadroa: Hezkuntzako gastu publikoa (BPGren %)

Herrialdea	Gastu zuzena	Subentzioak	Gastu totala
Austria	5,3	0,01	5,31
Belgika	5,6	—	5,6
Danimarka	6,7	—	5,7
Finlandia	7,3	e.e.	7,3
Frantzia	5,6	—	5,6

Alemania	4,5	0,01	4,51
Grezia	3,4	—	3,4
Irlanda	5,2	0,1	5,3
Italia	5,0	0,1	5,1
Holanda	4,6	0,3	4,9
Portugal	5,3	—	5,3
Espainia	4,5	—	4,5
Suedia	6,7	—	6,7
Erresuma Batua	4,7	0,3	5,0

Iturria: OCDE (1996): Education et a Glance-Indicators. Paris.
e.e.: erabil ezina.

Pentsa liteke, herrialde desberdinen arteko bizitza mailan dauden aldeek prestazio mailan dauden aldeak termino errealetan murriztaraziko lituzketela, baina ez da horrela gertatzen, era adierazkorrez: hurrengo indikadore gisa *gizarte babesean biztanleko gastuak*, PCCen adierazirik erabiltzen badugu, zera jakingo dugu, 1994an, Luxenburgo edo Danimarkako biztanle batek —urteroko batez bestekoa— Greziako biztanle batek baino lau aldiz gehiago jaso zuela gizarte prestazioei dagokionez⁵.

Eta gainera, Hezkuntzako gastu publikoa kontuan hartuko bagenu —gizarte gastuaren definizio zabalago bat erabiliz— zentro eta periferiako herrialdeetako biztanleek dituzten gizarte baldintzen arteko aldea handituko litzateke, 2 koadroak erakusten duen bezala.

Erkidegoko agintariek integrazio prozesuan gizarte politikari eman dioten trataera, multzo xume bat eratzea eraman duena, aztertzen saiatuko naiz. L. Hantrais-ek⁶ erabiltzen dituen kategoriak aintzat hartuta, gizarte politikari dagokion Europako multzoan, indarrean dauden ondoko erabaki nagusiak bereiz ditzakegu⁷:

- Oinarrizko Legeria: Erromako Ituna (Europako Akta Bakarra, 1987-1-7tik hona) (117, 118 eta 130 artk.); Langileen oinarrizko gizarte eskubideen Ergidegoko gutuna, 1989-12-9; Gizarte politikari buruzko Akordio/Protokoloa, 1992-2-7 (Amsterdameko Itunean barneratzeko, baiezpen zain).

- Bigarren Legeria: araudiak, zuzentarauak, Kontseiluaren erabakiak, Batzordearen komunikazioak, gomen-dioak, Liburu berdea (1993) eta Liburu zuria (1994).

- Argitalpen ofizialak: gai askotariko txostenak eta *Social europe* aldizkaria.

Nire iritziz, Erkidegoaren jarduketa bideratzeko gizarte politikaren arloan hartu diren erabakien multzotik ondoko abiaburuak eratoritzen dira:

- 1) Gizartea babesteko Europak dituen sistemen anizkoiztasunaren balorazio positiboa, beti ere kultur aztura zehatzen adierazgarri gisa.

- 2) Sorospidetasunaren abiaburua orokorki hartzea gizarte esparruan, *Gizarte politikako akordioan* zehazki arautua dagoen bezala.

- 3) Europako benetako gizarte politika definitzeari uko egitea, eta baita gizarte babesaren esparruan erabide harmonizatzaileak aplikatzeari ere. Posibilitate honen aurrean, estatu kideen artean koordinazio arauak ezartzearen alde jotzen da batez ere.

- 4) Arau orokorraren salbuespen gisa, Erkidegoaren funtsezko ekimen bat garatzea oso gai zehatzetan, hala nola langileriaren zirkulazio askea, laneko segurtasuna eta higiena, gizon eta emakumeen arteko eskubide berdintasuna edo gizarte eragileen parte hartzea.

- 5) Enpresa eta herrialdeen elkarlehiari dagokionez, gizarte politikaren inguruko jarduketan behin-behineko eragin kaltegarriak sortu duen kezka (esaterako, lan merkatuaren arauketari edo zerga presioari dagokionez).

Komunikazio honen helburu nagusia, Erkidego mailan, estatu kideen elkarlehia erlatiboaren galerei erantzuteko, gizarte babes aldagaia doiketa eraginbide gisa erabiltzea saihestuko luketen erabideak ezar daitezela eskatzea da. Xede horretarako, proposamen batzuk luzatu dira ekonomi literaturan; halaber, nire iritziz, irtenbide ezagunen bide beretik jo dezakeen prozedura bat azaldu nahi nuke. Oro har, nire aburuz proposamen eraginkorrenak honako hauek dira:

- Estatu kideen gizarte politikak pixkanaka harmonizatzea gizarte babes maila handia lortzeko asmoz, *Dispersyn*⁸ eta Lovainako Unibertsitate katolikoko beste kide batzuek asmatutako Europako gizarte sugearen formulak adierazten duenaren arabera. Irtenbide honek jadanik no-

labaiteko eustarri legala du oinarrizko legerian: Erromako Itunaren 100-3 artikuluko berriak (Amsterdam-eko Itunak, baiezpenez zain, eraberritu duen bertsioan), Batzordea egitarapide harmonizatzaileak hartzeko ahalmentzen du, balizko honetan ondo egokitu daitezkeen helburu jakinekin; eta 118-2 artikuluko berriak, «pixkanaka aplikatu daitezkeen preskripzio minimoak» ezartzera baimentzen du Batzordea, besteen artean, lanbideari dagokionez (Europako Zuzenbide Auzitegiaren adierazpenetan, gizarte politikaren esparruan eskuharmen titulu zabala).

- Erkidegoko erakundeek sustatuta, Europa mailako gizarte politika garatzea, proposatzen diren jarduketak elkartasunaren bidetik burutzeko aurrekontu nahikoa izango duena eta helburu zabalak lortzeko bideratuko dena. Pieters⁹ eta beste batzuen proposamenak —*Hamahirugarren estatu* izenaz ezaguna— hastapenetan langile etorkinentzat Gizarte Segurantzako sistema europarra lortu nahi zuenak, Gizarte Segurantzaren gaineko etorkizuneko politika europarraren hazia finkatu nahi zuen. Aurretik, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan Batzordeak eskaturiko zenbait txostenetan (Mc Dougall Txostena edo Padoa-Schioppa Txostena, esaterako), Erkidegoaren mailan langabezia aseguru bat sortzea proposatzen zen, europar aurrekontu baten kargu finantzaturik, honen kreditu gastuak Erkidegoaren Nazio Produktu Gordinari %5a edo %7a suposatzen zuelarik.

- Nazio jarduketan zergapetzea gizarte politikaren esparruan, elkarlehiaren aizunketa saihesteko asmoz. Lehia-keta dinamikan distortsioa sortzen duten gizarte desbalioztapenak bereziki kontuan hartzen badira elkarlehia erlatiboa irabazteko desbidezko mekanismo gisa, industri politikaren arloan estatu kideek hartutako neurriak Lehiakortasun Zuzendaritza Nagusiaren kontrolpean dauden moduan, gizarte politikako nazio jarduketak kontrolaturik egon beharko lirатеke. Hau da, jadanik dituzten eskumen marjinak mugatuko lirатеke. Irtenbide hau *de facto* azpimarratzen da 1997ko urtarrilean Estatu laguntzen kontrola eta lan kostuen murriztapenari buruzko Batzordearen adierazpenean, non errepikatzen den lanpostuak sortzeko


laguntza publikoek ezin dutela gainontzeko europar en-presentzat diskriminazioa sortarazi.

- Europa osoko negoziazio kolektiboa indartzea, gizarte politikaren funtsezko edukiak zehaztuz eta Europako langileriarentzat prestazio eta estaldura mailak ezarriz. Irtenbide honek, gizarte eragileen legezko ekimena suposatuko lukeena, beharrezko araudia izango du: Itunaren¹⁰ 118 B artikulua berriak Europa mailako gizarte elkarrizketa Erkidegoaren eskumen garapenaren egitarapide alternatibogisa aurreikusten du.

- Zergapetzea harmonizatzea gizarte politikaren finantzaketari loturik, gizarte babesaren *kostuak* berdinak izateko Europako Batasunaren lurralde osoan; beti ere, herrialdeetako agintariek ahalmena izango lukete sistema ba-koitzaren lehentasunak zeintzuk diren eta jarduketak burutzeko egiterapideak zehazteko.

Aipatu irtenbideren bat edo batzuk hartzeak (Erkidegotik kanpoko merkataritzan ere eragina izango bailukete) sendarpena erraztuko luke, bai eta dauden gizarte babese-ko maila hobetu ere, Europako gune berriak izan beharko lukeen gizarte dimentsiotik hain urruti dagoen integrazio ekonomikorako prozesuak dakartzan arriskuetatik kanpo. Gizarte babes mailaren murriztapena, kostu esparruan elkarlehiakortasuna irabazteko estrategiatzat hartzen ez bada ere, moneta integrazioaren ondorio bat izan daiteke, jarduketa ekonomiko okerragoa duen herrialde baten gizarte eskakizunak handitu eta, aurrekontu mugapen zorrotzagatik, ezin badie lehen bezala aurre egin. ¶

-
1. Moneta bakarrarekin, nazioarteko komertzioari loturiko zenbait transakzio kostu desagertuko dira (banku komisioak, arrisku estalgarri kostuak) eta aldaketa tipoen gora-beheren ondorioz sortzen den ziurtasun eza murriztuko da. Horrez gain, merkatuen integrazioa errazten du eta interes tipoen jaitsieraruntz joera bateratu (arrisku primak ez baitira beharrezko izango).
 2. RODRIGUEZ ORTIZ, F. (1997): *La Unión Monetaria y España: ¿integración económica o desintegración social?* Bilbo: Deustuko Unibertsitatea (120 or.).

3. EUROPAKO BATZORDEA (1997):  *Europako Batasuna - ren ekonomi eta gizarte kohesioaren gaineko lehen txostena*. Luxemburgo: EEen argitalpen ofizialetako bulegoa.
4. EUROSTAT (1997): Europako Batasuneko oinarrizko estatistikak, 33. argitalpena. Luxemburgo: EEren argitalpen ofizialetako bulegoa.
5. EUROSTAT (1997): Europako Batasuneko oinarrizko estatistikak, 33. argitalpena. Luxemburgo: EEren argitalpen ofizialetako bulegoa.
6. HANTRAIS, L. (1995): *Social policy in the European Union*. Houndmills: Mac Millan.
7. Amsterdam-eko Ituna, oinarrizko legeriari dagokionez, baizpenerako zain dagoen bitartean.
8. DISPERSYN, M. et al. (1990): «La construction d'un serpent social européen», *Revue de la sécurité sociale*, 12. zk. (889-979. or). Brusela.
9. PIETERS, D.; VALM, W.; VAANTEENKISTE, S. (1990): «Le treizième état», *Revue de la sécurité sociale*, 12. zk. (856-886 or). Brusela.
10. Artikulu honek Erromako Itunean 14 estatu kideentzat (Erresuma Batua salbu) formalki indarrean dagoen Gizarte politikari buruzko akordioaren aurreikuspen bat ezartzen du.

Joselu Cereceda

Mamu kezkarri (gutxienez) bat dator Europara

Euroa 1999.ean jaioko da eta, 2002.eko uztailaren 1ean, Europako Batasunean sartuko diren Estatu guztietan bideratze legala edukiko duen diru bakarra izango da. Gustuko izan ala ez, egoera berri baten aurrean egongo gara, edo hobeki esanda, jadanik bagaude, zeren egiten ari diren prestakuntzak eta ahaleginak, Maastricht-eko Itunak inposaturiko baldintzak betetzeko batez ere, aspaldi honetan eragin han-

diak izaten ari dira arlo sozioekonomikoan, Europa osoan.

Euroa, diru sendoa izango denez, hazkunde ekonomikoaren azeleragailu eta enplegu sortzailea izango da.

(Jacques Chirac)

Aspaldi honetan honelako iritziak entzuten dira etengabe nonnahi. Ze inozoak izan garen ekonomilariak! Hazkunde ekonomikoa eragiteko eta lanpostuak sortzeko beti ikasten, eztabaidatzen, eta erantzun zuzena eskura genuen: diru bakarra zen gure gaitz nagusien sendabidea! David Hume, Adam Smith, Keynes eta Marx-en teoriak amen batean suntsitu ditu euroak. Hamaika ikusteko jaiok gara!

Diru bakarra hautatzean, ona den guztia haziko da gaitz barik: «Eurorarekin, Euskadi garaile». Bat-batean denok izango gara guapoagoak, aberatsagoak, zoriontsuagoak, askeagoak, demokratagoak...

Euroari buruz horrela berba egitea adar jotze lotsabako bat baino ez da, bizilagunen adimenari inolako errespeturik ez edukitzea... Ez da beharrezkoa teoria handiak garatzea, diru bakarrak berez ez duela balio funtsezko arazo ekonomikoak konpontzeko frogatzeko. Izan ere, errealitateari berari begiratu baino ez dago: bi Alemaniak batu baino lehen, diru eta maila sozioekonomikoa erabat desberdinak zituzten; batasuna gauzatu eta gero, nahiz eta diru bakarra izan, desberdintasunak ez dira desagertu, nahiz eta urte dexente igaro. Estatu Espainiarrean, batasun monetarioa aspaldiko kontua den arren, erregioen arteko desberdintasunek tinko diraute.

Zentzu honetan, beti eduki behar dugu gogoan Kapitalismoak duen funtsezko legea, «Garapen desberdineko printzipioa» deritzona. Lege hau ankerra da: urteak hil urteak jaio, ezinbestez, lurralde pobreen eta aberatsen arteko desberdintasunak gero eta handiagoak izango dira —txiroak gero eta txiroago, aberatsak gero eta aberatsago—.

Gure ustetan, moneta batasunak ez du bide errazik eta baketsurik izango, aspalditik aurreikustarazi gura diguten bezala. Beste oinarritzko lege bat aipa dezakegu: ekonomi mundua, edozein gauza izan daiteke, lasaia izan ezik. Ezkertiar izateko inolako osperik ez duten askok, moneta

batasuna kaltegarria izan ez dadin, Maastricht-eko Itunak proposatzen duena baino askoz zailago eta hertsiago den bateratasun bat behar dela diote.

Yenari eta dolarrari aurrez aurre begiratu ahalko die euroak, zeren munduko bigarren potentzia ekonomikoak —eta lehenengo komertzialak— babesturik egongo baita. Horregatik, behin eta berriro esaten zaigu, sortuko den euroa, gogorra, indartsua eta balio handikoa izango dela. Kontzeptu hauekin kontu handiz ibili behar da. Diru indartsuak ez du ekonomia indartsua esan gura. Alderantziz gerta daiteke. Moneta bat indartsua, garestia izateko, urri, eskas izan behar da. Moneta bat urria denean, finantzaketa ere, urria izango da. Eta finantzaketa urria denean, inbertsioa garestitzen da, murrizten da eta berarekin batera, garapen ekonomikoa, enpleguaren sorkuntza... Bestalde, balio handiko euro batek, esportazioak murriztuko eta inportazioak handituko ditu (pagamendu balantzak defizita izango du, garapen ekonomikoa galgatuko da...).

Har ditzagun prezioen egonkortasuna eta garapen ekonomikoa aldagai ekonomikoak eta azter dezagun zer nolako trataera ematen dien Maastricht-eko Itunak: Itunaren helbururik garrantzitsuena prezioen egonkortasuna da; hau lortzeko ez dago mugarik. Garapen ekonomikoak muga bat dauka: ezin du inflazioa eragin. Gizartearentzat garrantzi handiagoa du garapen ekonomikoak prezioen egonkortasunak baino, batik bat lehenengoak enplegua sortzen duelako. Maastricht-eko Itunaren arauera, bigarren mailakoari ez zaio baldintzarik ipini, funtzeskoenari bai. Prezioen egonkortasuna eta berari laguntzen dioten neurri guztiak dira fetitxe berriak, Neoliberalismoak di-tuen berberak (kasualitatez ote?).

Europako 300 ekonomilari baino gehiagok Europako Batasuneko estatuburuari gutun ireki bat idatzi zieten euren kezkak azalduz:

(...) Uste dugu beharrezkoa dela Moneta Batasuna zuek berrausnar dezazuen... diru bakarrak eta moneta politika amankomunak abantaila handiak eduki ditzakete, baina Moneta Batasun hau denboraz kanpoko eta dogmatikoak diren iritzi batzuen emaitzak dira... Ekonomi politika

zuhur bat inguruabar errealen ondorioa izan behar da eta ez arau zurrun batzuen zerrenda bat... Arazo demokratiko bat da, baita ere, zeren Moneta Batasunak kenduko dizuete zuen hautabideen erantzukizun politikoa edukitzea... Gaur egungo egoeran, MBak ezingo du baimendu erantzun egoki bat, ez 20 milioi langabetuei, ez ingurugiro arazoei, ez 50 milioi txiroei ezta Ongizate Estatuko egonkortasunari ere... Europar askok Moneta Batasuna garratzasun eta sofrikario sozial politikaz identifikatzen dute, egungo Europako Batasunaren planteamenduari esker... Aukera handia galdu da... Diru bakar bat, baliabide handia izango litzateke enplegu osoko politika batentzat, kalitatezko lanaz eta Segurtasun Sozialaz...

Esanguratsua da, oso, Europa osoan gutun honi emandako tratu lotsabakoaz ohartzea.

Europako Estatu desberdinetan, Maastricht-eko baldintzak betetzeko egin diren ahaleginak —eta badugu datu nahikorik!— behin sakonki aztertuz gero, ondorio beldurgarri bat ateratzen dugu: prezioen eta defizit publikoaren (honen murrizketa eta kontrola, beste fetitxe bat da, aurrekoaren ondorioa) galga arlo sozialaren lepotik lortzen dira, gehienbat. Eta erabat normala da: neoliberalak diotenez, prezioak kontrolatzeko, soldatak kontrolatu behar dira, lan merkatua «malgua» izan behar da (honek lan merkatuaren desarautzea dakar, kontratu finkoaren desagertzea...). Prezioak kontrolatzeko, gastu publikoa kontrolatu behar da (honek, denbora igaro ahala, Ongizate Estatua- ren suntsipena dakar batez ere —Segurtasun Sozialaren pobretzea, *medikamentazioa*—). Aipaturiko Europako ekonomiariek dioten bezala:

Europako Herriek beharrezkoa dute gizakien interesen aldeko Ekonomi Politika bat. Bada ordua, politikariak horretaz ohar daitezen.

Beste arazo kezkarri bat, batez ere bere ondorioengatik. Lurralde arteko dirua desberdina denean, pagamendu balantzaren defizita konpontzeko monetaren debaluaziora jotzen da. Debaluazioak esportazioak handitzen eta inportazioak gutxitzen ditu. Diru bakarra indarrean dagoenean, debaluazioa ezinezkoa izango da. Tamalez, eskarmentuak

hau diosku: Pagamendu Balantza konpontzeko geratuko den ia bide bakarra, langileen bizibaldintzak pobretzea izango da. Katastrofismoa? Ai, horrela balitz! Lehiakorrak izateko, prezioak gutxitu behar... eta horretarako... soldata errealak behera, Segurtasun Soziala murriztu...

Beste arazo berezi bat Europako Banku Zentralekoa da. Politika sozioekonomikoak ezartzeko orduan gaitasuna izango duen erakunde bakarra Europako Banku Zentralea izango da, ia-ia inolako oposizio barik. Ez Estatuetako Parlamentuek, ez Gobernuek, ezingo dute aldatu Banku Zentralearen politika. Zentzu horretan, Europako Banku Zentralea erabat autonomoa izango da. Eta ekonomia garrantzitsuegia da bankeroen esku uzteko.

Galdera bat egin diezaiokegu gure buruari: moneta batasuna posible izango da batasun politika barik? Askoren ustez, euroa behin sortuz gero, batasun politikorik ezak bere porrota eragin deza-

ke. Nolabaiteko ba-



tasun politikoa sor-

tuko da, baina, gure ustetan, Europako estaturik boteretsuenaren menpe, hots, Alemania izango da aipaturiko Batasuna inposatuko duena, indarrez. Politika munduan, ekonomiak agintzen du. Hori dela eta edukiko dugun euroa, marko germaniar mozoturriko bat izango da, zalantza barik.

Eta guretzat, garrantzi handiko galdera: Euskal Herria bezalako herri gutxituek, zernolako etorkizuna espero dezakete? Arlo horretan ere, erantzuna ezin da baikorra izan. «Euroarekin Euskadi garaile»? Bai zera! Europako Batasunean ez dago herri minorizatuentzako lekurik. Neoliberalismoak bere ideologia inposatzen duen bitartean, inperialismoaren gune den Europako Batasunean estatuek jarraituko dute agintzen, Alemania jaun eta jabe delarik, Frantziaren laguntzaz. Eta langileen eta herri gutxituen eskubi-deak zapalduak izango dira inolako kupida barik.

Beste arlo batzuk ikutu barik geratu dira. Baina esandakoarekin, nire uste apalean, badaukagu eztabaida egiteko gai nahikorik. Eta borroka ideologikoan erabat murgiltzeko motiborik. Gustatuko litzaidake baikorra izatea, bai-

na... klase desbabestuen eta herri gutxituen ikuspuntutik ezinezkoa da, tamalez. ♣

M^a Carmen Gallastegi

Aldaketa historikoa

Moneta bakarraren sarrera, neurri batean gertakari historikoa, Bretton Woodsen sistemaren sorrera (1944) bezain garrantzitsua izango da nazioarteko moneta sistemaren historiarako. Horregatik, saihestu ezineko zereginak dira moneta bakarrak ekar ditzakeen ondorioak aztertzea, abantailei —baita eragozpenei ere— zehaztasunez begiratzeta, eta hain berrikuntza garrantzitsua gure onerako izan dadin lortzeko egin beharrekoaz gogoeta gitea.

Ikuspuntu ekonomikotik, oso erraz laburbildu daitezkeen eta sendotasun eta arrazionaltasun handia duten argudioetan oinarritua dago moneta bakarra.

Batetik, moneta europarren arteko truke neurri aldaezinak ezartzearen ondorioz, aldagai hauen ohiko gora-beherei datxekien ziurgabetasuna desagertuko da. Beraz, arrisku prima asoziatuak ezabatu egingo dira eta, honen ondorioz, interes tasen diferentziala murriztu egingo da (murrizten ari da dagoeneko), eta hori bereziki nabarmena izango da moneta ahula ohi duten ekonomietan, hala nola Espainian.

Bigarrenik, erreserba moneta gisa eta ordainketen izendapenerako tresna gisa gero eta protagonismo handiagoa izango duen moneta izango dugu: euroa. Gaur egunean Europako Batasunaren komunitatez kanpoko merkataritza munduko guztiaren % 20koa baldin bada, aurreikuspenek diotenez, pisu hori handitu egingo da % 25 arte gutxi gorabehera. Epe ertainean moneta europarrak munduko erreserben % 40 hartzea espero da, dolarra neurri batean baztertuz mundu mailan dibisa gisa jokatu duen paperean.

Denborarekin bigarren moneta garrantzitsuenaren lekuan finkatuko den moneta izango du ekonomia europarrak, eta horrek, zalantzarik gabe, lagundu egingo dio merkataritzaren hedapenari.

Euroaren sarreraren hirugarren abantaila handiak transakzioen kostuekin eta hauen murriztearekin du zerikusia. Dibisen aldatzeak sortzen dituen truke komisioak desagertu egingo dira. Eta modu berean desagertuko dira truke arriskuaren primak eta baita finantz erakundeek eta banku zentralek, komunitate barneko dibisetako operazioak administratzeko, aurre egin beharreko kostuak ere.

Azkenik, laugarren abantaila batek zerikusia du leku-ko moneta politika erabakitzeke eskema ezin hobea baliatzeke aukerarekin.

Duela urte asko abiatutako prozesuari arrazionaltasuna ematen dioten funtsezko arrazoiak hauek izanik, ondoko baieztapen hau egin daiteke: «Moneta Batasunaren proiektuaren arrazionaltasuna, integrazio ekonomikoarekiko koherentziaren ondorio ez ezik, ordezkoko hautabideen bideragarritasun zailaren ondorio ere bada».

Molde honetako aldaketa historiko batek, ezagun duenez, ondorio garrantzitsuak izango ditu mikroekonomian zein makroekonomian, eta ezinezkoa da, hain leku mugatuan, aldaketa hauek bere osoan aztertzea. Baina, guxtienez, bat etorri beharko genuke euroarekin eragile ekonomiko guztiak munta handiko aldaketa kulturalari egin beharko diogula aurre. Aldaketa honek behartu egin ditu erakunde nagusiak, arlo publikoan batik bat, datorrenari buruzko sentsibilizatze kanpainak egitera eta erronkak ezustean harrapa ez gaitzan formazio egitasmoak martxan jartzera.

Arlo instituzionalak

Badira urte batzuk herrialdeen garapen ekonomikoaren eta beren erakundeen garapen eta diseinuaren arteko harremana ikertzen hasi zela ekonomian. Era honetako azterketak, esate baterako, Europako herrialde gehienetan aginte politikotik independente diren —independentzia maila herrialde batetik bestera aldatu egiten den arren—

Banku Zentralak izatea eragin duten proposamenen oinarrian daude, eta baita herrialde europarretako lan merkaturuen egitura erreforma batzuen oinarrian ere. Ikuspegi honetatik, honako galdera honek garrantzia duela uste dut: Zein eratako eredu instituzionalean sartuko gara? Eta zehaztasunez garatu ezingo badut ere, garrantzitsutzat ditudan bi alderdi aipatu nahi nituzke. Lehenengoa zergen arloari dagokio eta bigarrena erabakiak hartzeko prozesuari.

- Zergen arloari dagokionez, estatu kideen zerga politikak bateratu egin beharko lirakeela diote ahots batzuek. Ganbio politika bakarra eta moneta politika bakarra izango badira, argudiatzen dute zenbaitek, ezinbestekoa izango da «zerga politika bakarra» ere.

Nire iritziz, gai honi dagokionez, aintzat hartu beharreko bi argudio mota daude eta ñabardura garrantzitsu bat egin behar da.

Hasteko, ñabardura; bateratzeari buruz hitz egiten ari garenean zeharkako ezarpenaren bateratzeaz ari bagara, nabarmena da dagoeneko lanean ari direla norabide horretan. BEZren sarrera urrats garrantzitsua izan zen bateratze bidean, eta espero izatekoa da zeharkako ezarpenaren oraindik badiren diferentziak desagertzea, izan ere, gasolinaren gaineko zerga, esate baterako, estatu batetik bestera asko alda daitekeela pentsatzea ez baitirudi zentzuzkoa.

Honek ez du esan nahi, alabaina, gauza bera gertatuko denik zuzeneko ezarpenaren mailan. Eta ez da horrela izango bi arrazoiengatik:

a) moneta batasuna ez delako batasun sozial bat ezta moneta erreforma bat ere eta bidezkoa delako aldea egotea zuzeneko zergetan, estatu kideek eskaintzen dituzten prestazioen artean ere aldeak baldin badude .

b) baina, gainera, maniobrarako aukera bat utzi behar da, Europa osatzen duten herrialde, erregio eta nazionalitateek erreakzionatzeko modua izan dezaten shock idiosinkratiko eta bereizien eraginez eta ezusteko gertakizunen eraginez bizi ditzaketen egoera ekonomiko desberdinen aurrean.

Shockei aurre egiteko segurtatze mekanismo komun eta orokorrik —hots, birbanatzea egiteko eta arriskuak

banako eta erregio eragileen artean banatzeko mekanismoak— ez da Europan. Eta, gainera, erregioen arteko benetako bateratzea oraindik oso urruti dagoenez, uste dut zentzuzkoa dela aurkako shock propioei aurre egin ahal izateko maniobra aukera nahikoa izatea ahalbidetuko dien tresnaren bat izatea erregioek. Are gehiago, integrazioarekin erregioen espezializazioak gora egiteko aukera handia baita. Eta honek, aldi berean, ustekabeko eta izaera idiosinkratikoko shockak gertatzeko aukera handia izango dela iradokitzen du, Batzordeak adierazitakoaren kontra. Zalantzarik gabe, bateratze arauak existitu beharko dira, baina koordinazioak eta bateratzeak ez dute, derrigor, zerga politiken uniformetasuna eskatuko.

- Arlo askotan Europako Erkidegoa estatu federala da dagoeneko. Eta hala da, 1986an Europako Akta Bakarrak gai batzuetan banako kideen beto eskubidea ezabatu zutenetik. Alabaina, ez erakundeak eta ez prozedurak ez dira behar beste zehaztu, zein botere zentralizatu beharko lirartekeen eta zein ez erabakitzea ahabidetuko duen sistema argi bat izatea lortzeko.

Subsidiaritate printzipioak, Maastricht-eko Hitzarmenean sartua, ez dauka irakurketa bakarra. Izan ere, irakurketa kontraesankorrak egiten zaizkio eta argi dagoen gauza bakarra, agian, subsidiaritate printzipioak estatu kideen hasierako subiranotasuna ezagutzen duela da, eta zentroaren «fidagarritasun» arazoak substantzialak izan daitezkeela nabarmentzen duela.

Bestela boterea Erkidegoko erakundeetan zentralizatzeko prozesu indiskriminatua izango litzatekeenaren alternatiba praktikoa gisa defenditu da printzipio hau. Printzipio honek, azken batean, boterearen banaketa deszentralizatua hobetsi behar dela auresuposatzen du, zentralizatzearen aldeko argudio onak ez baldin badaude behintzat.

Gai honen inguruan, xehetasunetan sartu gabe, baieztapen hauek egin daitezkeela uste dut:

- a) Botereak Erkidegoaren eta estatu kideen artean banatzeko gaur egungo mekanismoak argitasun gutxikoak eta informalak dira.

b) Subsidiaritate nozioak ez ditu gauzak gehiegi argitzen: oso lausoa da eta irakurketa askotarako irekia, eta funtzioak banatzeko gidatzat baino printzipio politiko zabaltzat hartu behar da.

c) Mekanismoko koherentzia falta harrigarria eta kezagarria da, Erkidegoak federalismoranzko lehenengo pausoak eman baitzituen dagoeneko 1986an, beto eskubidea ezabatzean, beste estatu federal batzuen garapenean historikoki botere horiekin batera joan diren erakundeen jabe egin gabe artean.

Ondorio makroekonomikoak

Makroekonomiaren ikuspegitik euroaren sarreraren ondorioak garrantzitsuak dira testuinguru makroekonomiko egonkorra lortzea eta, batez ere, egonkortasun horri eustea, ekar dezakeelako. Sarri baieztatzen da egonkortasun makroekonomikoa hazkunde iraunkorrerako ezinbesteko baldintza dela eta, mundu guztia baieztapen honekin bat datorren arren, ez dirudi bere edukia aski gardena denik.

Komenigarria da, beraz, testuinguru makroekonomikoa egonkorra izateko ondoko bost baldintza hauek bete behar direla zehaztea:

- 1) Inflazioa baxua da eta aurretik jakiteko modukoa.
- 2) Egiazko interes tasak egokiak dira.
- 3) Zerga politika egonkorra eta iraunkorra da.
- 4) Truke tasa lehiakorra da eta aurretik jakiteko modukoa.
- 5) Kontu korrenteen balantza egingarritzat eta iraunkortzat jotzen da.

Erraza da ohartzea egonkortasunerako beharrezko gisa deskribatutako baldintzak Maastrichten onartu zirenen oso antzekoak direla. Beraz, hau kontuan hartuta, eta Europan ezarriko den moneta politikari buruz dakigunarekin batera, moneta bakarrarekin egonkortasunean irabazi egingo dugula ondorioztatu dezakegu. Inflazioa kontrolpean izango da, truke tasa mugiezina izango da ezinbestean, egiazko interes tasek —herrialde europarren zerga politike-tan desbideratzerik ez baldin badago— beste kideen maila antzekoetan iraungo dute, eta zerga politikak ortodoxoa

izan beharko du, gastu eta «isun» handien arriskua jasan nahi ez baldin bada behintzat.

Argitzeko daukagu oraindik, berehala helduko den egonkortasun hori aski izango ote den egiazko bateratzea lortu ahal izateko, hots, Europako batez bestekoan dugun kokapen erlatiboa hobetzea ahalbidetuko duen gure Barne Produktu Gordin per capitaren hazkundera lortu ahal izateko. Moneta bakarrak bi aukera hauen aurrean jartzen gaitu:

a) Europako batez bestekoaren gaineratik haztea eta, beraz, aldagai nominalak kontrolatzen jarraituz gero, egiazko baldintzetan bateratu ahal izatea gure langabezia tasa jaitsiz.

b) Bateratasun irizpide nominalak bete arren ekoizpen gaitasunean inbertitzeko gai ez izatea eta, ondorioz, batez bestekoa baino gehiago ez haztea. Kasu honetan, ezinezkoa izango da egiazko bateratzea lortzea, eta berriro kohesio herrialdeen taldean zokoratuta geratuko gara.

A aukera nagusitzeko, hori komeni baitzaigu, zenbait baldintza betetzea behar dugu: batetik, sektore publikoak, finantz ortodoxiarekin batera, zientzia eta teknologiarako inbertsioetan ahalegin handiak egiteko gaitasuna izatea —alegia, hezkun-



tzan, azpiegituretan

eta erakundeetan (sistemaren ekoizpen gaitasuna berritzea eta handitzea ahalbidetuko baitu honek)—, eta bestetik, interes tasen murrizketarako politika, behin finkatuz gero, sektore pribatuaren inbertsio produktiboa bultzatuko duen aldaketa iraunkortzat hartzea enpresariak; ulertu beharrekoa da gure prezioak eta soldatak beren bilakaeran herrialde egonkorrenetatik urruntzen baldin badira, truke tasa mugiezinen testuinguruan egotean, lehiakortasuna neurri benetan arriskutsuan galduko dela, eta aurrerantzean horri ezingo zaiola, inoiz ere, aurre egin iraganean hainbeste erabilitako devaluazio lehiakorrek baliatuz.

Nabarmena da, alternatiba posible guztien artean apustu egin nahi dugun estrategia eta aukera politikoak, Maastricht-eko baldintza nominalak betetzea eskatzeaz gain, aipatu ditudan baldintza hauek, eta beste batzuk, be-

tetzeko gaitasuna izan dezagun ere eskatzen duela. Bide honetan baino ez dugu lortuko gure langabezia tasa murriztea eta aukera itxaropentsu bat eskaintzea hainbeste gazte trebatu, hezi eta gaituri, euren energia eta ezagutzak norbere buruaren alde eta gizartearen alde erabiltzeko modurik aurkitzen ez duten hainbeste gazteri. ¶

[Erredakzioan euskaratua]

Jenaro Garate

Euroa: egiaren Europaruntz

Orain eta hemen aztertuko dugun ikuspuntutik begiratu, euroa hau da: hamaika naziok gogoz onartzen eta janzten duten uztarri ekonomikoa. Orain artekoak era askotako aurretratuak izan dira. Euroa onartzea, berriz, notariara joan eta tratua herri guztien aurrean izenpetzea da. Txanpon ikusgarri bihurtuko den tratua, eten ezina, eguneroko gure eskuetan izango duguna. Gogozko lokarria da, baina hari luze eta sendoz elkar batzen gaituena. Galdera hau da: «Gu, euskaldunok, tratu honen alde edo kontra?». «Europaruntz nahi dugu ala Beheruntz?».

Euskadiko Ipar eta Hegoaldea

Esaera ezaguna da —batez ere Frantzian— Europa Piri-
nioetan bukatzen dela. Badira datuak, gure begien aurrean, esaldi horren esanahiren bat baiesten dutenak. Bi arlo desberdinetara joko dugu baiesten hori aztertu nahian: Zientzietara eta herri, kale eta enparantzeta.

Zientzietara, lehenbizi. Duela urte batzuk nire gatzetako matematikak gogoratu eta sakontzen niharduela, harrituta begietsi nuen zenbat matematiko handi izan diren Frantzian. Hona hemen dozena bat ezagun: Descartes, Fer-

mat, L'Hopital, D'Alembert, Lagrange, Monge, Laplace, Fourier, Cauchy, Jordan, Poincare, Lebesgue. Espainiako bat ezin aipatu, frantses horietatik baten antzeko denik. Ondorioa: izan dela zeozer Ipar eta Hego Pirinioa banandu izan duena.

Beste adibide bat. Goazen Pirinio iparreko euskal herrietara, eta gero hegokoetara. Hango kale eta enparantzen garbitasuna nabaria da, hegoaldekoekin konparatuz. Alde handia, begi bistan. Beraz, hor ere ageri da zeozer Ipar eta Hego Pirinioa banantzen duena.

Nire euroari buruzko iritzietarako beharrezkoa da Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko bereizketa hau, euroaren eragina desberdina izan litekeelako Espainian —Espainiara lotuta dagoen Euskadi zatia barru— eta Frantzia —bere Ipar Euskadirekin—. Eta nik, lehenbizi, Espainiara uztartuta dagoen Euskadiko zati honi begira jardungo dut. Amaieran osatuko dugu jokaera mugatu hau.

Egia, gardentasuna

Konparaketak egiterakoan, ez da zaila min ematea. Horregatik, hasieratik nahi dut garbi laga: jokabide eta egintza batzuei buruzko iritzia eta —baliteke— epai zorrotzak agertuko direla hemen. Baina ez pertsoneri buruzkoak. Gizakia pertsonak lez epaitzea gizakiaren ahalmenak gainditzen duen zerbait da.

Batez beste, Ipar Europa aldeko politikoen eta funtzionarioen joerak askoz estuago lotuta daude egiarekin. Eta hori nabari geratzen da norbaiti zerbait oker egina aurkitzen zaionean. Berehala dimitituko du, ezinezko zaiolako bere herriaren aurrean gezurretan ari eta bere aulkiari eustea. Bestalde, funtzionarioek ezin dute gorde edo isilpean eduki euren eginak edo jakinak, Behe aldean ohi dugunez. Gardentasunaren beharra herriaren aurrean askoz eragin-korragoa da. Ekonomiaren arloan, haiek ematen dituzten estatistikak eta datuak askoz fidagarriagoak izaten dira, gehienetan.

Horrek ez du esan nahi Iparraldeko agintari eta funtzionarioak Behekoak baino zintzoagoak direla. Herriak praktikatzeko eta erakusten dio etika agintedunari. Aginte-

zaleek, horretan, ez dute egiten burua makurtu besterik herriaren esanera, herria hobeto menperatzeko izango bada ere. Horrek esan nahi du hango herritarrek arazo publikoetako egiaren eta gardentasunaren praktikan askoz arrerago dabiltzala gu baino.

Lantokitik begiraturaz ere, egiari buruzko alde handia ikusten da herrien artean. Europa Mendebaldeko enpresek esango dizutena, esan bezala da. Adibidez, zentesimako prezisioa, zentesimakoa da, eta ez dezimakoa. Salbuespenak beti izaten dira, baina gehienetan —askoz—, esana egia da.

«Gaur bidaliko dugu» esango bada, bertan egunean aterako da. Ez ditut izan tratu gutxi batzuk baino Afrikako herriekin. Iberoamerikakoekin asko. Hango herri adiskideetan, «gaur» ez da bukatzen iluntzean; eta «datorren astean» ez duzu jakingo, sarritan, zein hilabetekoa izango den.

Hauek denak zein aukera komeni zaigun argitzen dute: egiazaleekin bildu ala ez. Geratzerik ez dago. Goruntz ala beheruntz. «Europa» kontzeptu ekonomikoaren mugak Pirinioetan gorago eraiki ala Gibraltarrera eramán. Euro zehatza eta gardena, ala nolabaiteko *afro* ilun bat.

Ekonomia zientziaren muina: gizakia eta egia

Gatozen zientzia den ekonomiara. Lehenbizi ekonomia orokorrera. Ekonomiagintzan, definizioan bertan, bi arazo daude: helburua eta bitartekoak. Gaur egun ekonomiaren ardatz (helburu ere bai?; ba ote dago helbururik?) merkatua aipatzen da. Merkatua baldin bada helburua, edo merkatua aipatuz beste inolako helbururik baiesten ez bada, merkatu hori fetitxe hutsa da. Ekonomiaren helburua —behin eta berriz esan beharrekoa— gizakia delako. Barru-barrutik elkarzale den gizakia.

Baina ekonomia zientzia ere bada. Eta zientziaren helburua egia da, unean uneko zientziarena. Eta hemen dator merkatua ekonomian. Merkatua zera da: gizaki bakoitzak egin edo eskainiari buruz beste gizakiek egiten duten balorazio errealararen argibidea. Elkartasunak eraginda asmatzen ditugun banatze guztiek ez dute ezkutatu behar bakoitzaren eginek lortzen duten balorazioa bere herrikideengan-

dik. Hori merkatuak ematen du. Merkatua ekonomiazko egiaren mezulari da. Eta disparate hutsa da merkatuak erakusten dituenak ezkututzen eta gaitzesten jardutea. Eta joesa oker hori ere askoz nabariago da Behe aldean, Goi aldean baino. Euroaren egiaruntz arrazoizko bultzakada.

Ekonomiaren praktika orokorra

Ekonomian ematen diren jokaera orokorrak, adibide batez aztertuko ditugu. Ezaguna da esaera hau: «Arrain bat eman eta egun bateko gosea kendu; arrantzan erakutsi eta bizi guztiko gosea kendu». Adibide erakusle hau erabiliz zera esango dut: Behe aldeko herri arrantzaleetan banatzaileak nabarmentzen direla, eta Goikoetan egileak.

Gu banatzaileen inflazio nabariak jota gaude. Politiko, sindikalista, predikadore oro jakintsu da banatzen; tekniko, bihotz handi. Hor dator eguneko arraina merkatura. Zeinek baino zeinek ozenago esango dizute zelan banatu arrain hori. Gaixoek, ezinduek, haurrek, zaharrek, langabeek zer behar duten eta eman behar zaien. Baina zera da jakin beharrekoa, denontzat: baldin herrikoen estimazioaren arabera amurra bakoitzak bi aingira beste balio baidu, bi amurraekin datorrenak lau bider gehiago dakarrela merkatura aingira batekin datorrenak baino. Baina, zoritxarrez, ez da azalduko predikadore banatzailearik gazte eta helduei honelako zerbait esango diena: «Erne arrantzan. Egin amugintzan. Jardun kainaberak ekartzen. Aztertu arrain karnataren arloa. Aukeratu erreka bazter egokiak arrantzarako. Saiatu eskolan, edo amugintzan ikasten, edo arrainen ohiturak, joerak eta orduak jasotzen. Gai denak taldeak eratzeko, bai amugintzan, bai arrantzan, eta abar, ekin diezaiola bere enpresa lanari, lanpostugintzari, bere ahalmenik galdu gabe». Eta abar.

Horrelakorik inor gutxik predikatzen du gure Behe aldean. Eta horrela, banatzaileen predikadore gehienek eskalegintzan dihardute, alfergintzan ez direnean ari. Zein gutxi diren erantzulegintzan, egilegintzan, lanpostugintzan saiatzen direnen alde egiten, hitzez eta egitez, gizakiak benetan jaso eta osatuz. Gizakia da ekonomiaren helburua, bere muinean elkarzale dena. Elkartasuna zerbait sakona

eta ederra da gizakiarengan. Baina elkartasuna ezin daiteke gezurrean ezarri. Eta sarri aipatzen dira gezurrezko elkartasunak, egia askoren ezkutuan, edo gezur askoren gainean ezarriak. Elkartasunaren kontrakoak. Arazo publikoetan gezurra korrupzioa da. Korrupzioa gezurra da. Horregatik euroak gure alde egingo du, bizitza sozialean giro egiazaleagora eta elkartuagora garamatzalako.

Enpresa

Gatozen enpresa soilera, eskaintzan dagien organo edo zelula ekonomikora. Zer da eskaintza? Hiru alderditan dago eskaintzak:

- Ondasun eta zerbitzuak asma-sortzen.
- Ondasun eta zerbitzuen produkzioaren eraketak sortzen eta burutzen.
- Ondasun eta zerbitzuen guraria ezagut-sorrarazten.

Hiruren barrenean dago sorketa. Non predikatzen da gure Behe aldean ondasun eta zerbitzu berriak asmatzen saiatu behar dugula, asmatuen egitea berrasmatzen, asmatuak ezagutarazten eta gura sorrarazten? Gure politikorik gehienak teklari dira. Interesen tekla jo, inbertsioarena, zergena, zorrena jo eta jo, eta dena konpondu. Euroaren eremuan ez dute gehiago horrela teklari jotzerik izango. Saiatzearen garaian sartzen gara. Egiazko jardunean, egiaren European.

Europako Ipar, Erdi eta Hego aldeak

Suediarra banintz, ni ere Beheko nazioen zintzotasunaren beldur izango nintzateke, gezur eta joko zikinaren arriskua jasan behararen arduran. Baina hegoaldeko euskalduna izanik, baietz betea ematen diot euroari. Ez euroaren eragin onuragarriak bultzata bakarrik, ez. Batez ere, euroaren atzean, alboan, goian, oinarrian diharduten jokoak gure jokoak garbiaraziko dituzten itxaropenean, urteen joan-etorrian. Eta gure kale eta enparantzak ere bai.

Euskal ipartarrei buruz, zera: gero eta antzekoago, elkartuago izan gaitezen egingo duela euroak, Behekoek irabaziz eta Iparrekoek ez galduz. Hori uste dut. Gu afro-

runtz geratze-joatea, kolpe negargarria izango litzateke Euskadi osoaren elkartasunarentzat.

Euroaren eragin behin-behinekoak

Euroa dela-eta, bidegurutze bakoitzean kantuak eta negarrak entzungo dira. Bizitzearen arazoak. Baina goruntz doan bidean gabiltzanez, alaitzeko arrazoi sakonak ditugu. Euroak egia eta argia dakarkigu. Euroaren egiak askatu, indartu eta batu egingo gaitu. Euroaren hotsa musika da. Poztu gaitezen! ♪

Iñazio Irizar

Euroa eta enpresa industrialak

Real Casa de Moneda. Oñate. Octubre. 1875. C VII.

Horrela dio, alde bakoitzean, Bigarren Karlistadan On Karlos VII erregegaiaren Errege Moneta Etxeak, 1874-75 urteetan, Oñatin izan zuen txanpon-etxean egindako zilarrezko piezak.

Jakina denez, Euskadin izan dugun Moneta Etxe bakanak ez zuen asko iraun. Eta ia beti gertatu den bezala, ez borondate faltagatik, indarraren eraginez baizik. Armada liberalak azkar asko desegin baitzuen makineria guztia, 1876ko martxoaren 3an Oñati menpean hartu zuenean. Nafarroako Antso IV erregearen garaian, XI. mendean hain zuzen, eta ondorengo hainbat belaunalditan, istorio paretsuak aurkituko ditugu.

Iraganeko malenkoniak utzita, bizpahiru urtetik hona izugarritzko aztergaia bihurtu zaigu monetarena, euroaren jaiotza dela eta. Bruselak aspalditik dauka Ecu deritzan moneta, baina bere operazioetarako soilik, estatu bakoitzeko monetez gain, hain zuzen, eta ez ordezko. Orain oster,

euro ospetsu hau ordezeko datorkigu, eta hor sortu dira kalamatrikak.

Artikuluak, liburuak, tesiak, tesinak, hitzaldiak, mintzaldiak, zer ez. Ikerlariak, irakasleek, politikariek, finantzariak, enpresariak, nork ez. Mila iritzi, denak interesgarriak, denak ukitutxo desberdinekin. Euskadin, Espainian, Frantzian, Alemanian, Erresuma Batuan, non ez. Bruselako *Le Journal Officiel*, edo *The Economist*, harantzago *The Wall Street Journal*, gaiak eman du, bai, zeresana.

Ba al dago ezer gehitzekorik, oraindik?

Atrebentzia handiegia ez bada, kaletar arruntaren ikuspuntu pare bat azaltzen saiatuko naiz, eta ondoren, ene iritziz euskal enpresa industrialen etorkizunean izan dezakeen eraginaz arituko natzaizue.

Kaletar bezala, aisialdia soilik kontuan hartuz, izugarriko abantailak ikusten dizkiot euroari. Adibide bat jartzearren, duela gutxi Parisera joanak gara emaztea eta biok, opor motz batzuk profitatuz. Eta noski, pezetak gehi liberak eraman genituen, Visaz gain. Banketxeak legezko komisioa kobratu zigun, noski, eta itzuleran berdin paperezko biletekin, txanponak ez baitituzte hartzen. Beraz, denbora, komisioak, eta ailegatuko edo faltako zaizun betiko zalantza.

Garai batean, ez bakarrik moneta aldaketa, baizik eta baimena, pasaporteak, kontrola mugan, deskuidatuz gero *txapeoa*, eta abar ezeroso bat jasan behar izaten genuen. Guztiz agerikoa da, beraz, bizitza kalitate aldetik irabazi egin dugula, European zehar mugitu ahal izateko batere baliore erantsirik ez zeuzkaten ordu eta kudeaketa ugari alboratuz.

Badago hor, egon, beste abantaila subliminal bat: kontrolarena. Edo beste era batera esanda, norbanakoaren libertatearena. Estatu guztiz ahaldunak gu kontrolatzeko miloi aunitz xahutzen zituen oraino, kontrolatzaileak, hauen arduradunak, arduradunen arduradunak, eta abarrek, ondo ordainduak zeudelako gure zergen kontura. Eta kontrolaz ari naizenean, ez daukat buruan poliziala soilik, ezin baikenuen diru kopuru jakina baino gehiago aldatu, baimenik gabe.

Zorionez, laster ez dituzte estatu kontrolatzaile garestiok gure mugimenduen inolako berri polizial zein finantzierorik izango.

Baina kaletar hego-euskaldun bezala, badago beste eragin sinboliko garrantzitsu bat. Gure heziketa garaian patrikan generamatzan txanponek zera zioten: «*Francisco Franco. Caudillo de España por la gracia de Dios*». Ondoren, hark utzitako Juan Carlos I erregea jaso genuen ordainetan, honek ere batere graziaz egin ez arren.

Egia da euroak ere alde batean estatu bakoitzeko ezaugarria izango duela, eta hegoaldean Borboiarekin jarraituko dugula, baina hori beste kontu bat da, Mauleko euroak Aguraingo dendan balio berbera izango baitu. Eta norberak aukeratu ahal izango du ezaugarri hori, sarri askotan bederen.

Kaletar euskaldunok baditugu gaur egun bertze mila buruhauste, kultura anglosaxoniarra (eta produktu asiati-koa) dabilelako merkatuan barrena nagusi ikus-entzunezko, Internet, eta abarretako esparruetan. Nahiko lan izango dugu, munduaren globalizazio honetan, dena auzo bihurtuko ote zaigun garai honetan, Espainiako eta Frantziako botere absolutu-nahi horietatik aldentuz beste berdintasun maila batean ez sartzeko.

Baina beno, estatu europar klasikoetako ezaugarri tin-koenak, hala nola ejerzitoa, polizia, soldaduska, mugak, moneta, atzerri politika, eta beste maila batean hizkuntza, hezkuntza, legedia, prentsa, telebista eta abarrek, aldaketa uniformetzaile/askatzaile prozesu kontraesankorreen darraite.

Euskal enpresa industrialei buruz jarraituko dugu. Eta alor hau aukeratu dut, ekonomiaren beste alor guztiei zor zaien errespetua gordez, nire ustez Euskadiko etorkizunerako giltzarria delako. Dena den, orokorki hartu beharrean, mugatu egingo dugu eremua, hots, Deba Garaiko Bailara-ko enpresa industrial pribatu transformatzaileetara.

Deba Garaian, hogeitahamahiru langiletik gorako 103 enpresa industrial zeuden 1997ko abenduaren 31n. Guztira, 16.570 lanpostu. Hauen arabera sailkatuz gero, 20-49 bitartekoak berrogei industria; 50-99 artekoak 32; 100-249 artekoak,

berriz, hamabost; 250-499 artekoak hamabi; 500-999 bi-tartekoak bi; eta mila lanpostutik gorakoak beste bi.

Industria horiek atzerrian 53 bulego komertzial dituzte, 302 lanposturekin, 31 estatu ezberdinetan barreiaturik. Eta produkzio plantak berriz hamabost, guztira 1.423 langilerekin eta honako lurralde hauetan kokatuta: Argentina (2), Kolonbia (1), Frantzia (3), Holanda (1), Italia (1), Maroko (2), Mexiko (2), Tailandia (1), Txekia (1) eta Txina (1).

Bailarako 103 enpresa industrial horietatik, bederatzitan dago atzerriko kapitala. Hirutan % 100 kanpotarra da, beste batean % 50 baino gehiago, bitan juxtu % 50, eta beste hirutan % 50 baino gutxiago. Lanpostuetara eramaneraz gero atzerritarren kapitalaren jabetza, beraien esku 1.334 lanpostu daudela esan genezake.

Azterketa egitera joanez gero, konpara ditzakegu emaitzak, adibidez, Bilboko ibai ezkerreko enpresa industrialekin? Eta Gasteizko industrialde berriekin, edo Tolosaldearekin? Konparaketak egin ondoren, eta enpresetan dauden faktoreen sailkapenak eginda, enpresa-arlo bakoitzeko, azter daiteke moneta aldaketaren eragina era kuantitatiboan?

Gaur egun Deba Garaiko enpresa industrialen produkzioaren heren bat baino gehiago atzerriko merkatuetara bideratzen da. Badira bi enpresa % 100 kanpora bidaltzen dutenak, eta dexente % 50tik gora. Beraz, atzerriko konpetentziara oso ohituta dauden enpresez dihardugu.

Saltzeko zein erosteko orduan, ahal den neurrian norberak ezartzen du moneta, nahiz eta multinazionalekin, beraien musikaz dantza egin behar. Salbuespenak salbuespen, iragan urteetan enpresetako atzerri moneta bezala dolarra izan da nagusi, % 40 inguruko kuotan. Eta Japoniako yenarekin operazio gutxi batzuk egin arren, esan dezakegu beste % 60 Europako monetetan saldu/erosi dela, honako sailkapen honekin: Frantziako libera, Alemaniako markoa, Portugalgo eskudoa, Italiako lira, Britainia Handiko libra, eta askoz apalago beste moneta batzuk.

Horrek zera esan nahi du, atzerriko kudeaketan % 60 «geure» moneta berrian egingo direla, euroan. Enpresa industrialek ez dutela, beraz, inolako balio erantsi gabeko lanik egin beharko % 60an. Argi eta garbi, ezertarako balio

ez duten lan hauek ekidinez, kostuak murriztuko dituzte hainbat sailetan. Eta laburbilduz:

a) Finantza departamentuetan, arduradunaren kezka ugari alboratuko dira, lan ordu asko aurreratuz. Lan ordu asko, baita ere, diruzaintza eta bankuen eremua daraman enplegatuan, kontabilitateko oharrak dexente jaitsiko direlako, moneta bakarrak kontu bakarra eta tramitaziorik eza dakarrelako. Kontabilitate ohar jaitsieraren bigarren mailako ondorioak dira, baita ere, paper gutxiago erabiltzea, artxibo gutxiago, barne eta kanpoko ikuskaritza lan ordu gutxiago, eta balio erantsi gabeko kate luze bat.

b) Komertzial departamentuetan, enpresaren tamaina ertaina edo handia bada, kontabilitate komertzial enplegatu/departamentu berezia izango dute, 23 kasutan Deba Garaian. Aurreko puntuan esan dugun ia denak balio du honako ere.


Baina garrantzitsuena, kualitatiboki bederen, aurreantzean gure saltzaile eta marketinistek produktuen benetako balioa salduko dutela izango da, moneta hau edo bestearen indarraren menpe egon barik. Madrilgo menpekotasuna daukagu Deba Garaian, han aldatzen baitira gaur egun jarduera monetaristak. Hauek aldatzen dituztenean, gure komenientziak kontuan hartu barik, noski, moneta fluktuazio berrietara egokitu behar dira enpresak, barneko politika komertziala aldatuz.

c) Enpresa industrialen produktua piezak edo makinak dira, nahiz eta beraien zerbitzu enpresa garrantzitsuak ere egon Bailaran. Hiriburu printzipaletan, ordea, enpresa ugari daude produktu bezala dirua dutenak, eta komisioa edo interesa dira beraien ogibidea. Dirua salduz, edo erosiz, edo mailegatuz, oraingo edo etorkizuneko baldintzetan, bizi dira.

Deba Garaiko enpresek produktuak saltzeko kanpoko monetak erosi edo saldu beharrean aurkitzeak, beste enpresa horiei komisioak, interesak eta aseguruak ordaintzea dakartza. Aurrerantzean, salerosketen % 60tan atzerri moneta horiek ez erosteak, gastu dexente ekidingo ditu. Bergarako enpresa batek fresadora pareta jartzen baditu, lehena Aretxabaletako tailer batean, eta bertzea Kaiserslauterngo tailer

batean, laster era eta kostu berdinsuan egingo du saltze operazioa, banketxe zein enpresa finantzieroen bitartekari-tza asko murriztuz, gaurkoagaz alderatuz behinik behin.

Amaitzeko, hemendik hogeitaz urtera, Deba Garaiko gaurko 103 enpresen zerrenda hartuz gero, zelakoa izango da bilakaera? Monetak, euroak, garrantzi gutxi daukela deritzot. Oso bigarren

mailan kokatuko  nuke, enpresa in-

dustrialen etorkizunerako, ezinbestean ondo landu beharreko arloak beste hauek baitira:

- Produktu aldetik, kalitatea, zerbitzua, kostua eta berrikuntzak.

- Eredu aldetik, kanpora begira bezeroa nagusi, eta barrura begira partaidetza soziala, barne bezeroa.

- Antolamendu aldetik, sareak sortu, elkarlana, azpiegiturak.

- Eta orotara, pertsonak. Pertsona heziak, aktiboak, lanerako gogoarekin.

Erraza da esatea; hamaika liburutan daude jasota dotore asko arlo horiei buruzko teoria ugari, baina ez dago zalantzarik gakoa praktikara eramatean dagoela. Lehiakorra izan behar du enpresak, alemanekin, japoniarrekin eta abarrekin diharduelako merkatuan.

Euroaren beste mila ikuspuntu ezberdin, norberaren interesetara murgilduko dira. Britainiarrek ez dute euroa nahi izango, Londongo *City*-k izugarritzko finantza irabaziak lortzen dituelako. Frantsesek, beraien frantses *grandeur* izaera galtzeko zorian dakusatelako. Espainiarrek, berdin samar. Alemaniarrek, markoaren indarraren abantaila galtzen dutelako. Eta abar oso luzea, bakoitzak demagogia gehiago edo gutxiagorekin esanda, baina bere etxea defendatuz.

Eta gu, euskaldun kaletar, edo enpresa industrial, estatu-hiriburu printzipaletako edozein politikatik hain urrun gonik? Gure interesak, lehen edo etorkizunean hobeto? ¶

Antxon Lafont

Ezer gutxi gehiago euroari buruz

Mundu europarreko naturaltasun osoz heldu da euroa. 1998ko maiatzaren lehen egunetan, 3an zehatzago izateko, euroan sartzeko azterketaren inguruko era guztietako gertaeren berri eman ziguten hedabideek. Harrotasunak tentetuta ageri ziren hautagaiak azken argazkian, non guztien arteko enfatikoena kabitu ez zen. Bere bulegora itzuli eta berehala, euroaren klubean sartu zenez bere herrialdea ezin hobeto zihoala *urbi et orbi* berriro aldarrikatu beste erremediorik ez zuen izan. Total, hamabostetatik guztiek gainditu zuten azterketa, batek salbu. Horiatarik hiruk ez zuten oraingoz klubean sartzetik nahi. Azterketa hori gainditzea, azken batean, batzuentzat Osakidetzako azterketa gainditzea izan zena baino errazagoa izan zen. Eta estatu espainiarrean dena txokolatezko dominekin amaitzen denez, euroaren guraso omen diren Santer eta Werner-i Principe de Asturias saria —azkenean 60 urtetik gorako ia guztiei egokitzen zaien Nobel sari espainiar eskuzabala— eman zitzairen. Haurraren aiton-amona eta birraiton-birramona defuntuak aipatzea ahaztu zitzairen, Europa ganbio gune librea baino gehiago bilakatzeko mekanismoen beharraren benetako aurreikusleak.

Euroan sartzeko azterketan moldatu egin ziren irizpideak. Liderrek, Frantziak eta Alemaniak, apenas betetzen zituzten baldintza guztiak, epaimahaiari gomendioak emanez eta presio eginez. Mirari italiarrak behartua zirudien. Balentria zirudiena —*euroteam*-ean sartzeara— lardas-keria bihurtu zen. Sartu nahi izan ez zutenen artean, Erresuma Batuak eraginkortasun handiz lagundu zuen euroaren oinarriak ezartzen. Izan ere, oso gai zehatzetan esku hartu zuen, hala nola euroaren justizia arautegian, interes tasen kotazio sistemetan, eta baita burtsa merkatuen ordutegietan ere. Orain, egoitza han duten multinazionalen presiopean sartu nahi bide du euroan Erresuma Batuak, multinazional horientzat euren fakturazioaren zati nimi-

ño bat baino ez baita merkatu estatalaren mugen barrukoa. Egoera honen aurrean, euroari buruzko sentsibilizazio kanpaina iragarri du exchequer-aren kantzelariak.

Europako Batasuneko estatuburu edo gobernuburuaren kontseiluaren ondoren, Europako herritar guztiak entzun nahi zutena —egia ez izanda ere— esan zuten politikariek.

«Langabeziaren arazoa konpontzeko atea zabaltzen digu euroak», esan zuen Ekonomia ministro batek. Litekeena, baina era horretan baieztatzea ez-ohiko arinkeria da, zenbait faktore ministroaren esaldiaren norabidean badoaz ere.

Moneta egonkortasunak —berezkoa, EBean moneta bat bakarra izango baita— eta Maastricht-ek ezarritako inflazio baxuak konfiantza emango diote aurretari. Gainera, defizit publikoaren murrizte derrigorrezkoa behartzeko ahalegina egingo da eta, ondorioz, Estatuaren gastuen finantzaketa beharrak txikitu egingo dira eta kreditu pribatuen aukerak liberatu. Onenean, enpresek inbertsioak handituko dituzte funtsezko arazoari aurre egiteko: kalitatearen lehia.

Jakina da moneta bakarrak ganbio arriskuak eta gastuak ezabatuko dituela. Moneta bakarrak ekarriko duen gardentasunagatik prezioak behetik homogeneizatuko dira. Prezioen murrizte honek muga bat izango du, baina enpresek zerbitzuaren eta produktuaren kalitatearen gainean borrokatu beharko dute. EBeko 350 milioi kontsumitzaileko merkatuari aurre egiteko, enpresak elkartzeko eta bat egiteko operazio handitan sartuko dira. Orduan, lehiakortasunean indarrak handituz, lehiakideen aurka borrokatzeko moduan izango dira. Inbertsioa hazi egingo da eta inbertsioarekin batera enplegua, baldin eta produktibitatearen gehitzeak posible kapitalistaren eta hobekuntza sozialaren arteko oreka egokia ahalbidetzen badu. Dena den, mundializazioa ondorio bera eragiten ari da bizkortasunez.

Moneta bakarraren beste ondorio bat beste parametro batzuen berezko desordena izango da. Inbertsioak nola edo hala lortzeko ahaleginean, zergen eta gastu sozialen inguruko gerra piztuko da EBeko estatuen artean, EBak kudeaketa publikorako egitura propioa ez duen bitartean kontrolaezina izango den gerra.

Merkataritza arloan Internet-ek funtsezko papera jokatuko du merkataritza elektronikoa ezin konta ahala aukera zabalduz. Moneta bakarraren eta Internet-en arteko konbinazioa benetako bonba izango da merkataritza trukeetan. Prezioan gardentasunak eta homogeneousazioak mundializazioa indartuko du. Merkataritza elektronikoa-ren merkatua 2002. urtean 320 mila milioi dolarreko zifra —horietarik 60 detailearen merkataritzaren alorrean— helduko dela aurreikusten da. Ez dirudi jarduera honek lanpostu gaitu asko sortuko dituenik.

Ekonomiaren kontrol funtzioa eta Batasunaz kanpo-koekiko Europako moneta politikan esku hartzeko ahalmena Europako Banku Zentralari (EBZ) eman zaizkio, zeinak ikasle txarrak zigortzeko ahalmena izango duen. Herrialde zigortuak isun handiak jasan beharko ditu eta oinarritzko irizpideen normalizaziora eramango duten neurriak hartu beharko ditu: inflazioa, zor publikoa, defizit publikoa. Jakina da honek zer esan nahi izan duen iraganean: gastu soziala, inbertsio gutxiago eta langabezia gehiago.

Sinestezina dirudi EBZak hain neurrizgaineko esku-menak izatea. FEDek, ahalmen ikaragarria izan arren, kon-tuak eman behar dizkie Estatu Batuetako lehendakariari eta Kongresuari. EBZ erabat independentea da. Europako Batasunak ezingo du onartu erakunde zibil bat botere poli-tikoaren gainetik egotea, eta dagoeneko esan da estatu fe-deralaren egiturarik gabe euroak ezingo duela bizirik iraun. R. Mundell-ek moneta gune ezin hobeari buruzko bere teoriaran adierazitakoaren arabera, moneta batasuna eraginkorra da baldin eta, batasuna osatzen duten ekono-mien konbergentzia indartsuari esker, erregioetako bateko nahasmendu ekonomikorako arriskua murriztu egiten ba-da. Beste irizpide batzuk, Mundellen arabera, bere defini-zioari dagozkio, hala nola ganbio tipoen ondorioak ordez-ka ditzaketanak. Oraingoz, eskulanaren mugikortasun handira eta soldaten eta lan merkatuaren malgutasunera mugatzen dira irizpide horiek. Aurrekontu europarraren babesean herrialdeen arteko finantza transferentziak gehi genitzake, baina aurrekontu europarrak ez da oraingoz.

Euroa, aitortu nahi ez bada ere, Europa politikoranzko etapa ezinbestekoa da, antolatu egin beharko den erantzukizun kolektiboa sortzen baitu.

Hurbilagoko arazoetara itzulita, euroaren etorrerak zuzenean eragingo dio gure bizimoduari, enpresakoari nahiz kalekoari. Enpresen funtzionamendu kontableak aldaketa sakon eta garestiak jasango ditu. Kontabilitatea eurotan egitea derrigorrezkoa izango da 2001-12-31tik; azken epea da. 1999-1-1etik kontuak eurotan aurkezteko aukera izango da.

1998ko otsaileko inkesta batek dioenez, eurorako igerotzea ondo prestatua dute EBeko herrialde batzuetan. Enpresak, 1999ko urtarrilaren lehenetik, gai izango dira honako operazioak eurotan egiteko:

- proposamen komertzialak: inkestatuen % 50.
- bezeroekin operazioak: inkestatuen % 55.
- hornitzaileekin operazioak: inkestatuetan % 60.
- kontabilitate orokorra: inkestatuen % 35.

Komeni da gogoratzea, gainera, burtsa transakzioak eurotan egingo direla 1999ko urtarrilaren 4tik.

Maastrichtek EBeko estatuei kudeaketa publikoan zorroztasun handiagoa eskatu dien bezala, euroak emaitzen hobekuntza exigituko die enpresei. Lastima da eurorako egokitzeari ikuspuntu teknikitik egitea aurre, defentsa jarreran alegia, aparteko aukera hau jarrera erasokorra eragingo lukeen mugarri enpresarialtzat hartu beharrean.

Beste osagai batzuk ere hartzen dute parte, zuzenean nahiz zeharka, euroaren segizioan. Enpresek, izan ere, aldaketa asko barneratu behar dituzte aldi berean: 35 ordu saihestezinak, 2000. urtera iragaiteak ekarriko dituen arazo tekniko-informatikoak, produktuen kalitate plangintza jada abiada bizian, mundializazioa, estatuen arteko lehia zerga politikan, prezioen homogeneizazioa behetik... hauek baino ez aipatzearren. Beti bezala, egokitze gaitasun azkarrena dutenek iraungo dute bizirik.

Euskal Herrian, euroaren iristeak ondorio ia berehala-koak izango ditu zuzenean alderatu ahal izango baitira, kilometro gutxiko distantzian, prezioak eta soldadak, kotizazio sozialak eta zergak Iparraldean eta Hegoaldean.

Gure enpresek bezeroak informatu beharko dituzte, batez ere gure baliabideen % 30etik % 35era hartzen duen banaketa handian. Alderdi politikoak ere hautesleak xehe-tasun handienarekin informatzera behartuta egongo dira. Zentzu honetan, makroekonomiari buruzko informazioak arrunt bihurtuko dira. Gure Barne Produktu Gordina Estatuarena edo estatu askorena baino gehiago hazi dela esatea ez da aski izango. Lortuko al da informazio horren orde-z hazkunde horren ondorioei buruzko ezagutza izatea —hala nola, langabeziaren, soldaten eta inbertsio publiko nahiz pribatuen gora-beherak—? Politikari batek ez luke esango «gure BPG % 5,6 hazi da». Zera iragartzeko eskatuko litzaioke: «Hazkunde horrekin halako eta halako hobekuntza lortu ahal izango dugu», lehen aipatutako parame-troetan.

Muga pasatzen dugunean karteran euroak edukitzeak eroslearen jokaera aldatuko du. Bisitan joandako lekuko moneta kromotzat edo *monopoly*-ko biletetzat hartu izan da. Gasturako izpiritu kontrol gutxikoarekin egin izan da gutuzi erosketa. Le-



hen bilete-kromoe-kin joaten ginen Iparraldera, erosketetara; orain, aldiz, etxeko moneta berarekin joango gara, enkarguak egitera. Nahiz eta bezeroa moneta bakarrera bizkor ohitu, komenigarria litzateke joan den ekainaren 13an Ordiziako Mugaz-gaindiko Azokan egindako saioaren modukoak errepika-tzea. Ordiziako esperientzian, bezeroek elikagaiak eros zit-zateketen aurrez trukaturako fikziozko euroekin. Hiru mi-lioi euro gastatu ziren.

Berehala agertuko da lehia eta operadoreek arautze tresnak eskatuko dituzte. Horrela, esate baterako, Hirigin-tza Komertzialerako Mugazgaindiko Batzordeak sortuko dira, azalera handiko guneen ezartzearen egokitasunaz kontsultak egiteko. Mugazgaindiko beste erakunde batzuk ere sortuko dira. Auzi komertzialez aritzeko Mugazgandi-ko Arbitraje Epaimahaia eratu du dagoeneko Iparraldeko Merkataritza Ganbarak, Hegoaldeko Ganbarekin eta Kon-tsumitzailearentzako Udal Informazio Bulegoekin batera.

Nabarmentzekoa da, baita ere, erreal, hogerlekoa eta pezetaren gisako sinboloak desagertarazi eta numismatika bildumetara igaroaraziko dituela euroak. Horrela, inperio ohien identifikazio zati bat desagertuko da. Euskal Herrian fenomeno hau oso era positiboan hartuko da epe ertainera izango dituen ondorioengatik, hala nola Iparraldea eta Hegoaldea barruan hartuko dituen erregioa (hitzaren esanahi europarrean) sortzeko beharra.

Zalantzarik gabe, euroak gure ohiturak aldatuko ditu epe labur eta ertainean, eta gure bizimodua ere bai, egokitzeak luze jotzen badigu. ¶

[Erredakzioan euskaratua]

Carmelo Urdangarin

Ekonomi eta Moneta Batasuna, eta euskal industria

1991ko abenduaren 10 eta 11 egunetan Maastricht-eko goi-bileran ezarritako bateratasun irizpideen betetzeak Ekonomi eta Moneta Batasunaren (EMB) hirugarren etapen, beste hamar herrialderekin batera, hasierako fasetik sartzeko aukera eman dio Espainiari. Pentsatzekoa da gutxienez beste bi —Erresuma Batua eta Danimarka— aurrerago sartuko direla, Europako Batasunaren Itunaren protokolo erantsietan eskubide hori gorde baitute.

Erabaki honen ondorioak eragin handikoak dira ekonomian eta, beraz, hasteko beharrezkoa da eztabaidaren eremua mugatzea, euskal industriara zedarriz. Derrigorezko dirudi, hala ere, gutxienez lau gogoeta orokor egitea aurretik.

Batetik, ekonomi zientziak ez ditu aski tresna EMBaren ezartzeak zein ondorio ekarriko dituen fidagarritasun-

nez aurreikusteko, are gutxiago analisia herrialde bakarre-
ra mugatzen baldin bada. Edozein aurreikuste are zalan-
tzagarriagoa da, Euskal Autonomi Erkidegoaren neurriko
lurralde txiki bati baldin badagokio. Dena den, iritzi nagu-
siak dioenez, berdintasunezko egoera batean Batasuneko
herrialdeentzako onura orokorrak ekonomikoki handiagoak
izango dira eragozpenak baino.

Bigarrenik, EMBak ez ditu bermatzen, berez, ez haz-
kunde ekonomiko handiagoa eta ez ongizate kolektibo
hobea (arlotu publiko zein pribatuaren egokitze gaitasuna-
ren menpe dago hori funtsean), eta are gutxiago lurraldeen
arteko banaketa orekatua. Areago, ardatz frantziar-alema-
naren inguruko aberastasun eta lanpostu kontzentrazio
handiagoaren beldur dira aztertzaile ugari.

Hirugarren gogoetak aparteko garrantzia du: Estatuak
ekonomi politikak ezartzeko subiranotasun osoa (edo ia
osoa) galduko dutenez, lehiatzeko gaitasun ezari soldaten
eta Ongizate Estatuaren degradazioarekin erantzutera be-
hartu ditzake egoera berri honek, horrek dakartzan ondorio
sozial guztiakin. Egokitze iraunkorrerako tresna soldaten eta
Ongizate Estatuaren degradazioa izango litzateke.

Azkenik, EMBen sartu beste alternatiba itxuraz bide-
ragarririk ez dago, edozein alternatibak eragozpen larriak
izango lituzkeela aurreikusten baita, bereziki historian ze-
har autokontrolerako ohiturarik izan ez duen ekonomia
espainiarrarentzat. Gainera, Europako Batasunean sartzea-
ren gure esperientzia, konparazioan, positiboa izan da eta,
epe laburrean behintzat, pentsatzekoa da EMBen sartzeak
baino ondorio negatiboagoak izango lituzkeela beste bide
bat hartzeak.

Gogoratu behar da Espainia eta Portugal Europako El-
karte Ekonomikoko estatu kide 1986an egin zirela (handik
gutxira, 1990eko uztailaren 1ean, Europako Merkatu Baka-
rrenaren sortzea abiatu zen), 30 urtetako funtzionamendua-
ren praktika guztiak onartuz (ondare komunitarioa) eta es-
kumen ugari galduz, arantzel politika eta kanpo politika,
besteak beste.

Hamarkada luze honetan lanpostu galera handia gerta-
tu da, batez ere industrian, eta langabetu kopurua bortizki

hazi da. Ez da ahaztekoa Europako Komunitatearen Barne Produktu Gordinaren (BPG) parte hartzea % 6,22tik % 5,9ra jaitsi dela Espainian, baina aurrera egin da Komunitateko hamabi herrialdeen batez bestekoaren erlazioan (% 80tik % 90 ingurura). Aldi berean, produktu/merkatu egoera berrira egokitze garrantzitsua egin dute euskal enpresa industrialek, batez ere 1990. urtetik aurrera —nahiz eta funtsezko birmoldaketa bat egiteke dagoen—, kanpoarekin trukeak ugarituz —tasa txikiegiarekin jarraitzen dugun arren—, internazionalizazioan pixkanaka aurrera egingez.

Duela hamar urteko ahultasun berberak ditu euskal industriak, baina intentsitate txikiagoarekin. Gainera, enpresa multzo txiki baina garrantzitsu bat egokitu da tesuinguru berrira.

Ahultasunen artean honako hauek aipatu behar dira:

- Enpresen tamaina txikia.
- Kudeaketaren konparazio defizitak.
- Produktuen bilakaera eskasa, etorkizunean eskari handia izango duten produktuen presentzia nahikoa ez delarik.
- Gure enpresen internazionalizazio txikia, inportazioak gure pareko herri aurreratuen mailara heltzen ez direlarik.
- Ez dago nahikoa zerbitzu.
- Hezkuntz sistemaren egokitze eskasa enpresa eskariari.
- Azpiegituren egoera orokorra.
- Adostasun sozial eta politikorik eza.

Egoera honetan abiatuko da eu-



roa, gaiari buruzko literatura ugariak gogorazten digunez erronkak eta aukerak ekarriko dituena.

Erronken artean nabarmendu beharrekoa da, batik bat, debaluazioen desagertzea. Euroa ezartzearen koste ekonomikoa (informatika, administrazio sistemak eta abar) garrantzitsua izatera hel daiteke, baina gertakari bakana da. Laguntza publikoen galera posibleak ere ondorio negatiboak izan ditzake zenbait jardueratan.

Baina moneta ebaluatzeko ahalmenaren galtzea izan daiteke garrantzitsuena etorkizunari begira, gure enpresek galdutako lehiakortasuna berreskuratzeko tradizionalki, behin eta berriro, erabili izan den ekonomi politikarako tresna galdu egingo baita. Egoera berria, dirudienez ordeztuko sistematik ezarriko ez denez, erronka handia izango da gure enpresariatzat, munduko onenekin baldintza berberetan lehiatu beharra izango dute eta.

Abantailen artean aipatu beharrekoak dira ziurgabetasunaren gutxitzea orokorrean —truke ziurgabetasunaren gutxitzea bereziki—, inflazio moderatu eta egonkorra, eta diruaren prezio merkeagoa. Merkatuek gardentasun handiagoa izango dute gainera, eta horrek erraztu egingo du erabakien hartzea, transakzio kostuak gutxitu egingo ditu eta nazioarteko harremanen agirien gora-beherak erraztu egingo ditu.

EMBa funtsezko aldaketak ekarri ditu gure enpresen testuinguruan eta lanerako baldintzetan. Horrek, aurrena, egokitze bat eskatuko die, egokitze kulturala eta administratiboa batik bat, eta ondoren, kudeaketa era berriak. Horregatik, harrigarria da enpresa taldeak eta enpresa handiak baino ez aritzea euroaren ezartzeak enpresen estrategian eta funtzionamenduan izango dituen ondorioei buruz hausnarketa egiten. ¶

[Erredakzioan euskaratua]

Mikel Zurbano

Ekonomi eremuak birpentsatzen: euroa aro globalan

Europako Ekonomi eta Moneta Batasunaren (EMB) sorrera puntako gertaera politiko, sozial eta ekonomikoa da

munduko egungo panoraman. Mende honen amaiera bi aroen arteko zubialdi gisa aurkezten zaigu, Europako integrazioa batetik besterakoan giltzarri izanik. Europako integrazioa eskuarki eta EMB partikularri, mundu mailako prozesu ekonomiko eta politikoen emaitza dinamikoa da eta, halaberean, EMBak eta euroaren sorrerak prozesu horiek bizkortu eta baldintzatuko dituzte halabeharrez.

Honezkero agerian da euroak dakartzan berrikuntzen eremu zabalean non kokatuko dudan burutapen xume hau: nazioarteko eszenatokian alegia. Hasteko nazioarteko ekonomi integrazioak eta bere testuingurua azaltzen dira, euroaren Europa kontestu horretan kokatuz EMBaren ekarpenaz jarduteko gero, subiranotasun ekonomikoaren auziaren inguruko hausnarketarekin amaitzeko.

Ekonomi integrazioen eszenatokiak

Kapitalismoaren sorrera eta garapenarekin nazio ekonomiak bihurtu ziren harreman ekonomikoetarako oinarritzko eremuak. Horien instituzionalizazioak estatu-nazioaren itxura hartu zuen. Harrezkero harreman ekonomiko kapitalistek nazio ekonomiaren eremu estu hori gainditzeko joera iraunkorra gero eta nabarmenago erakutsi dute. Hots, ekonomia kapitalistaren berezko joera nazioarteratze prozesu bizkorra da. Dinamika estruktural honek agerian utzi zuen hasieratik oinarritzko eremu nazionala eta nazioz gaindik indarren arteko kontraesana, zeina denboraren poderioz areagotu den. Nazioartean garaian garaiko ekonomi ordenuren bat eraiki behar izan da kontraesan hori leundu eta egonkortasun ekonomikoa zein politikoa bermatzeko.

Garapen eredu fordista eta Bretton Woods-eko ekonomi ordenuaren krisialdiak ageriagoan utzi zuen aipatutako kontraesana, izan ere harreman ekonomikoek nazioz gaindik norabidea indartzen zuten bitartean ordura arte eraginkorrak izandako nazioarteko instituzio eta hitzarmenak (IMF, GATT...) krisiaroan murgildu ziren. Halaber, 1970eko hamarkadara arte EEBBetako ekonomiak eta zehazki dolarrak izandako hegemonia ahuldu eta itxuraldatu egin da geroztik, EEBBek ezin izan baitute gerraosteko ekonomi nagusitasuna bere horretan mantendu, batik bat Alemania

eta Japoniako lehia indartsuagatik baina baita bere nazioarteko posizioaren kontestuan eginiko gehiegikeriengatik ere.

Beraz, azken bi hamarkadetan munduko ekonomian hegemonia bakarretik lidergo hirukoitzerako trantsizioa ezagutu dugu. Prozesu honek *triadizazio* izena du eta mundu mailako ekonomi harremanak hiru gune nagusien inguruan egituratu eta oinarritzen direla eman nahi du aditzera (Petrella, R. [1997: 77]). Hiru ekonomi gune horiek Estatu Batuak, Japonia eta Alemaniaren lidergoan eraikitzen ari dira, gune bakoitzaren eremuan ekonomi hartuemanen sare propioa osatuz eta talde transnazionalentzat berezko barrutiak ziurtatuz. Egoera berri honek nazioartean herrialdeen arteko oreka berriztatua islatzen du eta lider bakarraren testuinguruan sortutako nazioarteko erakundeen zilegitasuna eta funtzioak zalantzan jartzen ditu, hala nola estatu-nazioen ekonomi subiranotasuna. Munduko Barne Produktu handiena duten zortzi herrialdeen (G-8) taldea abian jarri izana da horren erakuslea.

Europako Batasuna: integrazio prozesuen buruan

Nazioarteko *triadizazio* prozesu honen itzalpean gune bakoitzeko integrazio prozesuak sortu edo bizkortu dira. Inguruko herrialdearteko merkataritza harremanak abiapuntutzat hartuz integrazio eremu desberdinen bilakaera eman da. Ikuspegi geoekonomikotik prozesu hauen artean aipagarriak dira Asiako hegoekialdekoa, Hegoamerikakoak (Mercosur garrantzitsuena izanik), Iparramerikakoa (NAFTA) eta Europakoak (EFTA eta Europako Batasuna). Haue-tako gehienetan integrazioaren lehen urratsa jorratu da: integrazioko herrialdeen arteko mugasarien ezabapena eta, beraz, integrazio barrutiko ondasun eta zerbitzuen zirkulazio librea. Baina merkataritza lehentasun honez haratago ez da urrats gehigarri eman, ezta aurreikusi ere. Egia da badela gune bakoitzeko txanpon nagusiaren inguruan moneta eremua ia osatua, yenak, dolarrak eta marko/euroak eragin eremu zabalagoak itxuratuz. Hala ere, moneten eragin eremuak dibisa hauek duten nagusigoa dela medio tajutzen dira eta ez integraziorako borondate esplizituagatik.

Europako Batasuneko (EB) prozesua da salbuespena, egindako ibilbide luze bezain gora-beheratsuak merkatal integrazio soila gainditzea ekarri baitu. Oro har, Europako batasun prozesua berez mundu mailako lankidetzaz eta arauketaren gabeziari, hots, Estatu partaideen subiranotasun mugatuei, eskualdean emandako behin-behineko erantzuna da.

Neoliberalismoaren bultzadarekin Europako Batasuna laurogeiko hamarkadatik merkatuaren gidaritzapeko nazioarteratze prozesu autonomo gisa itxuratu da eta ez soilik merkataritza arloan, baita kapitalen merkatuen, teknologiaren eta produkzio sistemaren arloetan ere. Hortik aurrera, merkatu bakarra osatzea eta ekonomi batasuna eskuratzea ezinbestekoak bihurtu ziren Europako integrazio prozesuan.

Merkatu Bakarra eratu zen 1992an Akta Bakarra aplikatuz eta ondasun eta zerbitzuen zirkulazio libreaz haratago kapital eta pertsonen zirkulazio librea ere indarrean ipini zen. Kontuan hartu behar dugu ordurako EB aduana batasuna zela jadanik, hots, partaideak ez ziren herrialdeekiko mugasari bateratu eta bakarra aplikatzen zietela EBe-ko herriek eta, beraz, merkataritza politika armonizatua indarrean zegoela EBean.

Ekonomi batasunerako ildo estrategikoak bistan zeuden hamarkada honen hasieran: merkatuaren gidaritza eta konbergentziarako irizpide monetarioak. Abian zegoen merkatu bakarrak diru bakarra eskatzen zuen logika horren ondorioz eta, hein berean, eskuharmen publiko minimoa. Honela, txanpon bakarra ekonomi batasunaren giltzarri bihurtu da eta horretara iristeko aldagai monetario eta publikoen irizpideek Estatuetakoko ekonomi eskuharmenerako ahalmena biziki baldintzatu dute. Trantsizioaldi honetan Estatu kideen moneta politikak hurbildu egin dira eta gidaritza lanetan diharduten Banku Zentralak botere politikoarekiko autonomizatu egin dira.

Beraz, *euroa* gure artean izango dugunerako moneta politika bakarra ez da berrikuntza izango, urte batzuetako errealitate irmoa baizik. Ordurako beste politika publiko batzuk ere batasunerako ibilbidea jorratua izango dute,

hala nola Nekazaritza Politika Bateratua, merkataritza politika, industri eta ikerketa, azpiegitura, etab. Aurrekontu politikak ere oso irizpide homogeenak izango ditu, kopuruz BPGarekiko ehuneko hiruko muga zorrotza irizpide gisa betiko mantenduko baita Amsterdamen hitzartutako Egonkortasun Ituna dela eta.

Ekonomi subiranotasunak Europako Batasunean

Egoera berriak hainbat arlotan du eragina baina azterketaren helburuak ekonomi subiranotasunaren arlora mugatzen gaitu. Europako Batasunean euroa indarrean ipintzeak herrialde partaideetako ekonomia *nazionalen* ohiko zutabeak kolokan jartzea ekarriko du eta honekin batera ekonomi zikloan eragiteko erabili ohi diren tresna *nazional* tipikoak ere.

Ekonomia *nazionalaren* funtsezko osagaiei erreparatuz gero lau aipa ditzakegu Kébabdjian (1994) egilearekin batera: moneta, salkari eta zerbitzuen merkatu propioa, faktoreen merkatu *nazionalak* eta arauketa zein instituzionalizazio esparru bereiztua. Aipatua izan denez, ondasun eta zerbitzuen merkatuak zein produkzio faktoreenak (kapitalarena eta lanarena) bateratuak daude EBeko eremuan hamarkada honen hasieratik. EMBarekin txanpon bakarra eta Europako Banku Zentrala (EBZ) sortuko dira. Honela, hamaika Estatu partaideek azken hamarkadan Alemaniako Bundesbank-en agindupean zuten moneta autonomia urria behin betiko galduko dute. Arauketa eta ekonomi politikak, oro har, armonizatze aldera egingo dute gorago aipatu dugun bidetik. EBeko (11) ekonomiak, beraz, soslai *nazional* tipikoa hartuko du EMBarekin. Lan eta giza arloko arautegi bateratuaren gabeziak soilik itxuragabetzen dute ekonomia kontinentaleko izaera *nazionala*.

Honek guztiak ez dakar estatu-nazioaren gainbehera halabarrez, nahiz epe luzean bere habeak eraldatu bide diren. Lehen aipatua izan den gisa, laurogeiko hamarkadatik merkatura zuzendutako eskuhartze publikoko era *pasi-boak* nagusitu dira Europako integrazio eremuan. Aitzitik, merkaturako arauketa komunak ezartzean edota merkaturaren giza eraginak arautzean *positiboan* hartutako erabaki

politikoak eskatzen dituzte eta hauek sarritan nazioz gaindiko eraikuntza instituzionala ekarri ohi dute. Esate baterako, EMBetik arlo soziala baztertzea Europako batasun ekonomikotik estatu-nazioaren lehentasuna mantentzeko saioaren isla da. Lehenik, *positiboan* egindako eraikuntza hori eragozten duelako eta, gainera, giza zilegitasuna naziozgain hedatzea ekiditean Europa mailako berezko nor-tasunaren erakuntza oztopatzen duelako.

Estatu-nazio europarraren zilegitasuna ez da kaltetua irten prozesu honetatik, integrazio prozesuan jokatzeko duen papera behatuz eta integrazioaren ereduko hainbat hastapen eta oinarriei erreparatuz (hala nola subsidiaritatea, nazioz gaindiko baino nazioarteko izaera Europako Batzordeari dagokionean, etab.).

Laburbilduz, *triadizazioak* eta merkatuaren gidaritzapeko estatu-nazioaren berregituraketa prozesuak EBaren barnean ekonomi subiranokidetasunaren eraberrikuntza dakar, mundu mailako aitzindaritza hartuz eta *nazio* bakarreko ekonomi subiranotasun aroaren behin betiko amaiera iragarritz.


Azken finean, EMBarekin Europako eraikuntza prozesua erakunde instituzional berri baten hazia izango da, estatu-nazio klasikoarekin zein orain arte ezagutu ditugun estatuen batura soilarekin zerikusirik izango ez duena.

Nazioarteko ordenua, eremuak, subiranotasunak

Europako integrazio esperientziak European sortzear da-goena guztiz berria dela ekartzen du bistara: estatu-nazioen gobernuarteko erlazioek kontrolatutako nazioarteko ordenua. Honen bitartez, transnacionalizatutako munduko ekonomia-erentzat eskualde eta barne antolaketa ahalik eta egonkorrena ziurtatzen da. Dena den, integrazio eremueta-ko dinamikaren berriak hainbat ekonomi oinarri konplexuago bihurtzen du, besteak beste, ekonomi subiranotasuna. Ekonomi subiranotasun *zatiuek* integrazio eremuen egokiera ekarri du eta integrazio eremu aitzineratuene-*zatiuek* eta konplexutasuna areagotu dute.

Nazioarteko ekonomi ordenuaren egonkortasun ezak erantzun multilateralak eskatzen ditu. Honen aurrean es-

Historia bizia



IMANOL MURUA URIA
Juan San Martini elkarrizketa

67

.....

Juan San Martini elkarrizketa

*

IMANOL MURUA URIA

*

Juan San Martin 1922ko ekainaren 23an jaio zen, San Joan bezperan, Eibarko Elgeta kalean. Han egin zituen bizitzako lehenengo 14 urteak, 1936an gerra piztu zen arte hain zuzen. Aita eskupetagina, jatorri eta joera liberal ezkertiarrekoa, Valentziara joan zen Errepublikaren alde armagintzan aritzera; ama eta lau anai-arrebak Arratian, Bilbon, Santanderren eta Gijonen ihesi ibili ondoren, Bordelerantz itsasoz zihoazela ontzia frankistek harraipatu eta El Ferrolera eraman zituzten, eta handik atzera Eibarrera. Etxea suntsituta aurkitu zuten, eta osaba baten etxean, esku hutsik, ekin zioten bizimodu berriari. Kolpetik amaitu zitzaion haurtzaroa Juan San Martini.

Tornero hasi zen lanean, egunez, eta gauez joaten zen eskolara. Soldadutzara joan beharra ere heldu zen eta han, Madrilen aurrena eta Burgosen gero, euskaldunen kontrako irainak eta mespretxuak bizi izanaren erreakzio gisa, euskaltzaletasuna piztu zitzaion. Euskaraz bere kasa alfabetatzeari ekin zion.

Irakurle borrokatua zen ordurako, eta mendizale amorratua. Lehenengo idazlanak, hain zuzen, mendiari buruz idatzi zituen: Eibarko Kirol Elkartearen buletinean eta **Pirenayca** aldizkarian, gazteleraz hasieran, euskaraz ere bai gero.

Imanol Berriatuaren **Anaitasuna** eta Jokin Zaitegiren **Euzko Gogoa** izan ziren kultur gaiei buruzko bere lehen artikuluak plaza 1950eko hamarkadaren hasieran, eta Euskal

.....

▶ Imanol Murua Uria **kazetaria** da.

Herrian izan diren aldizkari gehienetan argitaratu du Juan San Martinek geroztik, gaur arte. Egan aldizkariko zuzendari izan zen 1983tik 1989ra.

Artikuluak ezezik, poemak ere plazaratu zituen, batik batik, Euzko Gogoa-n eta Santi Onaindiak zuzentzen zuen Olerti aldizkarian. Poesia lanetarako erabili zuen goitizena, Otsalar, erreferentzia garrantzitsua izan zen 1960ko hamarkadako euskal poesigintzan. Aurten bertan argitaratu ditu orduko poema gehienak Giro Gori liburuan.

Aspaldikoa du, dena den, bere lehen liburua. Juan Antonio Mogelen bizitzari eta obrari buruzko liburuxka kaleratu zuen 1959an, eta haren ondotik etorri ziren hurrengo urtetan beste hainbat: umorea, literatura, artea, etnologia, hizkuntza... askotariko alorrak landu ditu Juan San Martinek bere liburu ugarietan.

Eta gehiago ere argitaratuko zituen, Euskaltzaindiko lanak hainbeste denbora kendu ez balio. 1957an izendatu zuten urgazle, 1964an euskaltzain oso eta 1967tik 1978ra Akademiako idazkari izan zen. 1968an Arantzazuko Bartzarrean Koldo Mitxelenak euskara baturako proposatu zuen bidearen defendatzaile sutsua izan zen, eta jarrera horrek haren inguruko eztabaida mingotsetan protagonismo handia izatera eraman zuen.

Euskaltzainburuorde ere hautatu zuten 1988an, baina kargua hurrengo urtean utzi zuen, Euskal Autonomi Erkidegoko Ararteko izendatu zutelako. 1994tik 1995era Europar Ombudsman Erakundeko buru izan zen. Urte horretan utzi zion Ararteko izateari ere.

Hondarribian bizi da orain eta bertako Elizari buruzko azterketa da orainarteko bere azken lana; argitaratu berria du liburua.

Egun berean jaio zineten Primo de Riveraren diktadura eta zu zeu. Haurtzarora diktadurapean egin zenuen.

Baina ni ez nintzen jabetzen orduan. Errepublikak etorri zenean 9 urte nituen eta ez nintzen horrelako kontuekin arduratzen. Bi urte zaharragoa zen anaiak goizeko seietan esnatu eta esan zidanean «Republica» etorri zela, erantzun nion: «Zein da Republica?».

Aita giro sozialistakoa zenuen, eta amaren familia giro abertzalekoa, jatorri karlistakoa.

Aitona liberal ezkertiarra nuen, eta aita ere liberala zen. Baina aitaren familiako denak ez ziren liberalak izan. Aitonaren anaia zaharrenak —Felix San Martin—, baserriaren oinordeko zenak, 16 urterekin baserritik aldegin omen zuten Santa Kruz apaizarekin joateko. Nire aitonarentzat Santa Kruz deabrua bera baino okerragoa zen! Aitonak etika zentzua bazuen: ezin eraman zuten pertsonak hiltzea.

Aita eskupetagina zen, eskupetaren gremioko lehenengo kooperatibaren sortzaileetakoa. «Danok bat» zuen izena. UGTkoak ziren, sozialistak asko. Baina ez zen ondo joan eta, erori zenean, aita bere kontura hasi zen. Kulatak eta montajea egiten zituen batez ere.

Zuk bi giro horietatik edan zenuen. Batzokiaren inguruan nahiz Casa del Pueblo-ren inguruan ibiltzeko aukera izan zenuen.

Erakunde politikoek janari kooperatibak zituzten: «Bide Onera» zuen izena Batzokikoak, eta «Cooperativa» sozialistenak, UGTkoak. Ni bietan ibiltzen nintzen: etxeko gauzetarako «Cooperativa»ra joaten nintzen, baina lehengusuarekin Batzokikora joaten nintzen sarri. Aita salamanarra izanik, familian izan dugun abertzalerik gogorrenetakoa izan da lehengusu hori. Batzokian zerbitzuak egiten zituen, dendari gisa.

Elkarrenganako errespetua eta tolerantzia zegoen orduan, gaur ez bezala. Sozialista zaharrak eta abertzale zaharrak elkarren lagun minak izan dira Eibarren. Gazteen artean auziren bat sortzen zenean, berehala sartzen ziren konponketa egitera.

Elkarren arteko liskarrak ere izango zituzten...

Ez pentsa. Oso tratu ona zuten. Oraingo gazteek ezin dezakete konprenitu ere egin.

Toribio Etxebarria, Eibarko sozialisten lider intelektuala, bistaz baino ez nuen ezagutu haurtzaroan, baina gero, bera Venezuelan erbesteratua zegoela, idatzizko harremana hasi genuen. Udan Hendaiara etortzen zen eta Edorta Alberdik, Eibarko EAJko presidente izanak —heriotz zigorra izan zuen horregatik!—, esan zidan Toribiok ezagutu nahi ninduela. Elkarrekin joan ginen Hendaiara eta Toribiorekin pasa genuen eguna. Lagun handiak ziren! Inbidia ematen zidan, eta galdetzen nien nola konpontzen ziren: «Zeozter zenean berehalaxe jartzen ginen harremanean eta horrelaxe konpontzen genituen auziak».

Horrelakoak gaur ez dira posible.

1934ko iraultzan Eibarren nahikoa istilu izan zirela irakurri dut Auñamendiren Entziklopedian zuk idatzitako «Eibar» artikuluan. Historiagile bezala jaso duzu hori, baina gogoan ere ba al duzu orduan gertatutakoa?

Gogoan dut hori. Hildakoak ere izan ziren: bost.

Eta 144 juzkatu. Heriotza zigorra Toribio Etxebarriari eta betirako kartzela ehundik gora laguni.

Toribio Etxebarria ez zen iraultza horren aldekoa, bere gogoaren kontra jaiki ziren gazteak. Bera errenditu egin zen esanez han ez zegoela horrela irabazterik. Baina horrelako euforia zegoen Errepublikak ekarri zutelako, halaxe gertatu zela. Toribiok liburu bateko hitzaurrean esaten zuen gero, gezurra zirudiela Errepublikaren aurka altxamendua prestatzen ari ziren militarrek beraiek, Soltxaga jeneralak-eta, Errepublika defendatzen zutenak juzkatzea.

Ni gogoratzen naiz depositoa hilak ikusten egon nintzela. Oso gogorra izan zen.

1931ko hauteskundeetan EAJk baino askoz ere boto gehiago lortu zituzten Eibarren ANVk, Union Republicanak, Alderdi Sozialistak eta Derecha Republicanak. 2.300na bototik gora lau hauek, 632 baino ez EAJk.

ANV indarra hartzen hasi zen garai hartan. Baina nazionalista ez zirenak ere euskaltzale ziren neurri batean. Gogoratzen naiz Maiatzaren Leheneko kanta —«El día Primero de Mayo» abestia— euskaraz kantatzen zela. Ez dut gerora aurkitu, baina badakit euskaraz kantatzen zela.

GERRAURREKO EIBAR

Zure haurtzaroko Eibar ia erabat euskalduna omen zen, nahiz herri handi samarra izan ordurako.

14.000 biztanle zituen Errepublika garaian eta 15.000ra iritsi zen gerra hasi zenerako.

Kanpotik etortzen zenak, adinean etorrira ere, euskara ondo ikasten ez bazuen ere euskaraz egin beharra zuen. Ez zeukan beste erremediorik! Esate baterako, mendian bannuen Guadalajaratik etorritako lagun bat, Molinero abizeenez baina Kamarro esaten geniona, erdaraz okerrago egiten zuena euskaraz baino!

Etxean eta kalean euskaraz. Eskolan?

Dena erdaraz, den-dena. Uste genuen horrela behar zuela. Naturalizat genuen. Gainera, nagusiek esaten ziguten munduan jo behar zela hizkuntza bakarra egitera. Gero konturatu nintzen, irakurritz-eta, hori ezinezkoa zela, utopia bat zela eta bakoitzak bereari eutsi behar diola. Baina sozialista gehienak joera horretakoak ziren, esperantozaleak, eta nire lagunik gehienak ere bai.

Baina doktrina, euskaraz.

Euskara oso purista erabiltzen genuen doktrinan, eta ezin ulertu! Jainkozale taldeko Don Juan Ibargutxiren doktrina erabiltzen genuen, bizkaieraz, baina Eibarren egiten den euskaratik alde ikaragarria zegoen. Gauza asko ulertu ere ez genituen egiten eta buruz ikasi behar izaten genuen.

Familia liberal ezkertiarretako mutikoak berez elkarrekin jarri ginen, eta gogo gutxirekin joaten ginen doktrinara. Mutiko bihurria nintzen gainera, eta jaramon handiegirik ez nion jartzen doktrina kontuei. Eta begietan hartu

◆
«Maiatzaren
Leheneko
kanta
euskaraz
kantatzen zer
Eibarren»
◆

ninduen Don Juan Ibargutxik. Beldurra hartu nion eta, bere aurrean jartzen nintzenean, hitz egiten ere ez nuen asmatzen. Aitortzera joaten nintzenean, atzamarrarekin be-soa heltzen zidan eta: «Etxean azukrea-edo lapurtu du-zu?». Nik ezetz esan eta berak, ra!, atximurkada, baietz esan arte. Egiten ez eta baietz esan behar! Egiten ez nituen gauzekin zigortzen ninduen!

Jaunartzerik ez nuela egingo esan zidan, beste urtebe-te jarraitu behar nuela doktrinan. Etxean, atsekabea! Jan-tzia eginda neukan! Amak auzoko doktrinako maistra bati deitu zion, hark galderak egin zizkidan eta, nik denak erantzun nizkionez, doktrina banekiela esan zion amari. Orduan esan nien, Don Juanek galdetzen zidanean, beldu-rragatik ezin nuela erantzun ere egin. Besoa ere erakutsi nien, dena belztuta. Ama izututa gelditu zen, eta Don Ju-nengana joan ginen hurrengo egunean. Eta Don Juanek amari: «Zuk eman behar dizkiozu Jaungoikoari kontuak, zure semeak ez dauka nahikoa fede eta». Jaunartzea egin-go nuela, baina hurrengo urtean doktrinara joaten jarrai nezala esan zion amari. Ez nintzen gehiago joan.

Amak jaunartzeko argazkia atera behar nuela esan zi-danean, «ezta pentsatu ere!», ez nuen nahi argazkirik edu-kitzea ere. Bakarra izango naiz, jaunartzeko argazkirik ga-bea. Orduan pasa nituenak trauma handia izan ziren nire-tzat. Hark eman zidan bidea Elizako kontuetatik aldentze-ko.

Giro erlijiosoa berezia zen Eibarren. «Apaiz laikoa» zenuten: Marcelino Bascaran.

Gure kaletik, Elgeta kaletik, pasatzen ziren hileta gehienak; Elizako denak eta zibil gehienak. Hileta zibile-tan egoten ginen, kuriositatez ere bai. Elizakoa izan edo zi-bila izan, hileta ekitaldi garrantzitsua izaten zen sarri. Apaiz laikoaren diskurtsoak panegirikoak izaten ziren; hil-dakoaren alde onak goratzen zituen.

Apaiz laikoari, Marcelino Bascarani, «Sumendixa» esa-ten genion, jatorriz Sumendia baserrikoa zelako. Oso gi-zon isila zen, bere bizarrarekin eta bibote handiarekin ha-lako apostolu itxura zuena. Erdaraz gutxi zekien eta beti euskaraz egiten zuen. Haren semeak, Benignok, egin izan

ditu hileta laikoak gerraondoan. Benignok bietara egin izan du, euskaraz eta gaztelera.

Baina Errepublikako baina lehenagotik ere egiten ziren hileta zibilak. Ezkertiar liberalak hasi ziren nonbait, bigarren gerra karlistatik aurrera uste dut. Gero sozialistek hedatu zuten, eta guretzat normalak ziren.

Gerraurreko haurtzaro hartan irakurtzen zenuen libururik?

Irakurzaletasuna mutikotatik neukan. Auzoan bagenuen neska bat, ni baino lau bat urte zaharragoa, ipuinak irakurtzen zizkiguna. Robinson Crusoe eta halakoak. Horren inguruan, oso mutiko nintzela!, jabetu nintzen liburuetan zer gauza aurki zitezkeen.

Ipuinak-eta irakurtzen nituen orduan, erdaraz. Esploadore kontuak, Livingston-eta, mutikotatik irakurri nituen. Erosi egiten nituen, nire diruarekin. Merkeak ziren. Nobelak koaderno gisa kapituluka saltzeko ohitura ere bazen. Eta gainera, trukaketak genituen: zinemara joaten ginenean, pelikula hasi baino lehen elkartzeko ginen elkarri esanez, azokan bezala, «nik hau daukat! trukatu nuke honegatik!», eta horrela. Batzuk banituen trukatzetik nahi ez nituenak. Gustatu, eta niretzat.

Gerra piztu zenerako, etxean banuen liburu multzo bat. Baina gerra etorri zen, etxea erre zen eta ezer gabe gelditu nintzen.

GERRAREKIN, AKABO HAURTZAROA

Gerra piztu zenean, zertan ari zineten zuen familia eta zu?

Ustekabean etorri zen, eta denbora gutxi barru Eibar ondora etorri zen frontea. Industrietako makinariak-eta atera, Deustura joan eta fusilgintzako fabrika montatu zuten; aitak han egin zuen lana.

Guk ere aldegin genuen Eibartik, bonbardeoak zirela eta. Bilbora joan ginen aurrena, izeba batengana, baina Bilbon ere bonbardeoak hasi ziren, eta Arratiara joan gi-

◆
«Apaiz laikoak
Marcelino
Bascaranek,
erdaraz gutxi
zekien eta
euskaraz
egiten zituen
hileta zibilak»

◆

nen, izeba haren udako etxera. Aita asteburuetan etortzen zen guregana.

Gero, frontea mugitu zenean, aurrena Bilbora eta gero Santander aldera jo genuen, Cabezón de la Sal-era. Aita, berriz, Valentziara, «Nortea» arriskuan zegoela ikusita armagintza Valentziara eramatea erabaki baitzuten. Bordele-
ra itsasoz, eta Bordeletik Valentziara. Bilbo erori inguru-
a zen, erori eta laster.

Gu, aitari jarraika, Gijonera joan eta Bordelera heltze-
ko asmoz ontziratu ginen. Baina bidean Cervera gerraon-
tziak harrapatu gintuen! Ferrolera eraman gintuzten eta
egun batzuetan pabilioi batzuetan eduki. Gizonak gutxi zi-
ren eta haiei galdeketak-eta egiten zizkieten, baina andreei
eta guri ez ziguten ezer egiten. Han ibiltzen ginen jolasean.

**Zuek Arratian zeundetela sartu ziren tropa frankis-
tak Eibarrera, 1937ko apirilaren 26an, Gernika bonbar-
deatu zuten egun berean hain zuzen.**

Egun berean! Eibar erretzen ari zela sartu ziren, bi
egun lehenago bonbardeatu baitzuten Eibar.

Nik Arratiako mendi batetik ikusi nituen Durangoko
bonbardeoa lehenengo, eta Gernikakoa egun batzuk geroa-
go. Gernikakoa gertatu zenean, hainbeste hegazkin ikusi-
rik, berriro Durangora joango zirela pentsaturik, muino
batera igo nintzen. Eta ez, aurrera segi zuten. Bonba ho-
tsak entzuten genituen urrutira. Iluntzean
mendian goitik behera etxe aldera gentoze-
la, zerua gorri ikusten zen. Etxean, irratiz,
Gernika erretzen zegoela jakin genuen.

◆
Arratiako mendi
batetik ikusi
nituen Durangoko
eta Gernikako
bonbardeoa»

Cervera ontziak harrapatu ondoren Fe-
rrolen lehengusu bat eta biok jolasean ari
ginela, euskaraz ari ginela entzun eta ondo
jantzitako gizon bat zuzendu zitzaigun, eus-
karaz. Konfiantza hartu zuenean Gernika-
koa zela esan eta han zer pasatu zen bagene-
kien galdetu zigun. Azaldu nion ikusi nuena: 61 hegazkin,
nik neuk kolpe batean zenbatuta!, hironaka, hironaka...
Berak ez zuen hitzik egiten, halako batean zotin bezalako
bat egin zuen, begiratu nion eta, a ze inpresioa!, gizona
negarrez. Kokotzetik behera erortzen zitzaizkion malkoak.

Esan zidan: «Nire familiako asko hil dira han, eta ezin nuen buruan sartu, gorriek nola erreko zuten, beren familiak barruan zeudela!». Halako gizon bat lehenengo aldiz ikusten nuen negar egiten.

El Ferroletik Eibarrera joan zineten, aita artean Valentzian zela.

Ferroletik Pasaiara ekarri gintuzten, itsasoz. Eta handik Eibarrera. Iritsi ginenean, etxerik ez! Beheak jota. Suntsituta dena, lau paretak. Amak ikusi zuenean negarrari eman zion. Inpresio handia egin zidan, eta uste dut nire bizitzan aldaketa handia egin nuela orduan. Lehen ume bihurria nintzen, baina ama horrela ikusirik eta aita non zenik ere ez genekiela...

Ama eta lau seme-alabok osaba batzuen etxera sartu ginen eta poliki-poliki aurrera egin behar izan genuen. Gero, etxebizitza sozialak egin zituzten, baina guk ez genuen inoiz lehentasunik izan. Fitxatuta geunden. Etxea erre zigutenek etxe berriak egin eta guk ez genuen erosterik. Kanpotik etorritako inmigrante «ex-combatientes»-ek zuten lehentasuna.

Gero, gerra bukatu eta laster aita etorri zenean, etxe bat alokatu genuen. Etxeratu aurretik preso egon zen, baina denbora gutxi.

Zure bizitza erabat aldatu zen. Akabo haurtzaroa.

Eibarrera itzuli ginenean, artean gerra amaitu gabe zegoela, lanean hasi nintzen morteroak-eta egiten. Ez nekien ni egiten ari nintzen lehegailuak aitaren gainean eroriko ziren ere! Gaez eskolara joateko adina ordaintzen zidaten. Seiak arte lanean aritzen nintzen, eta seietan eskolara. Oso lotua, jolasteko batere denborarik gabe. Lana eta lana, ikasi eta ikasi.

Asmoa zen gero Armagintzako langintza eskolara pasatzea, baina eskola ireki zutenerako lanbidea hartua nuen: mekanika. Lan batzuk egiten hasi nintzen lantegian, gero lantegi buruaren laguntzaile jarri ninduten eta, haren arrimuan, tornero, ajustadore, proiektista... denetik ikasi nuen. Ojanguren y Marcaide (OJMAR) zen lantegia-
ren izena.

Aita etorri zenean ni armagintzan sartzea nahi zuen, baina esaten nion ez nuela nahi. Natura maite dut eta ez dut nahi inork eskupetarekin txoria hiltzerik. Alde batetik aitzakia ere bazen, gehiago gustatzen zitzaidalako mekanika, baina beste alde batetik egia ere bazen. Natura maite dut.

Gerraondoan beste Eibar bat aurkitu zenuen: Errepublikako elkartasun girorik ez, jendea asko falta (14.000 biztanle izatetik 9.000 izatera pasa zen Eibar)...

Beste batzuk desterratuak ere bai, Espainia barruan. Alderantzizko bidea, nire emaztearena da. Izatez Madrilgoa da eta gerraondoan bere aitak gutxienez Madrildik 400 kilometrora egon beharra zuen. Horregatik etorri ziren hona, eta horrela ezagutu nuen.

Gerraondoko Eibarren oso pertsegituak geunden. Isilik egon behar. Bazen Aldai abizeneko lagun bat, gure adinekoa —gizajoak oso haurra zelarik ama galdu zuen eta aita elbarrituarekin bizi zen—, inork berekin ibiltzerik nahi ez genuena falangista eta karlista berriek begietan hartuta zutelako. Jipoitu egiten zuten sistematikoki. Hartu eta eman, gorria zelako. Horrelakoengandik bereizten ibiltzen ginen, bestela norberari ere egurra.

Behin, zinera ordaindu gabe sartzan saiatzeagatik harapatu eta goardia zibiletara eraman gintuzten: beste gabe kristorenak eman lehenengo, gero irainak eta ondoren errizino-olioa. Afiliatzeko ere agindu ziguten: edo *flecha* edo *pelayo*. *Flecha* falangista kumeak ziren eta *pelayo* karlista kumeak. «Bai, bai» esan, baina ez nintzen inoiz afiliazera iritsi.

Gerra aurretik Eibar erabat euskalduna zela esan duzu. Ondoren?

Gure artean euskaraz egiten genuen, baina udaletxean edo edozein zentro ofizialetan, kontuz! Erdaraz. Mezara ez nintzen joaten baina, elizan ere, erdaraz.

Behin zortzi bat urteko mutikoa ikusi nuen negarrez, 10 urtetik gorako neskato batekin. Baserrikoak ziren, Urki aldekoak. Jaunartzea egiteko aitortzera etorri zen umea, eta abadeak esan zion erdaraz ikasteko lehenengo, euska-

raz ez ziola aitortzarik hartuko. Eta negarrez. Horrelakoak pasa dira! Jainkoaren izenean!

Giroa oso txarra zen. Udaletxean edo beste edozein zentrotan isilik geratu behar, baina trenean, autobusean edo horrelako lekuetan ikasia nuen, nire irakurketetatik, zer erantzun. Autobusean-eta nornahik esaten zizun: «*¡Hable en cristiano!*». Nornahik! Sarri erdibaserritar erdaraz ondo ez zekienak, karlista zelako. Baina sarriago, kanpoko jendeak, poliziek eta.

Nik erantzuten nien: «*Lo siento mucho, pero yo no sé arameo*». Berak: «*¡Quiero decir que estamos en España y hable usted en español!*». Eta nik: «*Pues yo estoy hablando la lengua mas antigua de España*». Jendea adi-adi egoten zen. Eta gero: «*¡Yo no soy separatista, pero veo que usted es un separador!*».

Horrela erantzuten nien. Jendeak horrekin kontzientzia hartzen zuen eta ni pozik. Hori, zenbat aldiz eta zenbat tokitan! 40ko hamarkadaren erdia pasatu ondoren hasi nintzen horrelako erantzunak ematen. Esaten zidaten lagunek, egunen batean disgustoa izango genuela...

SOLDADUTZAN EUSKALTZALE

Euskaltzale kontzientzia hartze horretan soldadutza momentu garrantzitsua izan zen, ezta?

Gerra aurretik Txirrita Eibarko plazan entzunda nukan. Eta gustatzen zitzaidan. Gero Uztapide eta Basarri hasi zirenean, sanpedroetan mendira joan beharrean bertsolariak entzuten geratzen nintzen. Gustora egoten nintzen haien hitz jokoak eta adar jotzeak entzunez. Zaletasun hori banuen.

Bestetik, etxean ipuin eta kanta asko entzun nizkion amari. Almazan bat zeukan, bere aitarengandik ikasita. Mahaiari geundela ipuinak kontatzen zizkigun eta Gabonetan, gabon kantak. Tradizio hori jaso nuen etxetik.

Soldadutzara joan nintzenean, amari idazten hasi eta buruan ez zitzaidan sartzen amari gazteleraz ezer idaztea. Euskaraz idatzi nion, erdarazko grafiarekin. Ez nekien besterik. Lehenengo aldia izan zen euskaraz idatzi nuena. Ai-

tari errazago egiten zitzaidan erdaraz, baina aitari ere inoiz esaldi batzuk euskaraz idatzi nizkion.

Eta giroaren aldetik, Madrilen txoke handia izan nuen hango mentalitatearekin. Euskaraz ezin zenuen hitzik ere atera, bestela akabo. Erdaraz ez zekitenak zigortu egiten zituzten, eta erdararik ez zekiten euskaldunak teoria klasean burla egitearren ateratzen zituzten, tontoak balira bezala. Itzultzaile egin behar izaten nuen.

Behin, euskaraz entzun eta brigada batek esan zidan: «¡Malditos vuestros padres que os enseñaron esa puñetera lengua!»... «Oiga, perdone, a mí mis padres no me han enseñado nada malo». Esan banion esan nion! Eman zidan jipoi ikaragarria! Lurrera bota, zapaldu... odolduta utzi ninduen.

Horrek erreakzioa sortarazi zidan: ni mendizale ibili naizenean, artzainekin, baserritarrekin, Gorbean, Aizkorrin, Aralarren..., gure hizkuntzarekin toki guztietan atea irekita izan ditut. Hizkuntzarekin anaiago konpontzen gara... Eta gero, tratu hau hauei? Niretzat azkena izan zen. Hor hasi nintzen kontzientzia hartzen.

Gero, gainera, Madrildik Burgosera bidali nindutenean, hango koarteleko bibliotekan aurkitu nuen *Los cantones suizos* liburua. Hasi nintzen irakurtzen, nire gogoa zelako egunen batean Alpeetara iristea, eta han ikusi nuen lau hizkuntzak ofizialak zirela Suitzan. 600 urteko bakea herri honek, eta lau hizkuntza! Hori ikusi nuenean, esan nuen, hau da irtenbidea guretzat ere! Hortik hartu nuen kontzientzia euskaltzaletzekoa, eta bide horretan jarraitu dut.

Amari erdarazko grafian euskaraz idazten zenion. Noiz hasi zinen euskaraz alfabetatzen?

Gramatika bat bazeukala entzuna nion lagun zaharra bati, Faustino Mujikari, eskatu nion oraindik soldadutzan nengoela. Eta bidali zidan, Zabala-Aranarena. Oraindik badut, dedikatoria eta guzti. Nire euskarazko lehenengo liburua. Horrekin hasi nintzen oinarritzkoena ikasten, ez bainekien nola zatitu hitzak eta aditzak. Latza egin zitzaidan gramatika hori.

Soldadutzatik itzuli ostean, buru-belarri hasi nintzen. Entzunda neukan euskaraz ez zegoela literatur libururik,

baina derrigor egon behar zela pentsatzen nuen, eta bila hasi nintzen. Elizako liburuak baziren, baina dogmatismoa-gatik irentsi ezin nituenak. Eta gainerako liburuetan purismoa gehiegi aurkitzen nuen, irakurtezinak.

Han eta hemen ibiliz, oraindik ere niretzako libururik atseginenetakoa dena aurkitu nuen: Legoaldik itzultitako Grimm anaien ipuinak. Arratiako euskaran idatzi zuen, nik menderatzen nuen euskaran. Pena izan da autore horrek gehiago ez idatzi izana Ordenean zituen erantzukizunengatik. Gero Urruzunoren *Ipuiak* aurkitu nuen. Elgoibartarra, guretzat oso hurbilekoa.

Horiek irakurriz ikusi nuen euskaraz posible zela gauza onak egitea, eta bila jarraitu nuen, bidea irekiz eta irekiz.

Prentsan zer irakurtzen zenuten?

Prensa gutxi irakurtzen genuen. Jose Artetxeri irakurtzen nion asko, euskal gaiak ekartzen zituelako. Bera izan zen lehenengoa euskal gaiak aipatzen. Carlos Santamaria ere irakurtzen nuen, baina gutxi idazten zuen. Basarriri ere bai: nahiz eta Basarririk nekazari munduko kontuak ekarri, bertsoak irakurtzen nizkion. Jose Maria Donosti eta horrelakoren batzuk ere bai. Baina gainerakoan, ez zen erraza. Irakurtezinak ziren. Irainak ziren guretzat. Gerra galdu, pasatu zirenak pasatu, eta gainera egurra ematen! Gaizkile batzuk bagina bezala.

Euskarazko aldizkaririk ez?

Euzko Gogoaren bilduma osoa dut, eta *Gernika* ere hartzen nuen, 1940ko hamarkadaren bukaeran hasita. Jon Etxaide laguna nuen eta, Donostian bizi zelako, berak eta besteren batek ekartzen zituzten Iparraldetik, harpidedunei banatzeko. Kartzelan ere egon zen sei hilabetez, *Gernika*-ren sei alerekin harrapatu zutelako. Ale bakoitzeko hilabete bat!

Jon Etxaide ez zenuen izan zure irakurketetan gidari, edo laguntzaile?

Mendian ezagutu nuen. Pirinioetan elkarrekin ibili gara. Aneton elkarrekin egonda gaude! Baina lagun egin gine-

nean nik ez nekien haren idazle konturik. Euskaltzale zela bai, baina besterik ez. Eta egun batean, *Alos Torre*a argitaratu zela irakurri eta, hara!, Jon Etxaide, mendiko laguna! Horen ondoren hasi ginen gehiago elkarrekin kolaboratzen.

Jon Etxaidek asko orientatu gintuen: zer gramatika ziren interesgarrienak, literatur gomendioak... Ni mugaz haraindiko idazleei begira jarri banintzen, hangoak ere irakurtzen hasi banintzen, Jon Etxaideri zor diot. Esaten zidan bere ustez mugaz haraindiko idazleak tradizio handiagokoak zirela, ezagutu beharrekoak zirela.

◆
«Jon Etxaidek
mendian
literaturari
ruzko hitzaldia
nan zigun, goiz
eta arratsalde,
klandestinitatean»

Hain zuzen, bere *Hamasei seme Euskalerriko* liburuak, nik eskatuta klandestinitatean emandako hitzaldi bat du oinarri. Eibarren gramatika ikasteko biltzen ginen euskaltzale talde bati euskal idazleei buruzko hitzaldiren bat edo emango zigun eskatu nion. Baietz. Hamasei idazle aukeratu zituen eta mendian eman zigun hitzaldia, egun guztian, goiz eta arratsalde. Egotxeaga pagadian batu ginen, Elgeta aldean, Egoarbitza mendiaren ondoan.

◆
Gu apunteak hartzen, eta bi edo hiru lagun mendi muinotan zaindari badaezbada, inor bazetorren aditzen emateko. Ez goardia zibilak etorriko ote ziren. Edozein jende! Arriskutsua zen. Salaketak erraz etortzen ziren.

Mitxelena-ren hitzaurre batekin argitaratu zuen gero.

Zer talde zineten?

Geure kontura gramatika ikasten genuen. Lehenengo lezioak Don Rafael Artola apaiz hondarribiarrak, Bordariren anaiak, eman zizkigun. Orain etxe batean, hurrengoan beste batean, klandestinoki batzen ginen, gramatika ikasteko, bekatoriak bagina bezala. Gerraondoan zen, 1946-48 urteen inguruan.

Andoni Urrestarazu *Umandi*-rena genuen gramatika liburu onentzat. Etxaidek gomendatu zigun. Baina multikopiatan genuen, argitaratu gabe, eta argitaratzea pentsatu genuen. Erosleak aurkitu genituen euskaltzaleen artean Eibarren, Bilbon eta Gasteizen, edizioa justifikatzeko kopurura heltzeko; geure bizkar finantziatu genuen argitarape-

na, modu horretan. Eta Mitxelenarengana jo genuen, orduan hasi berria baitzen Julio Urkijo Seminarioa, Mitxelenaren eta Irigarairen eskutik. Hura izango zen seguruasko nik Mitxelenarekin izan nuen lehenengo kontaktua. Julio Urkijo Seminarioaren lehenengo argitarapena izan zen Umandiren gramatika.

Agortu egin zen, ordaindu genuen eta zorrik gabe gelditu ginen. Umandik, erbestetik, orrialde aparteko batean dedikatoria bana idatzi zigun taldekooi, gero liburuari itsasteko. Lehen edizioko ale bat badut hemen, 1955ean argitaratua. Hara: «*Nere adiskide ona dan San Martin'dar Yon euskaltzale jatorrari, esker onez eta biotzez. Urrestarazu'tar Andoni*». Paulino Larrañaga marrazkilariak, gramatika taldeko zaharrenak, egin zion azala.

Lan hauetan zenbiltzala, lantegi berean segitzen zenuen?

Bai, baina gero aldatu egin nuen, libreago gelditzearen, irakurtzeko denbora gehiago izatearren. Inportazioko makinaria saltzaile hasi nintzen 1958 inguruan, Abando S.A. Bilboko enpresan. Egunean sei bat ordu eginda bizitzeko modua neukan horrela. Transizio garaira arte iraun nuen, 19 urte. Inportazioko makinaria saltzen genuen, alemana, ingelesa...

BAIMEN BEREZIA BEHAR, PIRINIOETAN IBILTZEKO

Nondik datorkizu mendirako zaletasuna?

Inoiz aitarekin ere ibiltzen nintzen, senideen baserriren batera joan ere bai Elgetan edo Eibarren bertan. Eguren baserrikoak ginen gu. Aitari kalean Eguren deitzen zioten. Baina horrek baino gehiago eragin zidan gure goian bizi zen ehiztariaren semearekin nuen adiskidetasunak. Niri ehiza ez zitzaidan gustatzen, eta askotan perretxikotara joaten ginen. Harekin perretxikoak identifikatzen ikasi nuen, eta batera eta bestera ibiltzen. Orduan piztu zitzaidan tokiak ezagutzeko interesa.

Eibarren, han zuloan sartuta, inpresioa egiten zidan tontor batera igo eta ikusten zen panorama guztiak! Ulertu

behar da Eibarren mendizale asko izatea, zulo horretan egonda. Ume-umetatik hasi nintzen. Club Deportivoa 1922an sortu zela uste dut, eta ni umetatik sartu nintzen, gerraurretik. Gerra ondoren, berriro martxan jarri genuen.

Iparraldean ere mendiaren bitartez ezagutu zenuela esana duzu.

Hori geroago. Muga pasatzea ez zen posible! Nik ez dut izan aukerarik 1951ra arte mugako mendietan ibiltzeko. Pase berezia behar zen. 1951an lortu nuen Pirinioetan ibiltzeko pasea. Hiru Errege Mahaia igo nuen, eta gero Aneto. Aurrez atera behar zen pase hori; denboraldi bakoi-tzeko ematen ziguten. Gero, pasaportea lortuz gero, asko ibili naiz. 1960tik askoz ere gehiago.

1948an Mendi Altuetako instruktore titulua hartu zenuen, 1949an Eskalada eta Mendi Altuetako saila sortu Eibarko kirol elkartean, eta 1950-54 urteetan Naranjo de Bulnes hiru aldiz igo zenuen, hiru bide desberdinetatik igo ere.

Naranjo lehenengo aldiz igo genuenean, baserriko abarkekin egin genuen. Gero, txirukak hasi zirenean txirurkekin.

Gogoan dut Naranjora joan ginenetako batean Frente de Juventudes-ekoekin gertatua, goi mendietako taldea bazuen-eta Frente de Juventudes-ek. Campamento Nacional de Alta Montaña zegoen Picos de European, eta egun batzuk egiteko asmoz joan ginen. Naranjora igo aurretik Llambrion-era igo ginen lau eibartar. Egun seinalatua zen eta mendizale asko zihoan.

Tiro Tirso tontorrera igo eta pixkatera, han non datozen Frente de Juventudes-eko hiru. Lau eibartarrok euskaraz eta horietako batek: «*Vizcaínos, aquí estamos en España y se habla español*». «*Yo estoy hablando español, esta es mi lengua*», nik. «*¿Qué me dices tú? ¿A ver si vas por el barranco?*», berak. Nik erreakzionatu, zutitu nintzen eta: «*¡Vamos a ver quién va primero!*». Orduan bere lagunak: «*Tranquilo, tranquilo*»... Esan nion: «*Estoy harto de tener que aguantar estas cosas allá abajo, y llegando aquí en busca de cierta libertad para expansionarme, ¿me va a imponer en qué lengua he*

de hablar? ¡Usted que es un monolingüe! ¡Usted se cree que lo único de España es el castellano! Yo hablo euskara y también es lengua española, quiera usted o no». Eta baretu ginen.

Mendi Federakuntzak kirol merituegatik zilarrezko domina eman zizun. Zergatik ?

Nire historialagatik. Mendi asko igo nituelako, eskalada asko egin nituelako, igo gabeko paret asko, espeleologia ere bai...

Alpeetara noiz hurbildu zinen lehenengoz?

1960an. Mont Blancen egon nintzen eta eskalada batzuk egin nituen. Gerora, Suitza aldean ere ibili nintzen, Cervino, Mont Blanc berriro... Emaztearekin igo nintzen gainera bigarren honetan. Mont Blanc izan da igo dudan mendirik altuena. Guk geneukan posibilitateekin ez zen beste inora joaterik. Guk gainera dena gure poltsikotik egiten genuen, orduan ez zen laguntzarik. Frente de Juventudes-ekoei ematen zizkieten laguntzak, baina guri ez.

◆
«Naranjo de Bulnes lehenengo aldiz igo genuenean, baserriko abarkekin egin genuen»
◆

MOGELAN OMENALDIA ETA IKASTOLA

1950etik aurrerako urteetan populatze masiboa ezagutu zuen Eibarrek. Hamar urtetan bikoiztu egin zen biztanlegoa: 16.300 bizilagun 1950ean, 31.800 handik hamar urtera.

Frankismoak mugak itxi zituen, autarkia esaten dena ezarri zuen: nazio barruan egin behar zen guztia, baina industria nahikoa ez zegoen, eta ikaragarritzko lana etorri zen Eibarrera.

Guretzat ekonomikoki ona zen: etorkinak denak pioiak ziren, eta espezialistak falta. Ekonomia aldetik ona, baina herria itotzen ari zen toki faltaz. Toki falta eta ezin asimilatu etorkinak. Intentzio bat ere bazegoen: karlistak eta falangistak gutxiengo ziren Eibarren, eta etorkinak ekartzearen alde lan egin zen udaletxetik, lekurik ez zegoela ikusita ere. Gobernu Zibilaren menpe zegoen udaletxea

alde horretatik. Viviendas de Cristo Rey erakundea ere bazen. Herria ito arte egin ziren etxeak. Eta Ermua ere hondatu egin zen, Eibarko hiri dormitorio bilakatu zen.

Herriaren erdalduntzea izan zen beste ondorio bat. 1958ko azterketaren arabera, eibartar jatorrikoak gutxiengo zineten (26.300 biztanletik 11.800 eibartar).

Baina horren kontra ezin zinen joan. Nik beti esaten dut: gizona da lehenago, edozein hizkuntza, edozein etnia eta edozein zera baino. Baina bolumena handia baldin bada, ez dago asimilatzerik.

Euskalduna zeharo baztertzea gertatu zen. Hor joko bat egon da azpitik. Dударik gabe.

Humanidade aldetik, agian gutxien inporta duena da. Baina, guretzat, euskaldun bezala, inportantea izan da.

Erdal giroa zen nagusi, baina euskaltzale batzuketan hasi zineten, Eibar Kirol Elkartearen babesean.

Club Deportivoa gerra ondoren 1940ean hasi zela usate dut. Hasieran mendiko kontuetan bakarrik aritu ginen, baina mendizaleen artean denok ginen erregimenaren oposiziokoak, eta horrek eraman gintuen beste zerbait ere egitera. Giro horretan hasi ginen gramatika ikasten ere.

Urte batzuk geroago, 1957an, sail artistiko-kulturala sortu nuen klubaren barruan, kultur arloko ekitaldiakultzatzeko. Denborarekin, hitzaldiak, erakusketak, euskara klaseak... antolatu genituen.

Handik gutxira antolatu zenituzten Mogelen omeneko ekitaldiak.

Mogeli omenaldia 1959an egin genion, euskaraz hitzaldi batzuk emateko eta euskaltzalesunari bizitasun pixkat emateko helburuarekin. Ikusten nuen hainbeste inmigraziorekin Eibarren hizkuntza behera zetorrela. Horrek kezkatzen gintuen. Jendea izututa zegoen, asko ez ziren ausartzen euskaraz egitera ere. Batez ere industrian eta ondo kokatutako jendeak, eragozpenak saihesteko, nahiago zuen gazteleraz egin eibartarren artean.

Ordurako, 1957. urtetik, Euskaltzaindian urgazle nintzen, eta Akademian proposatu nuen bi urtean behin-edo

biltzarren bat egitea euskal kulturako pertsonaiaren baten inguruan. «Nork debekatuko digu?». Lehenengoa Bilbon egin zen, Azkueren inguruan, eta Eibarkoa bigarrena izan zen.

Aitzakia hartu genuen Mogel Eibarren jaio zela. Aita markinarra zuen, baina mediku izan zen Eibarren, eta Mogel Eibarren bizi izan zen bederatzi urtez.

Euskaltzaindiaren babesean egin genuen. Alkatea ere konforme zen, eta hitzaldia euskaraz irakurri zuen. Garai haietan ez zen normala herri bateko alkateak jendaurrean euskaraz egitea. Eta euskaltzainen hitzaldien inguruan antzerkiak, dantzak... egin genituen, baina horiek Club Deportivoaren sail kulturalaren lepotik.

Euskal Herri mailako gertakaria izan zen. Kanpotik jende asko etorri zen. Eibarren halako iratzartze bat ekarri zuen, euskararen alde lehenengoz orduan agertu zen jende asko. Ordura arte euskarari jaramonik egin ez ziotenak arduratzen hasi ziren. Espero ez genuen jendea ere hurbildu zen, ezagutzen genituenak baina ez genekienak euskaltzale zirenik. «Zu, nik ere nahi dut lagundu. Zer egin nezake?» galdetuz etorri zitzaigun jendea. Iraultza izan zen hura!

Txinako Pingliang-en gotzain izandako Guillermo Larrañaga ere ekitaldietan izan zen. Haurrentzako euskarazko lehiaketa antolatu genuen eta epaimahaiaren nagusi Guillermo Larrañaga gotzaina, Untzaga Plazan, herri guztiaren agerian. Hotz ikaragarria egin zuen egun haietan eta gogoan dut Iraeta plaentxiarrak barrez esan zidala: «Zuek eibartarrok! Zuek! Txinan erre ez duten obispoa, zuek hotzak garbitu behar duzue hementxe!».

Gipuzkoako bertsolari txapelketa ere garai bere-tsuan antolatu zenuten, ezta?

Aurreko urtean Bizkaiko txapelketa egin zen, Euskaltzaindiaren Bilboko biltzarren inguruan, eta Mogelen Biltzarren inguruko giroa aprobetxatu zen gerraondoko Gipuzkoako lehenengo txapelketa egiteko. Euskaltzaindiaren izenean antolatu genuen hori ere.

◆
«Mogelen omenaldiak euskararen aldeko halako iratzartze bat ekarri zuen Eibarren»

◆

Eta ondoren, Eibarko ikastolaren sorreran aritu zinen buru-belarri.

Josu Oregik Bergaran eta nik Eibarren bultzatuta, Donostiatik kanpoko lehenengo bi ikastolak sortu genituen, garai hartan baita ere.

Eibarren eskola falta handia zegoen, publikoetan ez zuten denek lekua eta pribatuetara bidali behar zituzten gurasoek. Pribatura joatekotan, zergatik ez ikastola? Gramatika taldean ibiltzen zen Jose Luis Ugarteburuk adiskidetasun handia zuen Javier Eguren alkatearekin, eta biok joan ginen asmoa agertzera. Egiteko esan zigun: «Baimena eskatzen hasten bagara, arazoak izango ditugu. Zuek egin! Eta eragozpenik sortzen bada, etorri niregana». Familia karlistakoa zen alkatea, baina oso gizon ona, eta lagundu zigun.

Ikastola 1960an sortu zela dio ikastolaren liburuak, baina nik datuak lehenagokoak ditut, eta inor ibili baldin bazen ni ibili nintzen: 1959an sortu zen ikastola. Pisu batean hasi ginen.

Indartzen hasi zenean, 1961ean edo, bururatu zitzaidan gurasoei diru eskaria egin, eta horien diruarekin lokala erostea; kreditu sarrera ordaintzeko adina diru lortzea, behintzat. Bigarrenarengana joan nintzenean, esan zidan bera prest zegoela 100.000 pezeta jartzeko, eskaera askori ez zabaltzeko baldintzarekin, arriskutsua zelako. Nahikoa zirela lau pertsona. Bik 10.000na jarri genuen eta beste bat 20.000. 100.000 eman zuenak, gainera, interesak berak ordainduko zituela hitz eman zuen. Horrekin hasi ginen.

Lokal bikoitza erosi genuen, bi ikasgela egiteko. Inauguraziora parrokoa eraman genuen bedeinkazioa ematera, alkatea ere etorri zen, prentsara agiria bidali genuen... ez genuen klandestino itxurarik eman nahi.

Eta Donostiako Elbira Zipitriak ohar bat bidali zidan, *Irak* goitizenaekin sinatua, ea ikastola guztiak galdu nahi ote nituen eta eurak ere salatu egingo nituela esanez. Nik ez nekien *Irak* hori nor zen, eta Jose Migel Zumalabek argitu zidan. Donostian ere irekirik aritzeko gogoia zutela aitortu zidan Zumalabek, baina Zipitriak kandestinoki jarraitu nahi zuela, halako misterio bat emanez. Zumalabek ondo ikusten zuen gure bidea.

OTSALAR, POETA EZKUTUA

Idazten, erdaraz eta mendiaz hasi zinen.

1951n hasi nintzen, *Eibar CD* boletinean eta *Pirenya* -*ca*-n. Orduan ez neukan nahikoa gaitasunik euskaraz idazteko eta, gainera, arazoak zeuden euskaraz argitaratzeko. *Pirenya*-n Naranjo de Bulnes-era lehenengoz igo ginenean eskatu zidaten horren kronika egiteko; hura izan zen *Pirenya*-ko nire lehenengo artikulua.

Bost urtera euskaraz hasi zinen, Eibarko Kirol Elkartearen buletinean. Zuzendari ere izan zinen 1958-61 urteetan.

Zuzendari nintzela zenbaki guztietan gutxienez euskarazko artikulua bat sartzea nuen helburu: batean atletismoari buruz, hurrengoan pilotari buruz... neuk idazten nituen euskarazko guztiak. Eta hori egin ahal izateko euskarazko artikulua erdarara itzuli eta bi bertsioak zentsurara eraman behar izaten nituen. Zentsuraren Eibarko ordezkariak bezekien euskaraz, baina esaten zidan konstantzia geldi zedin erdaraz ere bidali behar niola.

***Eibar* aldizkarian ere idatzi zenuen euskaraz.**

Eta bilatu ere bai lanak, Eibarrekin zerikusia zeukate-nak. Eibarren trenbidea inauguratu zuteneko oso bertso politak daude Arrese Beitiarenak: horiek topatu, makinaz idatzi eta bidali. Baita ere egin nuen, Mogelen inguruan antolatu genuen biltzarra zela eta, joan zen mendeko eibartar euskaltzaleei buruzko bi orrialdeko idazlana: herriko mediku printzipala, Agirre, Mogel, aita Galdos...

Oraindik jarraitzen dut kolaboratzen.

Euskal aldizkarietan noiz hasi zinen?

Euskaraz lehen-lehenengoak Bermeoko *Anaitasuna*-n egin nituen, 1950 edo 1951 inguruan. Frantziskotarrek egiten zuten, Imanol Berriatuaren eskutik. Eibarko umorezko anekdota batzuk bidali nizkion, grazia egin zitoten Berriatuari, eta argitaratu zituen. Eibarko bizkaieraz idatziak zeuden. Animatu egin ninduen horrek. Ez naiz gogoratzen zein goitizenez sinatu nuen.

Euzko Gogoa-n, berriz, aldizkariko idazlan batzuei buruzko iritzia emanez gutunen bat bidali nion Zaitegiri Guatemalara, eta argitaratu egin zidan. *Anaitasuna*-ko lehenengoarekin bateratsu izan zen. Idazteko esan zidan Zaitegik, grazia neukala eta animatzeko. Berak egingo zizkidala zuzenketak. Ni Zaitegik bultzatu ninduen idaztera.

Era guztietako artikulak idatzi nituen *Euzko Gogoa*-n: hizkuntzari buruzkoak, etnografikoak... *Euzko Gogoa*-n ahalegindu nintzen euskara batuan edo Azkueren teoriako gipuzkera osotuan egiten, edo horretara hurbiltzen.

***Pirenya*-n zuk idatzi zenuen lehenengoz euskaraz.**

Jose Uria *Pirenya*-ko zuzendari zenean, euskaraz idazteko eskatzen zidan. Toponimiari buruz-eta idazten nituen, eta Alpeetan ibili nintzenean, Cervino igo nuenean, «Alpes mendiak zehar» saila idatzi nuen.

◆
«Jokin Zaitegik,
Euzko Gogoa-ko
zuzendari zela,
bultzatu ninduen
idaztera»

◆
Badakit kexu diskretu bat izan zuela Uriak. Euskal federazioko buru eta Espainiako buruorde zen Sopeñak idatzi zion euskarazko gauza gehiegi argitaratzen ari zela esanez. Falangista zen Sopeña, baina utzi zigun.

1964ean Lauaxeta kazetari saria eman zizun Baionan bildutako Euskal Idazleen Elkarteak.

Aurrenekoa izan zen. Rikardo Arregiri eman zioten gero. Orduan *Zeruko Argia*-n gaiak gehienetan elizkoiak izaten ziren, eta nik beste era bateko lanak idatzi nituen, garai hartarako oso bereziak zirenak. Urte hartan Alpeetara joan nintzen, eta Aostan egon nintzenez, artikulua bat egin nuen bertako autonomiaz eta elebitasunaz. Mendiko ibilaldiei buruz ere idatzi nuen, nondik nora ibili nintzen, eta Suitzako Konstituzioari buruz ere bai. Gehienak *Zeruko Argia*-n argitaratu nituen, baina ez denak. Aostarena, esate baterako, *Jakin*-en. *Jakin*-en ere kolaboratu izan dut.

Poesia non hasi zinen argitaratzen, Onaindiaren *Olerti*-n edo Zaitegiren *Euzko Gogoa*-n?

Lehenengoak *Euzko Gogoa*-n, uste dut, eta gehienak *Olerti*-n. *Egan*-en ere bai batzuk.

Poema itzulpenak ere argitaratzen nituen, baina neu-reak ziren gehiago, *Otsalar* ezizenarekin. Nire poemarik gehienak, orain *Giro Gori* liburuan bildu ditudanak, *Euzko-Gogo*a-n eta *Oleri*-n argitaratuak dira.

«Olerki muinari buruzko solasa» separata gisa argitaratu zizun *Oleri*-k 1964ean. «Larreako olerki-jaietan irakurritako lana» dela dio azalean.

Oleri eta *Karmel* aldizkarietako kolaboratzaile, harpidedun eta euskaltzale batzuekin urtero egiten genuen bile-ra Larrean. Santiago Onaindiak eramaten zituen bi aldizkariak. Nik bietan idatzi nuen: *Oleri*-n batez ere, baina *Karmel*-en ere bai artikuluren bat edo beste. Eta urte batean Santiago Onaindiak eskatu zidan poesiaren kontzeptuei buruz hitzaldia ematea. Eman nuen eta argitaratu egin zidaten.

Otsalar* ezizenaren atzean ezkutatuta egon zinen urtetan. Hara zer idatzi zenion Mitxelenari 1964ko gutun batean —KM Kulturuneko artxiboan dago jasota gutuna—: «*Otsalar nire adiskide miña da zure iritzia - gandik urbillen dabillena, ta zuk ere jakin nai zenuke ori nor dan. Zuzen ez badira ere, tiro guziak neregana datoz, nik berriz eskuak garbitu nai. Berak bere burua ixiltzen duelarik nik zertan azalduko det ba? Asarretuko litzaidake. Ixiltze horrekin, alde batetik baditu bere arrazoiak. Gure artean, zoritxarrez, zer esaten duan ba - ño nork esaten duan askozaz ere geiago begiratzen baita. Ta, Otsalarrek naiago du arbola bere fruituagandik eza - gutu eta ez azalaren anatomiagatik. Beraz, gaurkoz, ni nago egoera larrian, ta alde batetik naiago nuke noiz bait bere burua agertuko balu. Ez naiz ni bakarria ura zein dan dakiena, baña bai ni bakarria erbestean ezagu - tzen dan euskaltzalea. Inoiz Egan-erako bere lanik naiko bazenu, eskatu. Orren alperra ez balitz lan politak egin - go lituke. Beti naiz bere bilduma batekin liburu bat osa - tzeko gogoz, baño uste det inoiz ez dedala lortuko. Bere alperkerian eta pesimismoan eroria dago».

Hori ahaztuta neukan! Jakin izan banu *Giro Gori*-ren hitzaurrean agertuko zen!

Aresti ere kezkatuta zegoen, *Otsalar* hori nor zen ez zekiela eta. Irakurriko dizut Arestik zer idatzi zuen 1960an, *Egan-en*: «*Larrean argitaratzen den Olerti errebistan poeta bat agertzen zaigu, zeineren izenik edo kondiziorik ez dudan nik ezagutzen birrizen batekin eskribatzen duelako: Otsalar. Gauza sakonak eta kementsuak egiten ditu, bortitza da, entelegezua, adimentsua, zero muga zabaleko poeta. Lasai dabil poesia go-renengo alor aberatsetatik. Baina formarekin egiten dugu ozto-po. Badaki koplak nagusi bat zer ez den ere ez dakiela. Otsalar, funtsaren aldetik, ezin hobea da*».

1964an asmatu zuen Arestik *Otsalar* neu nintzela. Nik ez nuen aitortu, berak asmatu zuen. Hizketan ari ginen eta: «*Otsalar zu zara!*». Zer ba? «*Zurekin elkarrizketa asko izan dut, eta zure pentsamendua eta harena berdina dira. Erlijioke kezka, existentzialismo kezka... zu zara*». Eta aitortu nion.

◆
1964an asmatu
zuen Gabriel
Arestik *Otsalar*
eu nintzela. Nik
ez nuen aitortu»

◆
Poema batzuk, garai haietarako, oso aberkoiak ziren, oso konprometigarriak. *Euzko Gogoa*-n publikatu nuen lehendabizikoa «*Aberrimin*» izan zen, 1954ean: «*Aska-tasun bidea / gurutzez betea. // Ekaizpe batean / nire hartzaro: / mendietan anaiak / milaka herio. // —Amatxo, gizonak / guduka, zergatik? / —Herri baten arnasa / iraun nahirik. // Kixkaldurik zero eta lur. / Etsaiak oinperatu / euskal-ikur. // Espetxean odol, / atzerri itunak; / etorkizun uxatuak / darabiltz euskaldunak. // Lehenak irakatsi. / barnean txertua, / gaztediari ager / maita-sua. // Euskal gogoa / ez da hil! / sentz berria / ernai dabil. // Euskadiren izaera / bihotzean sumin. / Sendetsi gazteok, / herria esna dadin! // Askatasunez bidea / gurutzez betea, / Aberria, Aberria! / Tori nire bizia*».

Hau idatzi eta zelan emango nuen nire izena? Goitizenarekin hasi nintzen, eta segi.

«**Poeta bat agertzen zaigu» zioen, beraz, Arestik.**

Poesia aldizkari batean «poeta bat agertzen da» esaten badu, esanez bezala «besteak ez dira»... Erromantikoak eta liriko-lirikoak ziren *Olerti*-n agertzen ziren besteak. Hala ere, salbuespenen bat edo beste egingo nuke, bereziki,

Juan Inazio Goikoetxea *Gaztelu*-rekin. Hau behintzat gure olerkaririk bikainenetakoa da.

***Otsalar* «alperkerian eta pesimismoan» eroria ze-goela idatzi zenion Mitxelenari.**

Pesimismoarena, egia da. Eta bestetik, ezkutatu nahia dago. Baina nik nahiago nuke libreago egon izan banintz. Euskarak hainbeste premia izan ez balu, gehiago dedikatu-ko nintzatekeen literaturara. Eleberri bat egiten ere hasi nintzen, eta bertan behera utzi nuen. Euskaltzaindian idazkari hasi nintzenetik ez dut izan denborarik ezertarako.

Txabi Etxebarrietari idatzitako bertsoa ezaguna egin zen bere garaian.

Txabi Etxebarrieta hil zutenean, mezetan kantatzeko bertso bat egiteko eskatu zidan ETAKo batek. Eibarko karmeliten elizan abestu zuten: «*Gorde nahi dugu lehengoa, / Lege zaharrak hemengoa, / Euskal Herriak izango badu herri bezala geroa*». Arratsalde baten egin nuen. Iluntzean eskatu eta hurrengo egunean eman. «*Xabier zuen izena, / Egiaz -koa izana, / Oroit zaitezte anai guziok, Euskadigatik hil zena. // Benta Handiko hilketa, / Dago mendekuz beteta, / Erruki ga -be hil dutelako anai Etxebarrieta*». Bereterretxeko doinuarekin kantatzeko esan nion. «*Idea garbiz jantzia, / Eskaini zuen bizia: / Jaun zerukoak eman dagiola hemen ez den justizia. // Euskal semeok isilik, / Ez gero egin nigarririk, / Haren go -goa bizi den arte, esperantza du Euskadik*». Pentsa ezazu, honek kristorena armatu zuen! Gero, tarjeta batean edo erabili zuten, egilea nor zen adierazi gabe noski.

***Giro Gori*-n bildu dituzu orain aldizkarietan sakanbanatuta zenituen poemak. Zure lehen poema liburua da, azken batean.**

Hiru urte pasa ditu Felix Marañak liburu hau egin nahi zuela esan zidanetik eta eskuartean nituen lanak bukatzean hasi nintzen nire poemak batzen. Ez nuen uste hainbeste neuzkanik!

Maiteminezko batzuk badaude, gaztetako gauzak... Denak sartu ditugu, aukera egin gabe, zintzotasunez. Aldizkarietan argitaratutakoak dira gehienak, baina argitara-

tu gabe utzi nituen batzuk ere sartu ditugu: *h*-aren auzia zela eta idatzi nituen batzuk, esate baterako. Euskaltzaindiko idazkaria nintzelako ez nituen argitaratu, probokazioa zatekeelako.

ARTIKULUGILE JORIA

Euskaltzain zaren aldetik, *Euskera* agerkarian argitaratu dituzu zure lanetarik gehientsuenak. Baina hortik kanpo makina bat artikulu agertu duzu hango eta hemengo aldizkarietan. Aranzadi elkartearen *Munibe*-n, esate baterako.

Batez ere dolmenen aurkikuntzen ingurukoak eman ditut hor. Zaraian aurkitu nituen dolmenak lehendabizikoz eta, gero, ustekabeen leku askotan. Ernion, esate baterako.

Espeleologiaz ere zerbait argitaratu dut *Munibe*-n. San Martineko leizera egindako espedizioez bi lan egin nituen. Han guk aurkitu genuen leizearen jarraipena, 90 metroko eskalada egin eta gero! Leizea bukatutzat emana zuten frantsesek. Aurkitu genuen salari Aranzadi izena eman genion. 1960 inguruan edo lehentxoago izan zen hori.

Oviedoko Unibertsitateak ateratzen zuen *Espeleo*-n ere espeleologiako ikerketa batzuei buruz argitaratu nuen zerbait.

Barandiaranen *Eusko-Folklore* urtekarian ere egin zenuen lanik.

Barandiaranek hitzaldi bat eman zigun, eta gerra ondoko bigarren tomoa —1936an desagertu ostean 1955ean agertu zen berrito— artzaintzari buruz egin nahi zuela esan zigun. Zariaiko artzainekin egon nintzen, Barandiaranen inkestak egin nizekin, txabolen planoak egin, inguruak ere bai, argazkiak atera... eta lan bat egin nuen: «La vida pastoril en Zaraia». Gero beste lan batzuk egin nituen.

Jose Maria Satrustegik zuzendutako *Fontes Linguae Vasconum* eta *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkarietan zer lan plazaratu dituzu?

Lehendabiziko semeari Unai jarri nion izena baina Eibarko juez nafar batek ez zidan izena onartu nahi. Orduan

ikerketa egin nuen, Nafarroan Unai izena noiz eta nola agertzen zen, eta *Fontes*-en argitaratu. Oso gauza bitxiak aurkitu nituen: Xabierko San Frantziskoren iloba batek Unai zuen izena. XII. mendetik hasi eta azkena joan zen mendearen bukaeran Luzaiden aurkitu nuen, hau Satrustegiri esker. Epailearen aurrera joan nintzen lan argitaratuarekin eta Bilbon eta Bergaran Unai izena jarri berri zuten biren zertifikatuekin. Zertifikaturik ematen ez bazidan epaitegietara bera eramango nuela esan nion.

Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra-n Erronkariko kanten bilduma atera nuen. Inork baino gehiago aurkitu nituen! Azkue ibili zen han, eta beste batzuk ere bai gero, Mitxelena bera ere bai, baina ni kanten bila bakarrik joan nintzen. Eta antzeman nien batzuei bazutela zer ikusia Zuberoko kanta batzuekin. Beraz, horien sarrerako hitzak aipatzen nizkien eta beraiek ondotik bertso osoak kantatu.

Donostiako *Hoja del Lunes*-en luze aritu zinen, astero artikulua argitaratzen, frankismoaren azken urteetan eta trantsizioaren lehenengoetan. *Gogoz* (1978), *Bidez* (1981) eta *Landuz* (1983) liburuetan bildu dituzu artikulukoak.

Lehenengo hamabostean behin eta gero astero aritu nintzen, beti euskal kulturari buruz idazten 1971tik 1983ra arte. Hiru liburu horietan selekzio bat ageri da, ez artikulua guztiak. Azken-azkenak sartu gabe daude.

Gogoz egiten nuen, eta zuzendaria ere pozik zegoen, asko irakurtzen ziren eta. Euskal gairik ez zen ezer argitaratzen orduan, ez behintzat halako zabalkunde handikorik: astelehenetan ez zen beste prentsarik, egunkaria nahi zue-nak *Hoja del Lunes* baino ez zuen aukeran.

Diario Vasco-tik ere egin zidaten eskaintza: *Hoja del Lunes* uzteko eta beraiek gehiago ordainduko zidatela. *Hoja del Lunes*-ekin leial jarraitu nahi nuela erantzun nien orduan. Baina *Hoja del Lunes* itxi ondoren prest agertu nintzaienean, ez zuten nahi izan, askoz gutxiago eskaini zidaten. Aurreko eskaintza euren arteko gerragatik zela ohartu nintzen, nik konpetentzian ez idaztea nahi zuen *Diario Vasco*-k, berean idaztea baino gehiago.

Baina noizbehinka kolaboratu nuen bai *Diario Vasco*-n eta bai *La Voz de España*-n. Idazten hasi nintzen garaian lehiaketa bat bazen *La Voz*-en: «Narraciones de itinerarios». Artikulu argitaratua artikulu ordaindua, izaten zen. Selekzioa egiten zuten. Bidalitako guztiak argitaratzen zizkidaten, eta bidaltzeko eskatu ere egiten zidaten.

***Hoja del Lunes*-erako idaztean nola konpontzen zinen zentsurarekin?**

Zentsura norberaren buruari egiten zaio lehenengo. Zuzendariak babestu egiten ninduen gainera. Ez nuen politika gaiez idazten, kulturaz aritzen nintzen, eta horrela inork ezin zuen moztu. Tarteka, historiari buruzko zerbait, foruen arazoren bat, hurrengoan pertsonaiaren bat mendeurrena edo betetzen zenean... Gai desberdinekin jauzika.

Nik, gainera, gai politikoak beti saihestu ditut. Politikan beraiek egin dute nire kontra, baina nik ez dut politikarik egin. Orduan saihestu egiten nuen, eta orain gehiago.

***Egan*-en zuzendari izan zara urtetan, Koldo Mitxelenaekin elkarlanean.**

Lehendik ere asko kolaboratzen nuen eta, Irigarai hil zenean, Mitxelenak eskatuta hartu nuen zuzendaritza. 1983an hasita, 1989an Ararteko izendatu ninduten arte izan nintzen zuzendari, Mitxelenarekin batera. Baina bera Salamancan zegoen eta nik egiten nituen zuzendari lanak. Mitxelena beti informatzen nuen eta, zerbait argitaratu edo ez zalantza nuenean, beti kontsultatzen nion.

Egan-en kolaboratzen aspaldi hasi nintzen, 1959-60 inguru horretan, Mitxelena, Arrue eta Irigarai *Egan*-eko arduradun zirela. Literaturaren inguruko artikuluak idatzi izan ditut *Egan*-en gehienbat, eta euskararen kontuak, «Adabakiak» sailean. Ipuin edo narrazio batzuk idatzi nituen goitizenen batekin, eta poemak edo poesia komentarioak, *Otsalar* izenarekin.

Baina literatur kritika baino komentarioak idatzi izan ditut, kritika positiboak, nahi baduzu. Negatiboa egin baino nahiago dut ez egin. Sarri, liburu asko ez ditut aipatu ere egin, ez dudalako nahi izan, minik ez ematearren. Sarri egiten nuen erdi broman, umorez, zeharka zerbait kritika-

tu, zeren, gure literaturan, gauza asko pisudunak dira.

Gaur egun ere segitzen dut *Egan*-en idazten, batez ere «Adabakiak» sailean.

Joan Mari Torrealdai *Jakin*-en baino lehenago, zu hasi zinen euskarazko liburuen katalogoa egiten urtero.

Jose Artetxerengatik izan zen hasiera: Gipuzkoako Diputazioan bibliotekario zenez, urteko liburuen zerrenda eskatu zioten *Zeruko Argia*-tik, eta argitaratu. Liburuak falta zirela ohartu eta gutun bat idatzi nion, hau eta hau falta zirela esanez. Erdiak falta ziren! Hori ikusirik, hurrengo urtean ni hasi nintzen. *Zeruko Argia*-n hasi nintzen, ez naiz oroitzen noiz. *Zeruko Argia*-k, gerrondoko guztiak, Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekara eman nituen. Gero *Hoja del Lunes*-en egin nuen urte batzuetan. Jendeari irakurketarako materiala ematearren egiten nuen.

Poesian *Otsalar* ezizena erabili duzu. Zein goitizen baliatu dituzu artikulugintzan?

J. Egiguren eta *Egigurendarra* erabili izan nituen, *Egan* aldizkariko ipuin eta narrazioetan batez ere. Nire aitona *Egiguren* baserrian jaiotakoa zen eta gurasoak ere, *Egigurendarrak*. Eibarren *Eguren* esaten da, laburtuta, baina agerietan *Egiguren* agertzen da.

Mendiko gauzetan *Auñamendi* erabili nuen asko. Eta Eibarko Kirol Elkarteko aldizkarian goitizen asko erabiltzen nituen: *Kirolzale*, *Auñamendi*, *Giovanni*... Hauek *Eibar* aldizkarian ere erabili nituela uste dut.

Zeruko Argia eta besteetan normalki nire izenarekin sinatzen nuen.

LIBURUZ LIBURU

Aipa ditzagun zuk argitaratutako liburuetako batzuk. *Mogel. Bere bizitza eta lanak* (1959) izan zen lehenengoa.

Eibarko biltzarrean emandako hitzaldia zen. *Euskera*-n publikatu zen besteekin batera, baina liburu bezala argita-

◆
«Literatur
kritika
negatiboa egi
baino nahiago
dut ez egin»
◆

ratu nahi nuen, Eibarren zabaltzeko. Sarreratxo bat egin nion, bibliografia gehitu eta, nire poltsikotik ordainduta, 500-600 ale atera nituen. Itxaropenan argitaratu zen.

Zirikadak (1960) eta Eztenkadak (1965) etorri ziren gero.

Urruzunoren *Ipuiak* ezagutzen nuen, umorezkoak, oso politak. Jon Etxaidek ere badu, *Zirikadak* baino lehenagokoa, *Pernando Plaentxiarra*. Etxaidek umorezko bilduma egin behar zuela jakin nuenean, Eibar eta Plaentzia artean anekdota umoretsu asko direnez, gutunez bidali nizkion batzuk, gipuzkeraz. Eta berak zeuden bezala argitaratu zituen *Pernando Plaentxiarra* liburuaren amaieran, nik bidali nizkiola aitortuz.

Horrek animatu ninduen. Nik ere egin nezakeela hori pentsatu nuen, Eibarko euskaran gainera, horrela Eibarko jendea euskaraz irakurtzen jarriko bainuen. Historian lehenengo aldiz mila pertsonak euskaraz irakurri zuten Eibarren! Pertsonaia asko ezagunak ziren herrian eta barrez aritu zen jendea.

Berehalaxe etorri zitzaizkidan berriak kontatzen: «Hi, nirea ez duk sartu!», edo «ez dakit halakoa?»... Hortik, bigarren liburua: *Eztenkadak*.

Orixek berak kritika ona egin omen zion *Zirikadak* liburuari.

Karmel-en argitaratu zuen. Aita Onaindiarekin Eibarren topo egin eta Orixek nire liburuari buruz idatzi zuela esan zidanean, beldurtu egin nintzen. Eskuan zeraman *Karmel* atera berria eta, irakurri nuenean, harrituta! Oso ondo jartzen zuen: bizitasuna zuela eta abar. Gerora, Orixe ezagutu nuenean Lasartera bisitan joanda —Aranalde ilobarekin zegoen bera—, esan zidan inoiz ez zuela hainbeste barre egin liburu bat irakurtzen. Eibarko euskaran idazten segitzeko esan zidan.

Zentsurarekin arazoak izan zituen *Zirikadak* liburuak.

Pasadizo batzuk zentsuratu egin zizkidaten. Esate baterako, pilotari izan zen bat kartzelatik atera, joan frontoi-

ra eta, emozionatuta, begira eta begira ari da. Lagunak esaten dio: «Bueno, bueno, hau lehengo moduan dago». Eta berak: «Ez! Koadro bat gehiago». «Zelan? Lehen hamabi koadro zeuden eta orain ere hamabi daude!». «Eta han goikoa? Francoren koadroa!». Hori kendu arazi zidaten.

Beste bat ere bai. Eibartar batzuk atxilotu dituzte eta, «Zeintzuk dituk?», sozialistak batek, eta non ikusten duen atxilotuen artean Gonzalo Sarasua, abertzalea baina moderatua eta oso elizkoia. «Gureak egin dik! Apostoluak ere preso sartzen hasi dituk!». Hori ere zentsuratu egin zidaten.

Toribio Etxebarriaren *Ibiltarixanak* liburuan ere zati bat kendu zuen zentsurak. Gero, zati zentsuratua, *Egan*-en argitaratu nuen.

Nire beste liburuetan neuk egiten nuen zentsura! Ez zegoen beste erremediorik!

Segi dezagun zure liburuekin: *Escritores Euskericos* argitaratu zenuen 1968an, garai hartan asko hedatutako liburua.

Tirada handia izan zuen eta agortu egin zen, bai. Batetik, euskal idazleak zenbat zeuden eman nahi nuen aditzen erdaraz, eta gainera, denak ez zirela apezak adierazi. Argazkietan saiatu nintzen tranpatxo bat egiten, nahi baduzu: seglar gehienei argazkia eskatu, eta apaizei gutxiago. Idazle asko seglarrak zirela ikusten da liburuko argazkietan.

Bakoitzak zer liburu zituen, zer aldizkari-tan argitaratu zuen, zein goitizen erabili zituen, ikasketak, ogibidea... eta bukaeran euskarara itzulitako autore unibertsalen zerrenda zetorren, eta nork itzuli zituen.

Auñamendira eramanez nuen aurrena, baina lan handia zuela eta, presa nuenez, Retanari bidali nion: *Gran Enciclopedia Vasca*-n argitaratu zuen.

Euskal poesiaren antologia bat Katalunian argitaratzeko asmoarekin ibili zinen Bauça idazlearekin. 1964ean Mitxeleneri gutuna bidali zenion, antologia horretan zein sartu iritzia eskatuz eta zurea emanaz:

◆
«Zenbat idazi zeuden eta, gainera, dena ez zirela apez adierazi nahi nuen *Escritores Euskericos* liburuekin»
◆

«Onaindia eta Zaitegi baztertu? Ta, zergatik ez? iritzi orretakoa naiz. Gañera, ez tet nik baztertu bearrik. Seguru nago catalunyarrek baztertuko dituztela», idatzi zenuen.

Poeta berriak nahi baitzituzten Antologia horretarako. Baina azkenean ez zen atera. Eta Bauçak berak selekzionatutako lau poetekin antologia prestatu nuen honako, Kataluniarako egindako lanean oinarrituta. Auñamendira bidali nuen antologia, itzulpen eta guzti argitaratzeko. Lehenengo baietza eman zidaten, baina ikusi zutenean poemak gogortasuna, ez ziren ausartu. Aresti, Azurmendi, Mikel Lasa eta nire poemak ziren, Bauçak selekzionatuta. Hitzaurrea Oteizak egin zion, eta epilogo labur bat Blas de Oterok. Lastima izan zen ez argitaratzea, garai hartan kolpe ikaragarria izango zen eta.

Eta handik laster atera zenuen *Uhin Berri* (1969), poeta gazteen antologia.

Jimenez Martos poetak Espainiako literaturaren antologia bat ateratzen zuen, eta euskal poeta batzuen lanak bidaltzeko eskatu zuen. Bidali genituen, argitaratu zituen, eta hitzaurrean idatzi zuen euskal idazleak ordura arte beren munduan itxita egon zirela eta bazirudiela mundura irekitzen hasi zirela; harrituta geratu zela, eta horrelakoak. Hori izan zen nik *Uhin Berri*, euskal poeta gazteei buruzko antologia, egiteko motiboa.

Adin muga ipini nuen, 1930az geroztik jaiok —*Otsalar* kanpoan uzten nuen horrela—, eta poeta bakoitzari sarrreratxo bat eta fitxa bat egin nion. Hor ikusten zen bata zegoela Friburgon (Ramon Saizarbitoria), bestea Erroman (Juan Mari Lekuona), bestea Alemaniako Munster-en (Joxe Azurmendi), bestea Belgikan (Mikel Lasa), Parisen (Txato Agirre)... eta Ibon Sarasola hemen zegoela uste dut. Orain nork esan behar du euskal idazleak itxita gaudela? Efekto hori eman nahi nuen, momentuko poesiaren antologia egiteaz gain, noski.

Handik bi urtera prosa lanen bilduma argitaratu zenuen: *Hegatsez* (1971). Zerk bultzatuta?

Euskaraz orotariko gaien gainean idatz zitekeela erakutsi nahi nuen, euskaraz Elizako liburuak baino ez zeude-

la eta horrelakoak entzuten bainituen maiz. Momentuko idazleak ezagutzen nituenez, zerrenda egin eta artikulu bana eskatu nien, gai jakin bati buruz batzuei, nahi zuten gaia hartuta beste batzuei, eta lehendik argitaratutako artikuluren bat beste batzuei.

Nire inizatiba izan zen, eta Serafin Basaurik lagundu zidan behar bezala osatzen. Orduan prosan idazten zuen jende guztia agertu zen hor: Akesolo, Altuna, Txillardegia, Rikardo Arregi, Amatiño, Urruzuno, Aresti, Julene Azpeitia, Mari Karmen Garmendia, Bozas Urrutia, Gereño, Hari-txelhar, Intxausti, Irigarai, Lafitte, Kintana, Izeta, Landart, Laspiur, Lekuona, Letamendia, Lete, Lizundia, Minaberri, Mirande, Santi Onaindia...

Itxaropenan argitaratu zen, «Kulixka» sortan.

Tartean ikerketa eta bilduma-liburu ugari atera dituzu, eta orain dela gutxi, 1998. urtean, *Euskararen ostarteak*.

Horrelako lanak premiazko ikusten ditudalako argitaratu dut, euskararen defentsan huts handi bat dugulako informazioaren aldetik.

Erdia, «Euskararen inguruan» izeneko zatia, 1969koa da. Lur-en antologia batean publikatu zidaten: *Euskal Eler-ti 69*. Baina lapurtu egin zidaten: nire zirriborroa Arestiren eskutik heldu zitzaien, eta nik zuzenketarik egin gabe atera zuten. Orain konpondu, zuzendu eta falta diren zatiak gehituz atera dut. Orain idatzi dudan zatietako batean, «Euskararen Ostarteak», euskaltzale izatera zerk eraman ninduen azaltzen dut. «Euskararen alde onak eta txarrak» ere berria da.

Zure azken lana Hondarribiko parrokiaren ikerketa da, aurten argitaratua.

Inprimatu berria da. Erdaraz egin dut originala, dokumentuak gazteleraz bainituen % 80tik gora. Diputazioan itzuli egin dute euskarara, eta bietara argitaratu da.

Besteak beste, XII. mendeko arkibolta erromaniko baten zatia aurkitu dut Elizaren oinarrietan. XII. mendeko elizaren agiriak ere aurkitu ditut. Oraingo eliza gotikoa da, lehengoa bota eta gotikoa egin baitzuten.

KANPAINA BULTZATZAILE EUSKALTZAINDIAN

Egin dezagun atzera denboran, Euskaltzaindira hurbildu zinen garaira. 1956an Eibarko hitz teknikoen bilduma osatu eta Akademiara bidali zenuen. Hori izan zen lehen harremana?

Ezagutzen nituen euskaltzain batzuk, baina ez nuen harreman handirik. Gerraurretik zetozenen lanak irakurtzen nituen, baina besterik ez.

Lantegian atentzioa ematen zidaten hitzak bildu nituen, zerrenda egin eta erabilerari buruzko azalpen bana idatzi nien, testuingurua ipiniz. *Eusker*a aldizkarian argitaratu zen. Handik laster, 1957an, urgazle izendatu ninduten.

Ondoren etorri ziren Mogeli buruzko biltzarra, bertso-lari txapelketa... eta Euskaltzaindikoko batzarretara joaten hasi nintzen. Ez beti, noizik eta behin bakarrik, batzarrera joateko lana galdu behar zenuen eta.

«Euskaltzaindiaren Lagunak» kanpainaren bultzatzaile izan zinen.

Urgazle nintzen garaian izan zen. Euskaltzaindia diruz gaizki zebilen, *Eusker*a argitaratzeko ere dirurik ez zegoen. Bizkaiko Diputazioak miseria bat ematen zuen, eta bestetan ate joka ibili behar. Gerraurrean egin zen «Euskaltzaindiaren Lagunak» izeneko kanpaina, enpresarioei eta dirua zeukan jendeari dirua eskatzeko, eta haren moduko kanpaina egitea pentsatu nuen, izen berarekin, 1959. urtean. Ekintza honen zenbait xehetasun eman nuen Josu Oregiri egin nion hilberrikoan (ikus *Eusker*a, XL, 1995, 1155. or.).

Euskaltzale jendearekin harremanetan jarri nintzen. Donostian Jon Etxaideren esku utzi nuen eta Iruñean Diez de Ulzurrunen esku. Bilbon ez genuen konfiantzako inor. Nik Eibarren ezagutzen nituen enpresario euskaltzaleak eta Eibartik kanpo ere bai, inportazioko makinaria salduz egiten bainuen lan. Laguntzaile izateko gutxienez mila pezeta eman behar ziren urtean, baina batzuek gehiago ematen zuten. Gehiena Bergarako Josu Oregik: 5.000 pezeta. *Eusker*a argitaratzeko eta hileroko batzarretara joaten zirenen bazkariak ordaintzeko adina bildu genuenean, gelditu egin ginen.

Baina kanpaina zela eta ni batetik bestera ibili nintzen batzarrak eginez, eta nire jarraika hasi zen Goardia Zibila. Telefonoa kontrolatua neukan. Eta gerora, orain gutxi arte!, arazoak izan ditut horregatik: Carrero Blanco hil zutenean pasaportea baliogabetu zidaten, Hondarribian etxea miatu zidaten goardia zibilek Aberri Egun batean, pintxa-
zoak kotxean ez dakit zenbat aldiz... Kotxea-
ri gurpil bat kendu eta itsasora bota zuten batean, goardia zibilak horrelakoak egiten ari ziren susmoa zutela esan zidan Hondarribiko alkateak eta, orduan gobernadore zen Julen Elgorriaga ezaguna nuenez, haren-gana jo nuen. Ahal zuena egingo zuela esan zidan, eta ge-roztik ez dut arazorik izan. Horrek erakusten du goardia zi-bilak zirela niri arazoak sortzen zizkidatenak. Demokra-zian! Eta hori guztia, «Euskaltzaindiaren Lagunak» mugi-mendua sortu nuelako.

◆
«Euskaltzaindiaren
Lagunak kanpai
zela eta nire
jarraika hasi zen
Goardia Zibila»
◆

Azkue, 1951n hila, ez zenuen ezagutu. Urgazle zine-la Ignacio Maria Etxaide zen euskaltzainburu. 1964an izendatu zintuzten euskaltzain oso, Lojendio buru zen garaian.

Lojendiok denbora gutxi iraun zuen...

1963tik 1966ra izan omen zen euskaltzainburu, baina batzar agirietan begiratu eta 1965eko batzarreta-koak jada ez ditu euskaltzainburuak sinatzen, orde ba-tek baizik: Irigarai batzuetan, Dassance bestetan... hu-tsune bat egon zela dirudi.

Lojendio izendatu zutenean, politikarekin-edo nahas-teren bat izan zen.

Gipuzkoako gobernadorea etxera joan zitzaion Lojen-diori, esanez kontuz ibiltzeko Bilbon Euskaltzaindian kola-boratzen hasi zirenekin, abertzaleak zirela eta politika egi-ten zutela. Antzerkia egiten zuen talde bat zen, Ziarzolo idazlea, Arruza eta. Fitxatuta zeuden. Eta itxuraz, governa-doreak esan zion nork eman zion talde horren berri: Anto-nio Arruek. Urduri jarri zen Lojendio, beldurto, eta utzi egin zuen. Eten egin zuen Arruerekin ere.

Ni handik gutxira idazkari izendatu nindutelarik, arazoren bat edo zegoenean Arruerengana jotzen nuen. Información y Turismo eta Gobernu Zibilean bazituen ezagunak. Berak eskertu egiten zuen berarekin konfiantza hori jartzea, eta nik administrazioarekin nituen arazo guztietan berarengana jotzen nuen, Elizaren gauzetan Carlos Santamariarengana jotzen nuen bezala.

Lojendiok utzi egingo zuela esan zuenean, guk segitzeko eskatu genion, berarekin konfiantza genuela eta bera bezalako bat behar genuela aurrera egin ahal izateko. Berak aldaba onak baitzituen. Anaia bat zeukan enbaxadore Kuban, beste bat benediktinoen buru Valle de los Caídosen, Madrilen, eta beste anaia bat ere bazuen kargu on batekin, ondo kokatua. Anaaien artean bera zen abertzale bakarra, abertzale moderatua.

Baina itxi zen: ezetz eta ezetz. Orduan, batzuek pentsatu genuen Manuel Lekuona izan zitekeela egokia: konfiantzako pertsona, ondo ikusia izango zena. Manuel Lekuona euskaltzainburu aukeratzearekin batera izendatu ninduten ni idazkari 1966ko abenduko batzarrean. Ni Euskaltzaindian sartu nintzenean Nazario Oleaga zen idazkari, eta hura hiltzerakoan, Mitxelena. Nik Mitxelena ordezkatu nuen.

Arantzazuko batzarra baino lehenxeago hasi eta hurrengo urteetan bultzatu zituen Euskaltzaindiak alfabetatze kanpainak. Kanpainaren jatorrian egon zinen?

Rikardo Arregik ekarri zuen ideia Euskaltzaindira: prentsan ere argitaratu zuen, ideia ona iruditu zitzaigun batzuei eta gure artean bolo-bolo zebilen. Egun batean Andoainen egon nintzen Rikardo Arregirekin, eta plana egin genuen. Lasa, Saizarbitoria eta laurok, oker ez banago, sinatu genuen Euskaltzaindiari aurkeztutako eskaria. Irakurri nuen batzarrean eta onartu zen aurrera eramatea. Horrela hasi zen.

Bizkaiari begira, besterik gabe euskara batua sartzea ez zela erraza ikusten genuen, eta lehenengo bizkaieran alfabetatzea eta ondoren batua azaltzea hobe zela pentsatu genuen. Horretarako, bailaraz bailara autoreak aukeratu genituen. Arauekin batera, zein bailaratan zein autore erabili behar ziren oinarri eman genuen: Markina aldean eta gure aldean, esate baterako, Mogel eta Fray Bartolome, Duran-

galdean Kirikiño, Arratia aldean Legoaldi (A. Larrakoetxea) eta Añibarro...

Euskaltzaindiak hori gomendatu zuen, baina Bizkaian alfabetatzearen ardura hartu zutenek, Julen Kalzada, Alberto Gabika eta hauek, hain abertzale zirenez, batura kolpetik joan behar zela zioten. Gure proposamena denbora galtzea omen zen. Gerrak izan ditugu eurekin, Euskaltzaindiak ez baitu hori gomendatu.

Bestelako arazo bat ere sortu zen, Gipuzkoako leku askotan batez ere. 1969an batu behar izan genuen Mondragoen, alfabetatze kanpainaren barruan batzuek euskarara itzultitako testu marxistak erabiltzen zituztelako oinarri. Beste batzuk kexu ziren.

Euskaltzaindiaren izenean esan nien testuak euskal idazle ezagunenak behar zutela, analisisa hizkuntzari eginen zitzaiola eta ez beste ezeri. Euskal idazleen artean mezezi zuenik ez zegoela, kultura ere egin behar zela eta abar erantzun zidaten. «Kultura egin behar baduzue», esan nien, «egizue Euskaltzainditik aparte. Euskaltzaindiak hizkuntza bakarrik du berea». Leninen testuak errusiera ikas-teko ere ez direla erabiltzen esan nien; horretarako ere idazle klasikoak baliatzen dituztela, Tolstoi eta abar.

ARANTZAZUKO BILTZAR ARANTZATSUA

Arantzazuko bidean Baionan bilera egin zen 1964an Euskal Idazkaritzak antolatuta. Euskara batua-ren bidean zenbait erabaki hartu ziren, gero Arantzazun oinarritzat hartu zirenak. Han zinen?

Han eman zidaten, hain zuzen, Lauaxeta kazetaritza saria, baina ez nintzen bertan egon. Ez zitzaidan komeni, Euskaltzaindiko idazkari gisa, hango batzarretan agertzerik.

Baina Ermukoan bai, 1968an. Ponentzia bat egin zenuen gainera euskal idazleen elkarte sortzea proposatuz. Baionakoa eta Ermukoa, biak, Arantzazukoaren abiapuntu izan ziren, ezta?

Lagungarri izan ziren bakoitzari entzun, irizpideak ezagutu, eta jarrera bat hartzeko. Eta Mitxelena batek, esa-

te baterako, kontuan izan zituen Baionako erabakiak, Arantzazurako txostena egiterakoan. Ermuko proposamenak, hain zuzen, *Jakin*-en argitaratu ziren.

Hurbiletik ezagutu zenuen Mitxelenak Arantzazuko batzarrean aurkeztu zuen txostenaren lantzea, eus-kara batuaren ortografiarako oinarriak ezarri zituena.

Arantzazuko batzarrari begira, batzorde bat izendatu zen arantzatsuena izan zitekeen arazoari buruz, ortografiari buruz, proposamena egiteko. Manuel Lekuonak berak eskatu zuen Mitxelena jartzea batzordearen buru, eta euskaltzain zuhurrenak izendatu ziren batzordeko kide. Batzordearen bilerak irekiak ziren; euskaltzainen batek entzule gisa etorri nahi bazuen, etortzen zen. Jon Oñatibia eta Patxi Altuna etortzen zirela gogoan dut. Nik, idazkari gisa, akta jaso besterik ez nuen egiten, ez ahots ez boto ez nuen, ni ez bainintzen inor Mitxelena eta beste batzuen aldean.

H-a zen auzi nagusia, eta han ateratzen ziren iritzi eta arazo guztiak, aldeko eta kontrako, apuntatzen zituen Mitxelenak. Han esandakoak kontuan hartuta, Mitxelenak berak egin zuen Arantzazurako txostena. Bere esku utzi zen, eta batzuk hitza eman genion berak esaten zuena esaten zuela, guk bide horri jarraituko geniola. Jarrera bat hartu beharra zegoen.

Arantzazura joan aurretik anonimo bat jaso genuen euskaltzainok, *h*-aren aurka botatzeko eskatuz. Espelikaziorik gabe, laburki idatzita. Eta Arantzazuko batzarra hasi baino lehen Josu Arenaza etorri zitzaidan, ea papera sinatu nuen galdetuz. «Zu zara hauek zabaldu dituen? Isil zaitez, zuk ez duzu botorik, urgazle besterik ez zara eta», esan nion. Beti horrelakoetan ibili zen Arenaza medikua, *Agur* aldizkarikoa, *h*-aren etsai borrokatua.

Nik, orduan, batzarra hasi aurretik, euskaltzainburuari hitza eskatu ondoren, Euskaltzaindiaren arautegiaren zati bat irakurriz argi utzi nuen iritzia denei entzungo zitzaiela, baina erabakia hartzeko orduan botoa euskaltzain osoek baino ez zutela. Hori horrela esatea ez zitzaien euskaltzain batzuei gustatu, bakea berez egingo balitz bezala dena baketsu egin nahi baitzuten, baina legea legea da, eta

hori argi utzi nahi nuen. Hori horrela egin nahi nuen, bezperan Arenaza etorri zitzaidalako boto eske.

Txostena hartu zuenean, Altunak galdetzen zidan ea txostena, osorik, Mitxelenak berak egina zen. Hasieran ez zegoen *h*-aren alde, baina Patxi Altuna filologo bezala asko irakurria da eta euskal filologia ondo ezagutzen duena. Oso zuhurra. Eta azken egunean, batari entzun eta besteari entzun, azken egunean denei entzun behar izan baikeenien, astakeriak ere bai, Patxik eskatu zuen hitza. Ordura arte isilik egon zen, eta ez genekien zer jarrera hartuko zuen. Hasi zen hizketan, sermoilari onaren gisan, eta Mitxelenak niri, aldamenetik: «Nora doa hau?». «Honek zeruan jarriko zaitu», esan nion. Eta hala gertatu zen: «Hemen gizon bat dugu euskalki guztiak gu baino hobeto ezagutzen dituen, eta linguistika legeak zein diren ongien dakiena. Mitxelenak esaten duenari jarraitu behar diogu». Patxi Altunaren hitzaldia oso ona izan zen; batzuentzat atsekabea.

Mitxelenaren hitzaldiaren ondoren denek izan zuten hitz egiteko aukera. Denei entzun zitzaien. Mitxelenak erantzunak eman zizkion bakoitzari, azalpenak emanaz. Argumentu gogorak izan zituen aspektu guztietan. Eta horrek ekarri zuen txostena denek aho batez onartzea.

***H*-aren auzian erdibide bat proposatu zenuten azken agirian. Minimo batzuk jarri eta «gorago joatea» gaizki ez zela ikusiko esanez.**

Gomendioa zen. Bokalen artekoa eta demostratiboa ikusten ziren beharrezko, eta hortik aurrera joan nahi zuenari, libre zitzaion. Baina hartu kontuan 1920. urtean hartu ziren erabakietan, euskal alfabetoan, *h*-a han dagoela. Noski, orduan pentsatzen zen *h*-a mugaz haraindikoentzat zela. Gero, konturatzen dira asko mugaz hemendik ere, fosilizatuta, hortxe dagoela *h*-a: *kan*, *kori*, *kura* esaten zuten Erronkarin, edo *gan*, *gori*, *gura* Zaraitzun, esate baterako. Eta Plazentzia batean *bigar* esaten dute, eta *guk*, Eibarren, *ago*, *legor*.



«Arantzazun on
bukatu ziren
gauzak; arazoak
handik hiru bat
hilabetera hasi
ziren»



◆
«Manuel
Lekuonak
borondate on
guztiarekin jokatu
zuen, baina
presioak zituen»

◆ **Biltzarraren hasieran esan zen Arantzasun erabakien aurrerapen bat emango zela, eta gero Oñatin urrezko eztaien ospakizunetan erabakitza hartuko zirela. Baina gero Oñatin ez zenuten ospakizunik egin.**

◆ Arantzazuko batzarra egin eta azken egunean Oñatiko Unibertsitatean, Euskaltzaindia sortu zen tokian, adierazpen ofiziala eman nahi genuen. Baina etorri zen alkattea, Reyes Korkostegi, esanez gobernadorearen aginduz ekitaldi publiko hori ezin zela egin. Orduan, Arantzazun ahoz eman zen erabakiaren berri.

Arantzazun, azken batean, ondo bukatu ziren gauzak. Denek onartu zuten. Arazoak Arantzazukoa egin eta hiru bat hilabetera hasi ziren. Hurrengo bi hilabeteetako batzarretan ondo joan ziren gauzak, baina hirugarrenean hasi ziren tiki-mikiak, eta dena zen presioak hasi zirelako.

Pena daukat Arantzazun bururatu ez izana akta hura euskaltzain guztiei sinaraztea. Denek izenpetuko zuten. Bergaran, hamar urte geroago, horrela egin genuen.

Arantzazun aho batez onartu zenuten euskaltzainek Mitxelenaren txostena, baina gero ikusi zen, Martin Ugaldek *Zeruko Argia*-n argitaratu zituen elkarrizketetan ongi ikus daiteke, Lekuona bat, Intza bat... ez zetozeela bat. Lekuona euskaltzainburuak zioen, Ugaldek egindako elkarrizketan, Euskaltzaindiak neutral jokatu behar zuela, ez *h*-ren alde, ez kontra. Eta berak gabe idazten segituko zuela.

Berak borondate on guztiarekin egin zuen, baina presioak zituen. Nik konprenitzen dut hori. Bere adinekoak ziren kontra zeudenak. Adin kontua ere bazen.

Lekuona, Joseba eta Rikardo Arregiren etxean bizi zen Andoainen, eta Arregitarrek esaten zidaten presio handiak zituela Lekuonak, eta zerbait egiteko. Nik zer egingo nuen? Lehen konfiantza handia zuen nirekin, baina presioengatik-edo zalantzak izaten eta konfiantza galtzen hasi zen.

Gehien tentatu zutenen artean Anizeto Zugasti zegoen. Horiek astero-astero joaten ziren ostegunetan Andoainera eta ikaragarritzko gerra ematen zioten. Ni Lekuonarekin egon nintzen eta esaten zidan bakebide bat aurkitu behar zela, zeozer egin behar zela... zalantzak zituen. Mitxelenari konfiantza eman geniola, bide bat hartu beharra zegoela eta bide horretan segitzeko esaten nion.

Hor atzetik zein zebilen banekien. Josu Arenaza bezala beste batzuk ere bai. Juanito Beiztegi eibartarra ere bazebilen. Ordura arte oso lagun nuen Nemesio Etxaniz —pikka bat arina zen— ere jarrera gogorrean jarri zen. Ordura arte oso mutil ona nintzen Nemesioentzat, eta gero txarra.

Eta Arenazak ikaragarriak idatzi zituen *Agur*-en, lehenengo orrian, errua niri botatzen, nire izena aipatuz.

Martin Ugaldereen elkarrizketazko artikulu horiek interesgarriak izan ziren bakoitzaren iritziak ezagutzeko. Argi asko eman zuten eta horietako bat da, ordura arte zalantzak zituen Ugalde bera, batari eta besteari entzun ondorenean, *h*-rekin idazten hasi zen.

Aktetan agertzen denez 1970ean hasi ziren iskanbilak indar handiz. 1970ean urtarrilaren 30ean agertzen da Lekuona esaten, zuk idazkari gisa jaso zenuenez, «Euskaltzaindiak neutral izan behar duela, Mitxelenaren iritziaz gainera beste iritzi gehiago ere entzun beharra zegoela. Batasunak oinarri zabala eta denbora eskatzen dituela eta abar».

Durangoko feria zela eta egin zen Abadiñon batzar bat, Astola etxean, eta inori aurretik ezer esan gabe Lekuonak proposamen bat zekarren: Arantzazuko akordioak berriro aztertzeko batzorde bat izendatzea, eta Mitxelena batzordetik kanpo.

Nik erantzun nion Mitxelenari babesa ukatzen bage-nion nik dimititu egingo nuela. Gainera, pasatua zen kargu aldaketak egiteko epea. Urte bitik behin egiten da eta atzeratu egin zen, intentzioarekin nonbait. Handik hilabete batzuetara, karguak berritzen ez zirela ikusita, dimisioa aurkeztu eta batzarretara joateari utzi egin nion. Hiru hilabeteetan edo ez nintzen joan.

Akta bereko beste zati bat: «*Idazkariak aditzera ematen du euskaltzain laguntzaile baten denuntzia bat dagoela euskaltzaindikoen artean zabaltzen diren zenbait anonimori buruz, baina euskaltzainburuak nahia go du ixilik utzi eskandaluak sortuko diren beldurrez. Idazkariak dio, besterik ezik, euskaltzainak bakarrik bildurik, baina gauza hau ondo aztertu beharrezkoa dela, batez ere sospetxaz Euskaltzaindiko batzuen izenak ahotan erabili direnez gero*».

Josu Arenaza, berriro. Euskaltzaindian bazen urgazle bat, Xabier Gereño, anonimoak jaso eta sailkatzen zituen. Afizio hori zuen. Idazmakinarene letra tipoagatik, neuropsychiatik... sailkatzen zituen. Bidali nion Gereñori mehatxuak egiten zituen anonimo bat, eta berak ondorioa ateratu zuen Arenazarena zela, Arenazak sinadura eta guzti makina berean egindako gutun bat zuelako. Anonimoa Euskaltzaindiaren artxiboan dago.

Politika nahastaten zuten anonimo horietan: gorriak ginela. Lehen aingeru bat nintzen, eta deabrua bihurtu nintzen, komunista.

Baina Josu Arenaza batek pisu handia al zuen auzi honetan?

Ez zeukan hainbeste pisu, ez zeukalako ideiarik ere hizkuntzen kontuetan. Baina maniobrak egiteko gaitasuna bazuen, azpitik lana egiteko eta endredatzeko. Bazituen inkondizionalak, problemak sortu zituztenak.

Arenazak Alderdiaren izenean egiten zituen maniobrak, baina nik banekien Alderdian ez zegoela berak uste zuen bezain ondo ikusia.

Eta orain Arenaza non dago? HB inguruan, lehen hirik nahi ez zuena.

1973an Jose Estornesek, 11 editorialen izenean (Agur, Añamendi, Auspoa, San Anton, Edili, Goiz Argi, GEV, Itxaropena, Lopez Mendizabal, Ekin), eskaera hau egin zion Euskaltzaindiari: «*Nahasketa sortu dela eta Arantzazu aurreko ortografia erabiltzea erabaki eta Euskaltzaindiari aurreko bidea indartu eta berresteko eskatzen die*». Editorial horiek Arantzazu aurreko ortografia

erabiliko zutela jakinarazi zuten gutun hartan. Villasantek, Lizundiak eta hiruok erantzun bana eman zenieten. Zure erantzunean agertzen da liburugintzan Arantzazuko irizpideek bidea egin zutela: 1968an 34 liburu *h*-rik gabe, 6 *h*-rekin; 1972an 17 gabe eta 39 *h*-rekin.

Editorea ez baita egilea. Egileak du hitza, ez editoreak. Gero Bergaran ikusi zen estatistikek zer eman zuten. Siadecori eskatu genion liburu guztiak aztertzeko. Diferentzia izugarria ikusi zen *h*-a erabiltzen zuten eta erabiltzen ez zuten liburu kopuruaren artean.

Euskaltzaindiak esan izan balu *h*-a baztertu egin behar zela, egon zaitez seguru gehiengoak Euskaltzaindiaren bideari jarraituko ziola. Azken batean, maisu-maistrak eta idazleak irizpide bati jaramon egin eta jarraitzeko zain zeuden.

1970ean, Villasante euskaltzainburu aukeratzearekin batera, zu idazkari berriro.

Nik idatzi nion Villasanteri ez nintzela idazkari izango. Ez zitzaidala ondo iruditzen, Manuel Lekuonarekin egon nintzenez idazkari, berriro nik jarraitzea hura kendu eta gero. Baina Villasantek eta Mitxelenak presio egin zidaten: egoera txarra zela, konfiantza zutela nirekin... Ez nuen nahi baina jarraitu nuen.

1978an Bergaran egindako batzarrak Arantzazukoaren antza handirik ez zuen izan, ezta?

Han ere agertu ziren batuaren kontrakoak, gogor. Baina indar gutxiagorekin eta argumentu txarragoekin. Geratzen zen estatistikek pisu ikaragarria izan zutela. Bergaran, datu estatistikoekin, isildu egin zen *h*-aren auzia.

Euskalkiak bazter batera gelditu ziren kezka agertzen zutenek, gaur egundik begiratuta, arrazoi puntua bazutela uste duzu?

Konprenitzen dut herri bakoitzak bere gauzak maite izatea. Baina munduko hizkuntza guztiek egin duten gauza bat da hori. Grezian *koiné* erabiltzen zuten, eta Espainian bertan estatua indartzeko, hori egin da. Ni seguru na-

go Picos de European mendialdean bizi den bat hitzez ezin dela komunikatu Granadako Alpujarrako batekin. Elkar ulertu ezinez!

Euskalki bakoitzak baturako eskaini behar du beretik datozen gauzarik garrantzitsuenak. Orain hasi da berriro euskalkiei balioa eman nahirik: balio lokala dute, baina batasunerako lehen pausotzat hartu behar da. Batasuna beharrezkoa da, edo bestela hizkuntzak ez du etorkizunik. Eta batzuetan euskalkiari merezi duen baino garrantzi gehiago ematen ari gara.

POLITIKAREN GURPILEAN

Ramon Rubial presidente izan zuen Euskal Kontseilu Nagusian (1978-79) kargu politiko bat izan zenuen, Maturana Kultur kontseilari sozialistarekin.

Maturanak, nonbait, euskal kulturaren aditua zen nonbait eskatu zion ESEIri, itun autonomikoa baitzegoen orduan PSOE, EAJ eta ESEIren artean, eta ESEIk niri deitu zidan, orduan alderdi horretako kide bainintzen.

Besteak beste, Picassoren *Guernica* ekartzeko gestioa egin nuen garai hartan, eta eskuetan jarri nien, aukera ikaragarria, baina ez zuten nahi izan. «Hori ez da artea», esaten zidaten. Eta orain hor dabilta ekarri nahirik.

Gero ESEI desegin zen eta utzi nuen. Ez naiz geroztik alderdi politiko bateko kide izan. Proposamena izan nuen EAJtik Diputazioan Kultura zuzendaritzarako, baina karnera ateratzeko baldintza jarri zidaten, eta ezetz esan nuen, nire burua ez nuen inongo alderdian ikusten, hizkuntzaren alde gehiago egin nezakeen ustez.

1989tik 1995era arte Euskal Autonomi Erkidegoko Ararteko izan zinen. Urte garrantzitsuak izan al ziren zure bizitzan?

Inportanteak izan dira humanismo aldera izan dudana joeragatik. Alde horregatik oso gauza politikak egitea egokitu zait eta poz handia eraman dut. Baina politikak desengainu handia eman dit. Esan bati gauza bat, eta belarri batetik sartu eta beste batetik irten. Hori askotan, eta kolore

guztietako politikoeekin. Txarrenak, txantajea eginez, ETA-ren eta HBren ingurukoak izan dira, baina boto gehien dituzten alderdiek ere presio handia egin didate, eta ezikusiarena egin, sarri. Esatekoak ere ez dira EAJkoek eta PSOEkoek egin dizkidatenak.

Aspaldi esaten nuen denok dugula neurri batean frankismoaren ukitua. Denok diktadore txiki bihurtu garela. Sentsasio hori baneukan lehendik, baina hor egon naizenean gehiago ikusi dut. Oso itxia dago jendea, bakoitza bere taldean.

Oso esperientzia ona izan zen, aldiz, Europako Ombudsmanekin izandakoa. Lehenengo lehendakariorde egin ninduten. Bi aldiz joan nintzen hara, lanerako antolaketaz proposamen batzuk egin nituen eta, kargu aldaketak egon zirenean, nik espero gabe buru izendatu ninduten. Ombudsman gehienak humanistak izanik, ideiatan hurbil geunden, eta oso probetxugarria zen beste lekuetan nola funtzionatzen zuten, zer arazo zituzten eta zertan lagundu genezakeen ikusteko.

◆
«Politikak
desengainu
handia eman
Arartekotzan
aritu naizen
urteetan»



ADISKIDE ETA LANKIDE

Azal ezazu, bukatzeko, hurbiletik ezagutu dituzun pertsonalitate hauen nortasunean eta lanean zer nabarmenduko zenukeen: Jose Migel Barandiaran.

Gure kulturaren gizon jakitun bat, batez ere arkeologian eta etnografian. Baina niretzako ustekabea Barandiaranen humanismoa izan zen: humanismo aldetik, pertsona bezala, gehiago baliatu nuen. Nik erlijio kezka izan ditut, *Giro Gori*-ko poemetan ikusten da hori, eta berari planteatzen nizkionean, esaten zidan: «Hori ona da: nahiago ditut nik horrelakoak, egunero mezetara joan baina pentsatzen ez dutenak baino. Kezka hori da inportantea. Nik ere badi-tut nire zalantzak. Fedea daukat, baina zalantzak ditut. Zuk zalantzak edukitzea? Hori inportantea da».

Oso lagunak ginen. Urtero bisita bat egiten nion Ataunera, inork bisitatzen ez zuen garaian. Berarekin baz-

kaltzen nuen eta behar nituen datuak, erreferentziak, iturriak... ematen zizkidan. Arkeologian laguntzaile ere ibili nintzen, indusketak egiten.

Baina batik bat humanismo aldetik estimatu nuen. Gizontasuna ikusi nuen beregan. Gizontasuna jakiturgia baino lehenago behar da.

Koldo Mitxelena.

Jenio bizia zuen. Nirekin oso ondo eraman zen. Goitik behera errespetatzen nuen hizkuntza kontuetan. Ikargaria zen, sinestezina, zer irakurtzen zuen eta zer memoria zuen!

Uste dut teknikoki ondo eraman zuela *h*-aren kontua eta ortografiarena, baina baita ere beti esan dut han eman bazen *h*-a baztertzea, gaur denek normal idatziko genuen *h*-a baztertuta. Duden aurrean bidea markatu zuen Mitxelenak. Gu Mitxelenak esaten zuenari lotu ginen eta hortik atera zen.

Manuel Lekuona.

Oso pertsona ona, ez ausarta, eta horrek ekarri zion problema batasunaren kontuan. Jakituna literaturan, baina baita artean eta historian ere. «Del Oiarzun antiguo» irakurri besterik ez dago. Egin dituen lanak asko baliatzen ditut. Lan baliosoak egin ditu.

Batasunaren inguruko eztabaidak zirela eta distantzia bat etorri zen, baina gero denborarekin berriro harreman ona izan genuen, eta gaisotu zenean maiz bisitatu nuen.

Jon Etxaide.

Jon Etxaidek literaturan pauso berriak eman ditu, euskal literatura beste maila batera eramanez, gai historikoe-tara eramanez, pertsonaia batzuetan zentratu-rik eginez. Oso lan ederra, asko irakurria euskal literaturan.

Nik beti berarekin harreman ona izan dut. Mendian asko ibili ginen elkarrekin eta esperientzia horrek asko hurbiltzen zaitu. Pertsona ona izan da, bere zirkunstantziagatik sufritu behar izan duena, aguantatu behar izan diona erregimenari, baina niretzako oso pertsona inportantea. Gainera, maitakorra.

Beti eramaten zuen libururen bat, nik ere bai, eta askotan ematen zizkidan liburuen erreferentziak eta datuak irakurketetarako.

Jokin Zaitegi.

Idaztera bultzatu ninduen.

Euzko Gogoa aldizkaria ondo orientatu zuen, gai politikoak alde batera utziz eta kultura gaiak bakarrik landuz. Guatelamalatik Miarrizera etorri zenez geroztik, joaten nintzen ahal nuenean batzarrera. Etxaide joaten zen mai-zago, eta Etxaidek ezin zuenean ni joaten nintzen batzuetan, harremanak edukitzeko, hemen Hegoaldean oso isolatuta baikeunden. Garai hartan exilioan jende gehiago zegoen euskararekin arduratuta eta euskaraz gauzak egiten.

Ez dut beste pertsonarik ezagutu euskarari hain entregatua. Buru-belarri. Garai hartako bi milioi pezetarekin etorri zen Miarrizera; Jaurlaritzak ezin zion lagundu eta laguntza agindu zioten beste batzuk ere huts egin zioten, eta hor xahutu zituen bere diruak. Berriro Ameriketara eta, diru apur bat bildu zuenean, berriro etorri diruarekin: Platonen itzulpenetan xahutu zuen. Begiratu gabe diruari! Dirua behar zuen gauzak egiteko euskararentzat. Euskargatik entregatu zituen ez bere dirua bakarrik, bere osasuna ere bai.

Eibarrera etortzen zen bisitan, eta ni bere etxera, Mondragoera, Mondragoen egon zenean. Heriotza garaian ere bisitatzen nuen Donostiako ospitalean, eta Euskaltzaindian onartu genuen laguntzea diruz, zaintzaile bat beharrezko zuelako. Sufritu egin nuen Zaitegi azkenetan ikustean: hainbeste entregatua euskarari eta horrela joaten ikusi beharra, pena eman zidan.

Gabriel Aresti.

Poeta-poeta zen. Asko irakurtzen zuena. Bere asmoa poeta izatea eta euskal poesia berritzea izan zen, eta hori shock bat izan zen. Poesia soziala bortitza egin zuen, gogorra, eta arazoak izan zituen.

Polemikoa zen bere ideietan, baina erraza eramaten. Berak bazituen bere sufrimenak, familiako zirkunstantzia batzuegatik, laguntza behar zuen, estimulu bat edo maita-

sunagertzeko modu bat, eta nik hori erraz egiten nion. Beste batzuk ez, kritika gogorrek jaso zituen beste batzuegandik.

Harreman ona izan nuen berarekin, literatur gaietan batez ere. Euskaltzaindiko batzarretan ikusten ginenean literatur kontuetan asko jarduten genuen. Oso etxeko ginen, gainera, Eibarren sei hilabetez egon zenean lan batzuk zirela eta, ia egunero gure etxean afaltzen zuen. Eta Bilbora joaten nintzenean ere bere etxera joaten nintzen.

Beharrezko ikusten nuen berarekin harremana izatea, komunistek-eta, ezkerreko jendeak, asko tentatzen baitzuten, berengana eraman nahirik. Denak tiratzen. Hori ez zen ona. Gizona libre utzi behar zen. Poetak, gainera, libre izan behar du.

Rikardo Arregi.

Ez nuen okasiorik izan harreman estua izateko. Baina izan nituenak ezin hobeak izan ziren; bere ideiak oso interesgarriak ziren. Pentsamenduzko pertsona zen, euskalgintzarako bide praktikoak bilatu nahi zituena. Hortik, bere alfabetatze kanpaina: adinekoak ez dakite euskaraz irakurtzen, antolatu ditzagun ikastaro batzuk, horrek irakurleak ekarriko ditu, liburu gehiago argitaratzea... dena kate bat zen.

Argia zen, irakurtzen zuena eta pentsatzen zuena, eta bere pentsamenduetan ardura nagusia zen gauzak hizkuntzarentzat nola hobetu, zer bidezidor hartu behar ziren aurrrera egiteko.

Luis Villasante.

Luis Villasantek, batasunaren auzian eta beste gauza askotan gatazkak egon direnean, jurista batek bezala jokatzzen zuen: arazo bat zegoenean, irakurtzen zuen, estudiantuta ekartzen zuen, bere iritzia eman eta konponbidean jartzen zuen.

Gutxietakoa izan da politikatik aparte, hizkuntzagatik bakarrik, dena eman duena. Horretan asko ikasi dut berarengandik, nik bide horretan jarraitu bainuen.

Eta gero, idazkera: prosa aberatsa, lehengo purismoa alde batera utzita, herriari gehiago hurbiltzen zaiona. Saio

ederrak egin ditu, erlijio gaikoak gehienak. Luma oso ona du, oso estilo onekoa. Bere *Euskararen auziaz* guztiok ezagutu beharrekoa da.

Santi Onaindia.

Harreman handia izan nuen Eibarren karmelitetan egon zenean. Oso ondo konpontzen ginen. Umorezko pertsona zen eta gauzak lasai hartzen zituen; broman elkarri handiak esan dizkiogu!

Poesiara entregatutako gizona. Bere poesiak lehengo tradizioari gehiago jarraitzen dio, baina oso gauza interesgarriak ere baditu: hitzen jokoak, hizkuntzaren balioa...

Toribio Etxebarria.

Gerra aurrean, haurtzaroan, ezagutzen nuen baina ez nuen harremanik. Etxean izen ona zuen: errespetu handia zioten aita-amek bere gizontasunagatik eta bere izateagatik. Bere ondradutasuna aparta zen.

Gero, bera Venezuelen erbesteratua, gutunezko harremana genuen eta eskatu zidan bere euskarazko liburuari hitzaurrea egitea. Titulua ere nik eman nion: *Ibiltarixanak*.

Toribio Etxebarria *Euzko Gogoa*-n idazten nik ipini nuen, eta harremana hartu zuen horrela Zaitegirekin. Venezuelatik idatziak bidaltzen zizkion Guatemalara aurrena eta Miarrizera gero. *Eibar* aldizkarian ere ahalegintzen nintzen Toribioren artikulua sartzen. Garai hartan, *Eibar* aldizkarian Toribio Etxebarriaren izenarekin artikulua sartzea ikaragarria zen! Erregimenaren aldekoentzat bekatua zen. Elizarena zen errebista.

Venezuelan bizi zen baina Hego Euskal Herrira ere etorri zen, frankismoaren azken-azken aldera, eta omenaldia egin genion eibartarrok Getariako San Prudentzian. Esan nion kotxez nahi zuen lekura eramango nuela: Santimiñeko kobak, Gernikako Arbola eta Lekeitioko eliza bisitatu genituen behin, berak eskatuta. Eta beste batean Debara, Debako elizara; bere eskariz deklaratu zuten monumentu historiko Errepublikara garaietan. Gizon berezia zen. ♣

JUAN SAN MARTINEN ARGITARAPENAK

• LIBURUAK

- Juan Antonio Mogel. Bere bizitza ta lanak.* Zarautz, 1959.
Zirikadak. Zarautz, 1960.
Eztenkadak. Zarautz, 1965.
Estudio etnográfico del Valle de Urraul Alto (Luis Peña Santia-gorekin elkarlanean). Donostia, 1966.
Escritores euskericos. Bilbo, 1968.
Uhin berri. Donostia, 1969.
Hegatsez (Serafin Basaurirekin elkarlanean). Zarautz, 1971.
Elgueta con Anguiozar y Ubera. Donostia, 1975.
Gogoz. Donostia, 1978.
Literaturaren inguruan. Donostia, 1980.
Bidez, Donostia, 1981.
Erromanikoa Euskal Herrian. Donostia, 1983.
Landuz. Donostia, 1983.
Jose Manterola. Donostia, 1985.
Antzinako Eibar. Eibar, 1993.
Dichos y hechos - Esanak eta eginak. Gasteiz, 1994.
Euskararen ostarteak. Donostia, 1998.
Giro Gori. Leioa, 1998.
Santa María de la Asunción de Hondarribia. Su Historia, arte y arquitectura. Inprimategian.

• LIBURU ATALAK

- «Euskeraren inguruan», *Euskal Elerti* 69. Bilbo-Donostia, 1969.
«Euskal Artea», *Lur eta gizon.* Oñati, 1974.
«Eibar», *Diccionario Enciclopédico del País Vasco*, X. tomoa. Donostia, 1979.
«Aurkibidea (1920-1979). Egilez eta gaiez», *Euskera.* Bilbo, 1980.
«Existe-t-il un art basque?», *Etrê basque.* Toulouse, 1983.
«¿Existe un arte vasco?», *Ser vasco.* Bilbo, 1986.
«Las artes del pueblo vasco», *Euskalerría.* Barcelona, 1987.
«El pintor Ignacio Zuloaga», *Los Zuloaga, dinastía de artistas vascos.* Donostia, 1988.

Gaiak



kultura • 119

Barre egin kritikarien lepotik • Su-eten kulturala
• Nafarroako Erresuma berpizturik

ALBERTO BARANDIARAN



literatura • 125

Saramago • Vaticanoa eta adituak
• Ideologiak • Harria • Jakintza entziklopedikoa
• Kanpo-irudia • Irakurleak • Koartada

EDORTA JIMENEZ



ikuskitunak • 132

Politikoki zuzena • Dena ez da galdua • Berriak zahar
• Hau komeria! • Medemen zirkulua
• Urteko anfora hausten

IMANOL AGIRRE



soziolinguistika • 137

«Bai euskarari» • Carcassonne txostena
• Frantsesa, Errepublikaren hizkuntza
• Eurokartaren izpiritua • Proposamen politikoak
• Hizkuntz legea noizko?

ERRAMUN BAXOK



telepolis • 143

Ikasturte hasierakoak • Su-etena dela eta
• Hauteskunde kanpainako gauzatxoak
• Wyoming-Tolosa? • Egingo dugu

LUIS FERNANDEZ



Barre egin kritikarien lepotik

Barre egin nuen gogotik Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren sari nagusia pelikula argentinarrari eman ziotenean. Barre egin nuen batez ere biharamunean, berria egunkarian irakurri nuenean. Bezperako lagunarteko bazkarian —gero eta gutxiago ikusten ditudan adiskideen negarrak entzuteko prestatutako juntadizo horietako batean— entzun nion koadrilako zinema kritikariari: «Zeinek irabazi? *Barrio*-k edo *Central do Brasil*-ek. Onenak dira, dudarik gabe». Esan zuen ziurtasun harroskoaz. Berak jarraitu zuen aurtengo edizio osoa, goiz eta arratsalde, bazkaldu zuen kazetariekin, elkarrizketatu zituen aktoreak eta maiz ibili zen zuzendariekin ordu txikietan. Zinemaldiaren muina ezagutzen zuen, lapiko handi horretako osagai guztiak. Ezagutzen zuen zinemaren politika, hau da, ikusle soil gizarajook susmatu ere ezin ditzakegun aldagai guztiak. «Onenak dira, dudarik gabe». «Dударik gabe» horretan zegoen gakoa. Baita gure amorrua ere.

Gure lagun kritikariak kafea hartzen ari ginela agurtu gintuen denak, musuak eta «hurrengo nik preparatuko» eta gisako esaldiak banatu ondoren. Jende estresatuaren gisara utzi gintuen, sari emate ekitaldira joan nahi zuelako, batetik —nola gal zezakeen ekitaldi distiratsuen bi astean ederra jasan ondoren—, eta inoiz erantzuten ez duen sakeleko telefonoan hiru mezu zituelako grabatuak, arratsalde horretarako bertarako kritika eskatzen ziotenak. Horregatik gogotik egin nuen barre *El viento se llevó lo que* atera zenean irabazle. Imajinatu nuen jarriko zuen aurpegia, Urrezko Maskorra Alejandro Agrestirentzat zela entzun zuenean, eta egingo zituen imintzoak, keinuak eta espantuak. Baietz bera izan txistua gehien jo zuenetakoa!

Barre egin nuen, bai, gogotik barre ere, bera bezalako kritikarien esaldi borobil eta indignatuak irakurri nituenean biharamunean. «Erabaki surrealista», «ulergaitza», «iseka»,

«lotsagarria»... Denak ulertu ezinean nola egiten ahal zieten horrelakorik, nola jar zezakeen auzian zuzendari koardila maingu eta txepel batek haiena bezain juzku objektibo eta kualifikatua!

Gogora etorri zitzaidan *Dias contados* pelikulak maskor dotore bera jaso zuenean etxeko beste bati entzun niona. «Baina nola daiteke euskal errealitatetik horren urrun dagoen horrelako pelikula batek lehen saria jasotzea?». Baina noiz demontre egon da hurbil zinema edo artea errealitatetik? Egon behar al du, derrigorrez, hurbil? Txorakeria galanta iruditu zitzaidan, oraingo honetako sumindura adina.

Kritikarik ez dagoela-eta kexu izaten gara gero. Nola egongo da kontuan hartzekoa, kritikariek beraiek ez baldin badute garbi kritika iritzia dela, ez egia, kritikari baten kritikak ez duela gehiago balio zuzendariarenak baino, aditu izan usteak usteak direla, ez besterik.

Gu denok baino pragmatikoagoa den lagunetako batek, galdegin zigun gai honetaz ari ginelarik: «Baina zeinek erabakitzen du zein den artista, zein den ona edo txarra?». Ez genion erantzun, jakina.

Su-eten kulturala

Ez dakit zer izan zen lehenago, zein izan zen oiloa eta zein arraultza, baina Atxagak kultur munduko jendearen erantzukizuna nabarmentzeko deia egin eta kulturgune askotatik sortutako ekimenak eta deklarazioak etortzea bat izan da. Su-etenaren garaiaz ari naiz, noski, hiru probintzietako hauteskunde atariko garaiaz. Testua orduan idatzia da, eta argitaratzen denerako zaharkitua gelditu baldin badaiteke ere, interesgarria iruditu zait kultur gizonen parte hartzea.

Kontua da Atxagak esan zuela kultura zela salba gintzakeen bakarra, «herritarrok elkartu ahal gaituen bakarra», hori esan zuen hitzez hitz. Atxagak hori esan zuen *Euskal Herria Gaur* izeneko liburuaren aurkezpenean, orduko egoera politiko-sozialaz bere hausnarketa plazaratze-

ko erabili zuen hartan. Eta orduan bertsolariak Lizarrako akordioa posible egin duten alderdien alde egitera deitu zuten —«haiek asko arriskatzen ari dira eta gu ere prest gaude pauso bat emateko»—, idazleek Euskal Herritarrok plataformari botoa emateko eskatu zuten —«Espero dugu, desio dugu zuek ere, euskal herritar batzuen bakarrik den Euskal Herritarrok, ondare unibertsala bihurtuko zaretela, gai izanen zaretela, zuen politikari esker, euskal herritar guztien zerbait izatea. Askatasunaren lexikoa handitu eta aberastuko duzuela espero dugu»—, eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak deklarazio bat onartu zuen esanez euskara izango dela gure gizarteari «kohesioa emango diona eta bateratuko gaituen lokarria etorkizuneko erronka handiei denon artean aurre egiteko».

Uste dut ez ziotela Atxagari ulertu. Berak esaten zuen arriskua zegoela gizartea bi komunitatetan zatikatzeko, eta zatiketa hori zela eragotzi beharra zegoena, kultur jendeak eragotzi beharko zukeena. «Komunitate euskaldunak ezin du pentsatu komunitatearen osotasuna hartuko duela, euskal gizartearen zati bat baino ez da izango, eta jakin beharko du beste muturrean dagoen komunitatearekin batera bizitzen» esan zuen, horixe adierazi zuen Asteasu-koak. Eta bertsolari, idazle eta kontseilukoei entzunda, batez ere kontseilukoei entzunda, bazirudien inoiz ezagutuko ez dugun Euskal Herri euskalduneari bizi ginela, denak abertzale eta denak jator.

Intelektualen gaitza omen da hori (Zergatik iristen zaigu belarrietara horren itsusi hitz hori, intelektualarena?). Hau da, hantustekak dira gizartearen ahotsa direla uste izateraino; idealismoa dute, erruz, errealitatea bere osotasunean ulertzeko traba izaten zaiena eta uste izaten da dutena baino eragin handiagoa dutela jendearengan.

Nik Atxagari ulertu nion zeozer errealistagoa. Günter Grass-ek Alemanian egin zuena gutxi gorabehera.

Garrantzi handiko hauteskundeak ziren joan den irailaren 28koak Alemanian, jokoan zegoelako gobernu aldaketa Kohlen 16 urtetako agintearen ondotik. Grassek, seguruaski bizirik dagoen idazle alemaniar eraginkorrenak, utzi zuen ordenagailua eta hartu zuen autoa ekialde-

ra bidaiatzeko, bere ustez sozialdemokratek egin behar zutena azaltzeko. Hauteskunde kanpaina egin zuen bere kabuz, bi hitzetan.

Ez zen Schröderren alderdiari laguntza ematea helburu bakarra. Akaso ez zen hori helburua. Grassek hitz egin nahi zuen bi Alemanien arteko benetako batasunaren alde, eta proposamen zehatzak —Konstituzioaren aldaketa Alemaniari sendotasuna emateko, armadaren erreforma demokratikoa, atzeritarrei ateak irekitzeko politikak— plazaratu zituen. Grassek, elizetan eta kafetegietan, botila ardo beltz eskuetan, gurean ezinezko, ulertezin eta ia utopiko gertatuko zen konpromezua hartu zuen.

Kontuan hartuta askoz ere erabakigarriagoa dela Euskal Herriaren gaur egungo egoera —«bidegurutzera» esaten diote— euskaldunentzat, Alemaniarena alemanentzat baino, norbaitek exijitu beharko lieke Atxaga eta besteei zeozer praktikoagoa, eraginkorragoa. Errealagoa. Exijitu beharko genieke beste urrats bat. Exijitu beharko genieke, adibidez, denen artean ekar zezatela Joseba Sarrionandia alde honetara. Su-etena kulturala ere izatea.

Nafarroako Erresuma berpizturik

La *Navarra marítima* izeneko liburuaren arabera denok gara nafarrak. Hau da, IX. mendera arte baskoiak zirenak nafarrak izan ziren XIII. mendera arte —horrela esaten zieten Nafarroako Erresuman euskaraz mintzatzen zirenei—. Gero, subiranotasunaren galerarekin, gaztelauak, kantabroak, bizkaitarrak, eta baskongadoak edo baskoak izenak etorri dira, mendetan zehar. Hau da, euskalduna nafarra da eta nafarra dena, euskalduna.

Entzun ditut jada batzuk, kanpora ateratzean bere burua nafartzat —itsasaldeko nafartzat— aurkezteko asmoa dutena. Sentimendu hori areagotuko da hain segur Pedro I.aren historia ezagututa. Bi hitzetan, Nafarroako Errege berria aurkitu dute eta berrezarri nahi dute Foixtarrekin hautsi zen tradizioa.

Horrela esanda, irudi luke adarjole koadrila baten broma dela, baina ez, badirudi asmoa ondo pentsatutakoa dela eta ahalegin, diru eta denbora asko xahutu dutela horretan. Dena hasi zen monarkiazale talde baten baitan, duela hamalau urte. Garai hartan Errusiako tsarren etxeko kondesa bat azaldu zen, esanez bera zela Nafarroako koroaren oinordekoa, eta talde honetako kideek Nafarroako Erret Etxearen gaur egungo benetako oinordekoa bilatzeari ekin zioten. «Indarrez ezarritako errege bat eduki beharrean hobe da gurea edukitzea», izan zen jatorria...

Hamalau urte eman dute artxiboetan miatzen, Liga Monarkikoa gora eta behera ondorengoan adarrak miatzen eta baieztatzen. Duela lau urte Timoteo Foixekoa topatu zuten Estatu Batuetan, eta hainbat urtez bera izan zen tronorako aukeratua, baina aurtengo udaberrian «desagertu» zen misterioski —monarkiko independentista hauek uste dute mehatxu batzuk izan zirela tartean— eta errestauratzaileek atzera berarekin harremanetan jarri zirenean Timoteok nahiko amatatuak zituen erregearen koroa hartzeko gogo guztiak.

Orduan aurkitu zuten Pedro I.a: Pierre Désiré La Motte-Messemé frantziarra, Loudungo dukea eta Isabel Albretekoaren oinordeko zuzena. Isabel hau Katalina Foixkoa eta Joana III. Albretekoaren alaba zen, hau da, Gaztelako Koroak Nafarroa Garaia konkistatu zuenean Nafarroako Errege-erreginen alaba.

Pedro I.a prest omen dago koroa hartzeko, eta laster bere programa ezagutaraziko du. Aurreratu daiteke eskatu egin diola Juan Carlos I. Borboikoari aska ditzala euskal preso guztiak, «gizatasunarengatik», eta bera babesten eta Nafarroara ekarri nahi duten legitimisten nahien artean Nafarroa independentea dagoela, Espainiarekin dauden kateak hautsita eta hizkuntza ofiziala euskara izango duena. Hasi nahi dituzte laster alderdiekin harremanak, eta batzuekin egonak dira jada, nahiz eta erantzunak ez omen diren oso onak izan.

Esan behar da ideiak izan duela jada oihartzuna Nafarroan, eta hainbatek plazaratu duela bere iritzia: zergatik ez errekuperatu gurea zena? Independentzia lortuko balitz

—Nafarroa Beherea erreinu berriaren baitan exijitzen dute, jakina—, eskatuko litzateke gero beste probintzien ane-xioa. Hau da, Nafarroa konbentzitu beharrean, beste probintziak Nafarroan baitan desegingo lirateke, Pedro I.ren koroaren azpian. Sanz eta haren kordakoek ezingo lukete hori uka, Erresuma handiagoa eta indartsuagoa —abera-tsagoa— izango zelako horrela. Eta nafarragoa, itsasaldeko lurak errekueratuko zituztelako. «Behin independenteak, erregeari burua moztu eta Errepublika aldarrikatu» esan izan du mihiluzeren batek.

Ez da dudarik arazo asko konponduko liratekeela kol-pe batez. Pedro I.ak jende jatorra ematen du, «agur» bate-kin sinatzen ditu bere karta guztiak, eta esan liteke prest dagoela arduraren zama bere gain hartzera. Legitimista in-dependentista nafar hauen lana erabakiorra izango da hi-labete hauetan.

Pentsa, denak nafar. Denak euskaldun. Independen-teak. Nafarroako Erresuma berpizturik. ♣



Azken Nobel saria Jose Saramago portugaldarraren eskuetara joan da. Bilboko semaforoetan eskean diharduten horien hizkuntzari lehenengoz aitortu zaio hemen askok dakiguna, nahiz eta gero semaforoan leihatila itxi eta ez arduratuena egin emakume beltzez jantzitako txiro horren eta bere seinaren aurrean: portugesa hizkuntza ederra da, estandarrean garatua eta inperio baten bidegarri izana. Hots, inguruko beste hizkuntza erromanikoen literatur-dohainen jabe eta administrazioarako —kolonietakoak xahutzeko, besteak beste— gai. Euskal idazle-irakurle frankok dugu gogoko portugesa.

Saramago

Hizkuntzak denak dira ederrak, erantzungo du baten baten. Bai, esango diot nik, baina batzuk besteak baino ederra gorberaren belarriaren atsegin-ereduen arabera. Batzuek hemen maitemin dugu portugesa, gorago esan dut, baita beste hizkuntza askoren gainetik maite ere. Arrazoiak? Erantzuna Tabucci bezalako idazle baten jarrerak argitu ahal du. Haatik, luze joko lidake horiek hemen azaltzen hasiz gero. Ohar bat, hala ere; ez da Pessoren pisua soil-soilik.

Pisua duenik Pessoa, ezin ukatu, galde biezaiote bestela Atxaga-Sarrionandiari (ikus *Susa* aldizkariaren 5. alea). Eta Pessoa hor dago Saramagoren hastapenetako *O ano da morte de Ricardo Reis* liburuan.

O ano da morte de Ricardo Reis Portugalen erosi nuen, jatorrizko hizkuntzan, ordurako Saramagoren izenak, orain gogoan ez dudan norbaiti entzunda, oihartzun egiten baitzidan hemen barruan. Ez dut liburua inoiz osorik irakurri. Hala ere, lehenengo hogeita hamar orrialdeak hamaika biderrez irakurri ditut. Horrekin nahikoa izaten baitut hizkuntzari berari darion xarma, orrialde luzeetan ibili barik, dastatzeko. Irakurle nagi bilakatu naiz. Zer axola dio liburuak zatika ala osorik irakurtzeak?

Vaticanoa eta adituak

Osorik irakurrita dudan Saramagoren liburu bakarra *El evangelio según Jesucristo* da. Hain zuzen ere, Erromako Eliza Katolikoak (Ingalaterrako Elizak ere Katoliko aldarrikatzen du bere burua) salatu-edo egin duen eleberria.

Iazko Nobel saria Dario Fó-ri ematean berdin egin zuen Vatikanok, alegia, Suediako Akademiaren erabakia ideologi jakin batek gidatua izan dela esatea. Harako hura Norvegiako errege ez zen legez, ez naiz ni Suediako akademikoko baina, sinesgaitz egiten zait hango akademia idazle gorrien bila ibiltzea, zertarako-eta saria euroi emateko. Bestalde, bada gero; nork eta eliza horrek esan behar horrelakorik. Noiz eta Salman Rushdie hari Irango agintariek heriotz zigorra kendu diotenean.

Erromako Elizak egun ez du heriotz zigorrik ezartzeko biderik. Izan du, izan, mendeetan, eta askotan lagundu dio gurutzeak ezpatari heterodoxoeren lepoaren bila. Bada, hainbat hobe isilik balego.

Ez da harritzekoa Erromako Elizaren jarrera. Bertoko literatur aditu batzuek dutenaren antzekoa da, berdina dela ez esatearren. Ideologia ezkertiarrek baino ez dituzte ideologiatzat hartzen. Saramago komunista ei da. *Ebangelioa Jesu-kristoren arabera* liburu ederra da, horregatiko. Kultura katolikoan bizi garenon ateo askoren gogoko, nik uste.

Ideologiak

Ideologia kontuetan ez gara goizeon hasitakoak. Salman Rushdieren izena badakar etxean dudan hiztegi entziklopediko txikiak. Ez dakar Saramagorena. Jakina, lehenak heriotz zigorraren itzala urteetan izan du hor. Saramagori zein zigor etorri zaion eta noiz, orain ikusten dugu. Eliza Katolikoak nahiago izan zukeen saririk eman ez eta idazle portugaldarrak fede-gaiak zelan jorratzen dituen irakurleen kontu pribatua izan balitz. Horrelakorik gertatu ezean, kritika, hau da, egurra. Jesukristoren ustezko biografia askoz ere kritikagoa, nik uste, Robert Gravesen *Iesus Errege* da.

Ez da saritua eta ale bakanak saltzen ditu, ostera. Beraz: *nihil obstat*.

Bien bitartean gure hiztegiak ere ideologi kutzak dira. Zein irizpidek utzi zuen Saramago hiztegitik kanpo eta Salman barruan? Bide batez, itzel poztu nau Rushdie idazleari zigorra kendu diotelako berriak. Baina ez da nik irakurrita dudan idazlea.

Harria

Saramagori emandako nobela dela eta, Xabier Mendigurenek gogeta interesgarria utzi zigun *Euskaldunon Egunkaria*-n, urriaren bederatziko alean: «Saramagoren estilora idazten saiatu izan naizen aldi bakanetan —dio Mendigurenek— frogatu ahal izan dut zenbateraino den zaila formula hori; haren idazkera bihurria euskaraz jartzea ezinezkoa litzatekeela ere pentsatu izan dut inoiz. Badakit ordea Jon Alonso adiskidea euskaratzen ari dena. Makala harria!».

Bada, Jon Alonsok euskaratzen diharduen Saramagorena *Historia do cerco de Lisboa* da, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailarekin batera gauzatzeko bidean doan literatur ondare unibertsaleko obra nagusien bildumarako, hain zuzen. Bada, bestek egin badute, zertan ez Alonsok? Zailagorik ere bada bilduma horretan, nik uste.

Klasiko Unibertsalak bilduman argitaratu diren azken laurak irakurtzeko astia eman dit urteroko gripe-erasaldiak, eta ezusteko galantak hartu ditudala aitortu behar dut.

Lehenengo, Jose Maria Lainezen *Zazpi deabruen bitaia* irakurri dut. Gozamena izan da. Baina egilearen izena ezezaguna. Bildumako hirugarren argentinarra, dagoeneko bilduman dugun Cortazarrekin eta aurki etorriko den Borgeseekin batera, eta ezagutu ez, esan diot nire buruari. Liburua hain ederra izanik gainera. Beraz, zenbat gogoeta oheko epeltasunean. Gogoetotan sartu baino ohar bat, hala ere. Lainezen liburua Vatikanok Saramagori kritikatu dion hori baino askoz irreberenteagoa da eta, eutsi horri, hirurogeitaka urteko fraide euskaldun batek itzulua.

Jakintza entziklopedikoa

Vaticanoari Lainezekin dukeen lanaren berri eman ondoren, umearen jakingura kilikatzen didan galtzagorriak eskura dudan hiztegi entziklopedikora eroan nau. Lainez horren izena ez da horretan ageri. Hala bada, ez dago horraino kontsentsuatu idazle hori. Gure jakintza entziklopediko xume horretaraino ez da iristen Lainezen garrantzia. Iristen dira ostera argitaratu diren beste hiru idazleak, hau da, Colette, Mansfiel eta La Fayette, hirurak emakumezkoak izatea ere azpimarragarria izanik. Jakina, test tiki horrek betikora eroan nau: zer itzuli?

Coletteren liburua —*Mari-alderrai*, jatorriz *La vagabonde* eta *Emakume arlotea* aipatu entziklopedian— beharrezkoa delakoan nago, hain zuzen ere, hark erabiltzen duen estiloa, zineko irudi bat erabiliz esatea baldin badaukat, kamera ondo-ondoan eta dena plano motzetan barrukora nahiz ingurura begira jarrita balu moduko estiloa, gure artean egon ere badagoen estilo bat da eta. Colette feminismoaren aitzindarietakoa da eta, nago ildoan estilo horren bidez utzi duela zabalik emakumeak, bere garaian eztandarazi zituenak eztandarazi zituela ahaztu gabe.

Oso garbi ez dudana Bilduma Unibertsalean sortu diren beste titulu biena da. Frantses literaturatik La Fayette-ren *Cleves Printzesa* hautatzeko egon zitekeen zioaz ez dakit deus, ez bainaiz aditua. Nire moduan aldizkari honi emandako hitza betetzearren ahalik eta gehiena irakurtzen saiatzen denaren ikuspegitik, astuna da liburua. Ez diot beharrezkoa ez denik. Nire zalantza askoz ere praktikoagoa da; gaur egun, premiazkoak ote dira horrelako liburu horiek?

Saramagoren harira itzuliz, horra hainbat euskal idazleren gogoko izen bat, askok gogo on horrexekin euskarara ekar lezaketena. Hala da ze, lehentasuna idazleen euren gogoko liburuak itzultzeari eman beharko genioke, akaso? Bide horretan ere ez gara oso aurrera iritsi. Azken batean, itzulpenak berak ez du izen onik euskal irakurleen artean. Erakundeekiko loturarik ez duten argitaletxeek ahalegin txalogarria egiten duten arren. Kontua da noiz arte egin

ahal izango duten. Laburtuz, irakurle gehiago behar ditu gure literaturak, bestela ez dago normaltasunik.

Kanpo-irudia

Bien bitartean, Bilduma Unibertsaleko ondarea osatzen joatearen aldeko naiz. Hala eta guztiz ere, bada beste auziarri bat hemen, aipatu nahi ez dena. Hain zuzen ere, zenbat saltzen diren bilduma horretakoak. Eta oso-oso gutxi direla jakinda, berri txar horren zioak aztertzea derri-gorra dukegu.

Bilduman lan oso estimagarriak daude. Beste idazle-irakurle amorratu batek berak horietako gehienak irakurtzen dituela eta ezusteko politik hartu dituela aitortu izan dit behin baino gehiagotan. Bildumaren kanpo-irudia ez da ona, horregatio, eta irakurle amorratua izan ezean, jai dute liburuok. Gainera irudi hori erakundeei lotuegi ageri da, eta horrek atzera eragin liezaioke balizko irakurleari.

Liburuak gizarteari prentsaurrekoen bidez agertzeari ez deritzot txarto. Neurtu behar dena da aurkezleak, nor ere den hori, liburuari eransten dion gehi-balio sinbolikoa eta balizko irakurle euskaldun batzuen sentiberatasun-eredua, batera daitezkeenak ote diren horiek biak.

Ez da ahaztu behar; literaturan irakurleak dira gakoa, batez ere horiek erosle diren aldetik. Badakigu hori, eta San Jordi bat egin dezakeguna ere badakigu, lorea eta liburuak elkaturik oparitzeko. Horrela sektore ekonomiko bik abiadatzkoa hartuko lukete. Nahiz eta lorea laster zimeldu eta liburuak zabaldu gabe geratu horko mahai gainean. Ohaidearen ohearen albokoan, bai. Ekandua egin barik gaude, osteratzen, eta gure liburu-egunak aterperik bageko euri-egunak izaten dira. Durangon.

Irakurleak

Euskal irakurle berriak sortzearen aldetik huts galanta egin dugu gerraosteko euskarazko irakaskuntza sortu ze-

nez geroztik. Beharbada ezin egin zitekeen gehiago. Baina haurren eta gazteen alorrak polito zaindu diren arren, eta agian lar zaindu direlako, ez dugu gauzatu zubirik, ez, gazteek eurek, behin eskola utzita, liburu irakurle izaten segi dezaten. Edo hobeto esatea beste honetara: ez dugu euskal liburu-eroslerik sortu.

Ez bedi inor mindu, ezen nire kezka literatura baino haratagokoa da. Eta argitu ere egingo dut norainokoa, esanez, baze, haur eta gaztetxoekin polito moldatzen garela —udalekoak, irakurketa-kanpainak, gurasoak liburuak oparitzen, letrak eta ikasgaiak kantuen bidez... zerua!—, baina behin gure horiek nerabetzarora heldurik, akabo. Gizarte honetako estamentuek, publikoek nahiz pribatuek —Kutxek, adibidez— ez dakite (protokolozko salbuespenak salbuespen, bai) gazteekin zer egin. Beharbada irakurle berriak sortzearen aldeko gudua gudu galdua izan dugu, irakurle horiek «euskal» izan litezen borrokan hasi baino.

Koartada

Kezka horien kariaz, Euskal Idazleen Elkartek Haur eta Gazteen Literaturaren I. Biltzarra antolatu du, urriko 29tik 31ra bitarterako. Gaiak interesgarriak dira. «Nori egotzi gazteen irakurzaletasun falta?» galderari buruz hitz egingo du Denise Dupont Escarpitek. Hitz egiteaz gainera erantzun taxuzkoa eta sinesgarria ematen badu, hori zoriona. Litekeena baita pekatu hori —nagusiagook horrela bizi dugu gazteen irakurzaletasun falta, ez ala?— nori egotzi izanez gero konponbidea ere errazago izatea.

Ez da hau lekua Biltzarraren datuak ematekoa. Ekimena bera da aipatu gabe ezin utzi dena, bide nabar aipatuz Euskal Idazleen Elkarteari bere buruaren balioa erakutsi dezan eskatu diotela aspaldion erakunde publikoek. Horra ba idazleak halakoak eta bestelakoak antolatzen, gure zeregina horietan balego moduan. Argi gera bedi: Idazleen Elkarterik ez balego lotsaz legoke herri hau, ikur garrantzi baten faltan. Funtzionario publiko pare baten soldataren truke erosten duten ikurra gara.

Bada, idazleok egunen batean greba egin beharko genuke, laguntzak eskatzeari utzi eta apurreriei uko egin, museo aurreko zakurraren loreei begira adurra darigula geratu eta, total!, bakarka jardun, ezelango elkartze barik. Ikur bat gutxiago eta, jainko batek esan zuen moduan, simulakro bat gutxiago.

Elkarteari erakundeek orain ematen diotena baino laguntza handiagoa emango bailiokete, ziur nago, Amerika edo Afrikako bazterren batean harako hizkuntza galtzeko zoriko hartan eskolak ematen ahaleginduko bagina. Idazleok utzi egin behar diogu inoren koartada izateari. Eta askotan horixe baino ez gara: koartada. Merkeegi irteten zaien koartada. ♪



Politikoki zuzena

Euskaldunon *Egunkaria*-k oso lan ederra burutu zuen ETA-ren su-etena zela eta. Gizarteari hitza eskaini zion eta egun historiko horietan hainbat pertsonak iritzia eman zuen. Horien artean zenbait aktore ezagunek ere. Zinez, poztu nintzen.

Bi muturren arteko erdialdean kokatu garenontzat albiste pozgarria zela zioen aktore eta zinegile ezagun batek. Aktoreek, askok behinik behin, inorena ez den lur eremu horretan kokatu nahi izan dute euren burua. *Politikoki zuzena* leloa nagusitu da azken hamarkadan euskal eszenan. Dena garbi, dena zuzen. *Status quo* gozo batean murgildurik. Sarritan diru-laguntzaren baten zain.

Lorez lore aritzen da teatrogilea. Egitasmo batetik bestera. Horregatik, dagoenean bonbon eta ez dagoenean zain egon.

Horrela, aktore ugarik euren arima *Goenkale*-ri saldu omen diote. *Goenkale*-ren gurpilak, antzeko beste egoera ugaritan bezalaxe, menpekotasun giro estua sortzen baitu. Aktore-lanpostuak portaera pertsonalen soka fin batetik zintzilik daude.

Tauletan ere teatro lan gehienak gizartearen gatazkatik at sortu dira. 70-80ko antzerki taldeen konpromezulana desagertuz joan da eta gaurko aktoreen mugimenduak eremu lasaia nahiago gizartea asaldatu baino.

Azken batean, soldata baten truke kilikilariaren balio zorrotza ahaztea zilegia da. Zergatik eskatu behar aktoreari heroi izatea igeltseroari ez badiogu neurri bera eskatzen?

Hala eta guztiz ere, ikuskariaren ahalmen zuhurra aldarrikatzen jarraitu nahi dut. Gizarte aurrean zirikatzaile izateko asmoa, hain zuzen. Gogora etorri zait beltzez jantzi ohi den kantugile oñatiarraren kantu hura: Tabernatik

egingo dut buelta, zerk lotzen nauen herri honetara burura bitartean, burura bitartean... («Ez da posible», 1990).

Dena ez da galdua

Egia esan, arestian aipatu dugun izpiritu zirikatzaile hori ez da goitik behera desagertu. Euskal Herrian barna bi teatro lan ibili dira barrukoa irakiten: Leo Bassi eta Els Joglars. Bata clown familia italiarraren ildotik bestea Kataluniako umorearen begirada kritikotik. Eskuadra zaharreko bi maisu. Dario Forekin batera Europan ezagutzen ditudan ausartenetakoak.

Leo Bassiren lana ikuskizunen sortzailearentzako lezioa da. Entretenigarrien kontsumoaren aurka dena hankaz gora jartzen duen portaera bortitza da. Norberekeriaren aurrean (*The Untouchables*-en musika epikoaz apaindutako tarte ironiko nabarmena) gizartearen indar iraultzailea aldarrikatzen du aktorearen benetako odola eskainiz. Italiar hau dugu gaur egun tauletan aurki daitekeen probokaziorik ederrena. Dena ez da galdua, beraz.

Europako abanguardia honetan ere Els Joglars kokatu nahi dut. Puntaren puntan zorrotz. Urratsez urrats hutsik egin gabe. Atzera egin barik.

M7 Catalònia (1978) ikusi nuen aurrenekoz orain dela hogeitau urte. Zur eta lur utzi ninduen. Garai hartako nazionalismoaren pizkunde ahulean Els Joglarsek bazuen zer esan eta zer aldarrikatu. Aipatu behar ere, hiru urte lehentxoago Alias Serrallonga (1975) antzezlanak ere esku hartu zuela katalaniar sentimenduaren sorrera hartan. Sasoi latzak ziren eta Albert Boadellaren taldea sugarra erakusten ari zen.

Bi hamarkadaren buruan boterean dagoen nazionalismoari zirika mirika: *Operació Ubu*, 1981, *Ubu President*, 1995 eta *La increíble historia del Dr. Floit & Mr Pla*, 1998. Horra hor izpiritu kritikotik bizi eta iraunkorra.

Els Joglars ez da sekula konforme izan. Inguuruari so eta beti harrika ari. Torturaren aurka egin zuen pantomima ikusgarria diktaduraren garaian (*El Joc*, 1970); kartzela ezagutu zuen sistema politikoari kritika egitearren (*La Tor* -

na, 1977); nuklearren arriskuaren deia zabaldu zuen talde ekologista ugari itzartu baino lehen (*Laetius*, 1980); totalitarismo garaikideari aurre egin zion gaurko balizko demokratek beste leku batera begiratzen zuten bitartean (*Olympic man movement*, 1981); erlijioen iruzurrak agerian utzi zituen kolpe eta irainak jaso arren (*Teledium*, 1983); Europa batuaren zurikeria (*Virtuosos de Fontainebleau*, 1985)...

Beraz, ez da bidaia leuna izan konpainiaren norabidea. Jo ta ke urratsa zabaltzen.

Berriak zahar

Zahartzea 625 lerrotako pantailan bilakaera arina da. Telebistaren abiadurak ez baitu mugarik. Iaz ari ginen *CQC* (T5eko *Caiga Quien Caiga*) gorai patzen eta aurten arrunta, iraganekoa, zaharra deritzogu. Denbora azkar omen doala eta telebistan azkarrago.

Soka nasai horretan dabilta irudien ekoizetxeak. Urtero egitasmo berriak burutu behar. Urtero ideien dossieren gerran parte hartu behar. Euskal Telebistan, hain zuzen, ekainean izaten da egitasmoen arteko lehiaketarik bortitzena. Norgehiagoka horretan urtebeteko geroa jarri ohi da kolokan. Azken urteotako emaitzak erreparatuz gero, ekoizetxe batzuk ditugu nagusi: Pausoka, Koma, Baleuko, Itesa, Ikuskin...

Aipaturiko sortzaile hauen eskuetan da telebista berriaren diseinua. Sugea izango balitz bezala udazkenero telebista azalez aldatzen da. Mamiz, zoritxarrez, ezer gutxi. Horra hor ETBko teleaio berrien sarekada.

Izar bila, Easy Peasy, Hamaika korapilo, besteak beste, kanpoan jorratutako formatuak dira eta gaur egun euskaraz ere ikus daitezkeenak. Hau da ikus-entzunezko industriaren mamia. Arrisku gutxi eta lehenago arrakastatsua izan dena moldatu eta errepikatu. Telebistaren patua hor-txe dago. Irudimena bestelako ikuskarietan aurkituko.

Hau komeria!

Aurreko artikulu batean ikuskizunei buruzko aldizkari baten berri eman genuen. *Artez* izenez eta edukietan euskal eszenaren deskribapena. Orain ikuskizunei buruzko telesaio bati buruz berba eginen dugu. *Hau komeria!* Euskal Herriko teatro profesionalek zuzpertutako idea honek Eusko Jaurlaritzaren babesa bereganatu eta ETBk begi onez onartu du.

Telesaioaren hasiera ez da oso zuzena izan. Hitza da nagusi irudiaren kaltez. Nola demontre adieraz daitezke ikuskizunak irudi barik? Okerreko bidetik abiatu dira. Hamaika elkarrizketa eta irudi gutxi.

Aukera hau ez genuke galdu behar ez baitira maiz telebistako kudeatzaileak konbentzitzen. Hutsunea bete da baina hankamotz. Espero dezagun denboraren poderioz hobetuz joatea.

Medemen zirkulua

Laugarrean ez dio bere ibilbideari muzin egin. Berriro ere, Julio Medemek bere lan egiteko era pertsonala sakondu du. *Los amantes del Círculo Polar Artico* zinema ezohikoa da. Komertzialtasunaren neurrietatik lekutan. Baina hala ere, Estatu espainiarrean bikain saltzen ari den zinta da.

Nire uste apalean aurreko hiru filmeekin sortutako etengabeko grina ez du eskuratzen laugarren honek. *Tierra* izango litzateke gailurra. *Los amantes del Círculo Polar Artico* lan duina eta interesgarria izan arren ez du asetu nire egarria.

Dena den, filmeak baditu donostiarrak maite duen mundu magiko horren ezaugarri guzti-guztiak. Patua hartzen du gaitzat eta hainbat zirkulu hasten da egituratzen. Biribilzaletasun honek lotzen nau. Gainera, kondatzeko erari oso aberatsa deritzot.

Zine europarraren marka argia du. Zuzendariaren nortasun indartsuak isladatzen duen lana baita. Ziur aski Estatu espainiar eta Laponian filmatutako azken lan hau euskal zinema asteren batean pantailaratuko dute. Julio

Medemek Donostiarekin lotura handia baduela ezin da ukatu baina filmean agertzen diren gernikarrak ditugu, jaioterriari dagokionez, sinesgarritasun gutxien adierazten duten pertsonaiak.

Urtero anfora hausten

Udagoian musikaren bideak pil-pilean daude. Durangora begira grabatutakoa kaleratu eta honekin batera zuzeneko aurkezpenak antolatzen dira. Sormen berrien sasoi eman-korra.

Ruper Ordorika aurrenetakoa izan da. *Dabilen harria* ez da Noruegako errege. New Yorkeko hiru musikarirekin aritu da oraingoan. Baliteke New Yorken bertan zuzenean jotzea Estatu Batuetan goraipamen berezia duten jazz musikari horiekin.

Ez da sekula giza-masa erraldoia bilduko Ruperren atzetik. Lagun gutxi baina zalantza gutxikoak ditu zale oñatiarrak. Bere kantuak burutzeko etorri handia esker-tzen dutenak. Euskal kantugilerik nabarmenena dela auzartuko nintzateke adierazten.

Madriilen eman zion hasiera lan berriaren aurkezpe-nei. Musikariak Cafe Central-ean jarri baitu Madrileko urteroko enbajada. Baina berak badaki herri txiki batekiko konpromezua baduela.

Berton zenbait aurkezpen kontzertu eskaini eta esku artean duen egitasmo ezberdinetan lanean jarraitu du. Alegia, anfora hautsi arte bi marren gurutzaketan: bertikala, lurraren iraganarekin loturik dagoena (Hiru Truku), horizontala, gaurko bolada garaikideetara daramana (Mugaris-en jazz-rocka).

Bestaldetik, Benito Lertxundiren lan klasikoa ere plazaratu da. Lerro hauek zuzeneko bira ikusteko irrikia baino ezin dute adierazi. Tolosako aurreneko emanaldia ikusi zutenen esperientzia paregabearen oihartzuna heldu zaigu.

Bilboko emanaldiaren zain bi hitz: Folkak eta Klasi-koak ibilbide aldenduak eramán arren gurutzatu diren unetan magia sortarazi dute. Getxon Kepa Junkerak lehe-



«Bai euskarari»

Urri hastapen honetan Euskararen Kontseiluak abiatu du kanpaina bat lematzat hartuz: «XXI. mendeko akordioa: Bai Euskarari». Hiru hilabetez ibiliko gara gizarte eragile nagusiengan herri hizkuntzaren alde ahalik eta adostasun handiena biltzen. Aro ezin egokiagoa, abertzaleek Lizarra-Garaziko akordioa izenpetu dutelarik bakearen bidea irekitzeko. Gure erronka nagusia da hain nekez eraikitzen ari den herria euskararen herria izanen dela. Adierazpen asko egiten dira gertakari historikoen inguruan, bereziki Autonomi Erkidegoko hauteskundeen kariatara.

Nik gertakari xumeago bat komentatu nahi nuke, 130 orrialdeko txosten bat, baina Iparraldeko euskararentzat garrantzi handia har lezakeena. Alabaina irailaren 25ean, Tourseko hautetsi sozialisten bileran, Lionel Jospin lehen ministroak adierazi zuen Hizkuntza Gutituen Eurokarta izenpetuko zuela, lurraldeetako hizkuntzak Estatuaren ondare kulturean sartzen zirelaketz. Hain segur jadanik eskuetan zeukan Guy Carcassonne Paris X Unibertsitateko Zuzenbide irakaslearen txostena: iragan uztailean azterketa juridiko bat manatu zion ikusteko Eurokartako neurrien artean zein ziren Konstituzioarekin bateragarri zirenak.

Carcassonne txostena

Urriaren 6an zabaldu zen Eurokartaren hitzez hitzeko «azterketa metodikoa eta hotza». Egia erran, orain arte jende anitz berotu zen idazki famatu horren inguruan, edo aurka, frantsesa gutituko zuelako beldurrarekin, edo alde, herri hizkuntzen salbatzeko itxaropenez. Gure legezizonak denak ados ezarri ditu. Bai, Eurokarta sinagarri da, 52 neurri baitauzka onargarriak direnak. Bai, nazioarteko konbenio horrek errespetatzen ditu printzipio konsti-

tuzional oro: Errepublikaren batasuna, herritarren berdintasuna, komunikatzeko askatasuna (nolaz ez?) bai eta ere frantsesaren status berezia.

Denbora berean Eurokartako 7. artikulua, «Helburuak eta printzipioak», irakurriz egiten genituen ametsak erori dira. Artikulu horretan aipatzen dira hizkuntzen onarpena, lurraldetasuna, hizkuntz taldeak, bizitza publikoa, mugaz gaineko harremanak. Hots, kultur demokraziaren deklarazio baten itxura du. Uste genuen Eurokarta sinatzearekin, gure hizkuntzak eta gure herriak nolazpaiteko ofizialtasuna edo gutienez publikotasun zerbait erdietsiko zuela.

Aipatu txostenak dioenez, deus ez da horrelakorik. Eta hain zuzen 7. artikulua lehen helburutzat ematen du «Herri hizkuntzen onarpena, aberastasun kulturalak direlakotz». Ondorioz Eurokartaren helburu zuzena ez da hiztunen eskubideak adieraztea baina arriskuan diren hizkuntzak zaintzea. Oroitarri edo monumentu zaharrak artatzen diren bezala, batzuk zaharkituak, besteak ederrago, baina denak zaindu beharrekoak herriaren ondarea osatzen dutelakotz.

Beraz nola uler daitake aitzin solaseko 3. kontsiderazioa?:

Kontuan hartuz lurralde hizkuntzen eta hizkuntza gutituen erabilera ezin kenduzko eskubidea dela bizitza pribatuan eta bizitza publikoan...

Ohar hau oinarritzen duten idazki juridikoek ez omen dute hizkuntz eskubiderik sortzen. Zeren eta aipatzen den Nazio Batuetako Ituna, gutiengoen zaintzeko zen eta sinatzerakoan ordezkari frantsesak salbuespena adierazi zuen. Frantzian ez zitekeela gutiengorik izan, berdintasun zibikoaren izenean. Salbuespenak orain ere balio du eta kontsiderazioa indar gabe gelditzen da.

Daukagun hizkuntz eskubide bakarra da Giza Eskubideen Deklarazioko 11. artikulua ematen diguna:

Herritar orok badu mintzatzeko, idazteko eta inprimatzeko askatasuna. (1789)

Eskubide indibiduala, inola ere ez kolektiboa.

Ohar berdintzuak eginak dira «lurrealde» eta «hizkuntza multzo» hitzetan. «Lurrealdea» geografikoki ulertzen da eta hemen «multzoa» nozio estatistikoa da. Banakazko hiztunen taldeak ez dezake sortu eskubide kolektiborik. Bestenaz «komunitarismoak» Errepublikaren batasuna hauts lezake. Eurokarta sinatzeko momentuan, adierazpen interpretatibo batek gauzak argi litzake.

Beste argitasun atzerakor bat ukan dugu publikotasunari begira. 7. art. d. helburua:

Eskualde hizkuntzen eta hizkuntza gutituen erabilera mintzatua eta idatzia erraztea eta sustatzea, bizitza publikoan eta pribatuan.

Eremu publikoa aipatzen delarik gehienetan Administrazioak eta zerbitzu publikoetatik hitz egiten da. Eurokarta sinatuz uste genuen urrats handia egingen genuela herri hizkuntzen publikotasunaren bidean.

Irakurketa hertsiegia dela dio legegizonak. Bizitza publikoa hasten da etxetik ateratzen delarik eta zabaltzen gizarite harreman guztietara: lanean, merkatuan, saltegietan eta ez bakarrik Administrazioan. Beraz Eurokarta izenpeturik ere herri hizkuntzak Administrazio publikotik kanpo egonen ote dira? Ez baitezpada, eta hemen daukagu Carcassonne txostenaren sorpresa on bat.

Frantsesa, Errepublikaren hizkuntza

Konstituzioko 2. artikularen emendakin hau Kongresuak 1992an onartuz geroztik, bi lege bozkatu dira hizkuntzak aipatzen dituztenak: Tubon legea frantsesaren erabileraz (1994) eta Polinesiako autonomiaren legea (1996). Bi lege hauek eskualdeetako hizkuntzen erabilera onartzen dute, frantsesarekin jakina: Tubonen 21. artikulua eta Polinesiaren 115.a. Denbora berean Konstituzio Kontseiluak bi lege horiek epaitu zituen eta erabaki zorrotz bat zabaldu zen, geroztik «jakobino» guztiek errepikatzen digutena:

Frantsesaren erabilera nahitezkoa da zuzenbide publikoan diren erakundeentzat eta pertsona pribatuentzat eginkizun publikoa betetzen dutelarik. (1994)

Bai eta ere erabiltzaileentzat harremanetan direlarik Administrazioarekin eta zerbitzu publikoetan. (1996)

Dirudi eremu publikoa giltzatua dela frantsesarentzat bakarrik. Eta ondorio horretara heldu zen Andere Questionaux, 1994ko irailean argitaratu zuen Estatu Kontseiluaren abisuan: Eurokarta ezin zela izenpetu, Justiziaren kاپitulua (9. art.) eta izpirituz Administrazioarena ere (10. art.) Konstituzioaren 2. artikuluaen aurka doazelakotz.

Eurokartaren izpiritua

Interpretamen okerra, dio maisu Carcassonnek. hemezortzi orrialdeko arrazoinamendu zorrotza darama adostasunean ezarri nahiz aipatu ditugun sei lerroaldeak: Konstituzioaren 2.a, Deklarazioaren 11.a, Tubonen 21.a, Polinesia-ko 115.a, Konstituzio Kontseiluarenak 1994an eta 1996an. «Irakurle tematsu» batek argudioaren 31 atalak (34-64) ulertzen baditu, ondorio harrigarri batera helduko da.

Dudarik gabe frantsesa da Administrazioiko hizkuntza normala. Baina ez dauka eksklusibiterik. Beste hizkuntzak ez dira debekatuak, beraz zilegi dira:

Ez da gehiegikeria baieztatzea bidezkoa denik elebitasunaren erabilera bultzatzea Administrazioa hobetzeko kezkarekin, hurbiltasuna edo eraginkortasuna bilatuz. (63. at.)

Herri hizkuntzak erabiltzea zilegi da. Haatik ahalbide horrek ez du sortzen eskubiderik hiztunen alde, ez eta ere eginbiderik arduradunengan. Bi baldintza nagusiak hor daude, hiztunen nahia eta frantsesaren presentzia.

Dena dela Konstituzioiko 2. artikuluaen harresia urratu da eta zulo horretarik pasarazi dira Justiziaren artikuluko zazpi neurri eta Administrazioaren artikuluko bost neurri (neurri bana aski delarik Eurokartaren sinatzeko). Gainera, beste bost artikulua kasik osoki bateragarri dira Konstitu-

zioarekin eta beraz sinagarri: Ikaskuntza (8. art.), Komunikabideak (11. art.), Kulturgintza (12. art.), Gizarte harremanak (13. art.), Mugaz gaineko harremanak (14. art.).

Txosten honetan, gure legegizonak aztertu ditu Eurokartak eskaintzen dituen 98 neurriak, zazpi artikuluetan banaturik. 52 badira onargarri direnak Konstituzioaren aldetik. Interesgarri litzateke ikustea zergatik beste 46ak baztertu dituen. Gure berehalako kezka da zenbat neurri onartuko diren.

Proposamen politikoak

Lehen ministroak eskatu dio legegizonari bere iritzia «egin behar diren hautuetaz». Guy Carcassonne irakasleak dio ez duela aukera politikoen egiteko gaitasun berezirik, baina galdegin diotenaz geroz bere ikusmoldea emanen duela, herritar soil baten ikusmoldea.

Jadanik aipatu dugu Eurokartaren mekanismoa: izenpetzeko xedea duen gobernuak gutienez 35 neurri hautatuko ditu II. zatiko zazpi artikuluetan; erran behar du ere zein hizkuntzari aplikatuko dizkion neurriak. Gero Legebiltzarrak onetsiko du Eurokarta eta orduan Estatuarentzat idazki honek herriarteko Konbenio baten lekua hartuko du, barneko legeak baino gorago. Asmagarri da urrats politiko horiek eztabaida ederrik sortuko dutela.

Txostenean agertzen den lehen gomendio politikoa da Eurokarta lehenbailehen izenpetu behar dela eta hain zuzen 52 neurriak onartuz. Geroztik Nicole Pery Baionako andere diputatuak sinadura hori hitz eman du 1999ko ekainerako.

Ahalik eta hizkuntza guztiek baliatu behar dute Eurokarta horretaz. Eta legegizonak umore onean bere zerrenda irekitzen du, Mundialeko jokalaria aipatuz: Bixente Lizarazuren euskara, Stéphane Guivarc'h-en bretoinera, Zinedine Zidane-ren berbera eta ohiko hizkuntza «historiko-geografikoak», ok eta oil hizkuntzak ahantzi gabe (salbu frantsesa!); beste hizkuntza gutitu batzuk ere onargarri dira, hala nola yiddisha eta errumaniera. Haatik etorkinen hiz-

kuntza indartsuek ez dute laguntza bereziaren beharrik, ez gaztelerak ez portugesak; ezta ere arabierak munduko 6. hizkuntza indartsuena baita, frantsesa 12. lerroan delarik.

Hizkuntz legea noizko?

Hori da txostenaren proposamen nagusi bat. Ez da beharrezkoa Konstituzioaren aldatzea, autorearen iritziz, 2. artikulua ez baita oztopo bat herri hizkuntzentzat. Baina Legebiltzarrak, Eurokarta onesterakoan, hizkuntz legea ere bozkatu behar luke. Lege labur bat, lege handia ez baita nahitaez lege luzea! Gutierrez printzipio hau adieraziko du: «Frantziako hizkuntzak onartzen dira nazioaren kultur ondareztat» (185. at.). Gero edo aurrekontuan sar daitezkeen neurriak zerrendatuko dira. Edo hobeki berehalako idazki bakar batean hizkuntz neurri guztiak zerrendatuko dira, gero ahal delarik aurrekontuan sartzeko.

Bururatzean erran dezakegu txosten honen egilea jakobino errealista bat dela, biderditan Estatu Kontseiluko jakobino fundamentalisten eta Bernard Poignant bezalako girondinoen artean. Honek nahi zuen herri hizkuntzak lurraldeen esku izan zitezen (Hegoaldean gertatzen den bezala); hark dio hizkuntzak Estatuaren egitekoak direla (*affaire d'Etat*), hain da beldur herrietako hiztunak «komunitarismorantz» lerra gaitzen.

Ofizialtasuna eta lurraldetasuna ez dira biharko! Harelere Iparraldean ere zerbait mugitzen da, eta mugitzen bizi da, *vita in motu*. ♣



Ikasturte hasierakoak

Oporretatik bueltan, ikasturte hasiera beti da ikasmaterial berrietan dirua gastatzeko ordua. Euskalgintzaren eremuan, euskara irakasteko metodoetan baliabide teknologikoen agerpena nabarmentzekoa izan daiteke. CIM ikastetxeak alde batetik, eta Bla & Bla Company hizkuntza akademiak izan dira lehenak abiatzen eremu honetatik. CIM zentroetan Bay & By izeneko multimedia sistema bat hasi dira aplikatzen, Bilboko Didaktiker enpresak prestatutako produktu bat. «Irakaslea on-line» izeneko zerbitzua ere eskaintzen dute ikastegi hauek. Bla & Bla Companyko sistema oraindik probetan dago, aldiz.

Ez da hau izan euskara ikasteko produktu teknologikoak kaleratzen diren lehenbiziko aldia. Hala ere, orain arteko sistemak bakarka lan egitekoak izan dira. CD-ROM bat edo programa bat sartu zuk zeuk zure ordenadorean, eta harekin ekin, zure kasa. Hala ere, honezkero frogatzen hasia dago informatika, hezkuntzan eta bereziki hizkuntzen irakaskuntzan, laguntza bat dela ikaslearentzako, ez irakaslearen ordezkoa. Horregatik, urrats logiko eta inteligentea da ikastegi pribatu horiek egin dutena (euskara ez beste hizkuntza batzuk irakasten dituzte batik bat). Euskaltegiek ere ekin beharko dute bide horretatik egunen batean.

Irakaskuntzarako lagungarri izan daitekeen beste produktu bat Australian ari dira garatzen une honetan. Jon Patrick informatika katedraduna euskaltzalea eta AEK-ko aspaldiko bezeroa dugu, eta euskara-ingelesa hiztegi bat eta gramatika bat tresna informatiko batean lotzeko ahalaginean ari da Sydneyko unibertsitatean. Ahotsarekin hornituta, CD-ROM batean ikus dezake argia tresna horrek. Euskara ikasteko ez, baina ikasten laguntzeko izango da tresna hori, Jon Patrickek berak azaldu duenez.

CD-ROM-en bidez beste produktu batzuek ere ikusi dute argia azken aldi honetan. Europako zenbait erakundeetako hizkuntza normalizaziorako zerbitzuen babesarekin Lingua+ izeneko produktua azaldu berri da. Katalanari, galegoari, galesari, Alsaziako alemanari eta euskarari buruzko informazioa dakar disko horrek. Europako Batzordearen laguntzarekin egin da, eta Nafarroak HPZNk eta Eusko Jaurlaritzako HPSk ere parte hartu dute lanean. Nolanahi ere, halako lan bat egin ondoren, ez da ulertzen nola atera duten CD-ROM formatuan, Interneten bidez askoz banaketa erraz, praktikoago eta eskuragarriagoa egingo luketenean.

Interneten egon zitekeen beste gauza bat: Euskaltzaindiko arauak. Baina horiek ere CD-ROMean atera dituzte, eta formatu nahiko deseroso batean, oso digitalizazio kaskarrekin, informatikaren baliabideen erabilera eskas batekin. Bere ondarea digitalizatzen jarraitzeko asmoa omen dauka Euskaltzaindiak, baina zuhertasun apur batekin egitea hobe lukete. Teknologiaren erabilera trakets batek ez du ezer modernotzen: eguneratzearen atzerapena besterik ez da.

Su-etena dela eta

Politikan azken hilabete pare honetan gertatutakoek baldintzatu dute, dudarik gabe, komunikabideetako jarduna eta panorama. Eusko Jaurlaritza berria erabakitzeko eta Eusko Legebiltzarra hautatzeko hauteskundeak izan dira faktore bat, Lizarra-Garaziko akordio politiko zabala ere bai; baina dudarik gabe horren gaineratik egon da ETAk aldarrikatutako mugarik gabeko su-etena.

Bataila mediatikoan ere su-eten giroa nabaritutako baltitz bezala da. Uda garaiko mehatxu-itxurakoak —Garzonen zerrendan AEK zegoela hurrengo— baretu direla dirudi. Koordinakundeak, behintzat, ikasturtea hasi du eta matrikulazio kanpaina egin ahal izan du irailan kontra-informazio agerraldirik egin beharrik izan gabe. Bakean utz zaitzaten normaltasun seinale bihurtu da batzuentzat hemen.

Komunikabideen munduan nolabaiteko distentsioa nabaritu dela esango nuke. Lehengo batean harritu nintzen Canal Plus telebista katean Arnaldo Otegi elkarrizketatu zutenean. Euskal Telebistak antolatutako hauteskunde eztabaidara ere alderdi guztiak azaldu ziren, batzuek medioetan zeukaten HBren kontrako prebentzioaren gainerik. Agian ez dira distentsio zeinuak eta oker nago. Baliteke hauteskunde giro bereziki bero baten ondorio izatea gertatutakoa.

Zantzu horiez gain, oro har, ez dirudi hemen komunikabideen posizioak ezertan aldatu direnik. Canal Plus-en Euskal Herritarrok plataformako Otegi azaldu zen, baina telebista horren talde mediatiko bereko SER irrati katean, egun berean antolatu zuten debatean PSE-EE, EAJ eta PP-ko lehendakarirako hautagaiak zeuden. Ezker abertzaleko ordezkariarik ez egoteak ez du horrenbesteko harridurarik sortzen, betidanik egon direlako baztertuak medioetan, baina Carlos Garaikoetxea apropos kanpo uztearekin, ez zen bakarrik EA marjinetzen: Ibarretxe jeltzalea 1-2 posizioan geratzen zen abertzalismoaren bi kontrario amorraturen aurrean.

Medioek Gerry Adams Sinn Fein-eko buruari egindako harrera hotza ere aukera politikoen alorrean kokatu behar da. Ez da ulertzen *Diario Vasco* baten lehen orrian botika berri batzuk hilabete gutxi barru banatzen hasiko direla izatea albiste nagusia Adams Euskal Herrian 10 orduz gelditu gabe egon ondoren. Zaila da albistegarritasuna faktore objektibo gisa definitzea, baina botikak Adamsen aurretik jartzea halako egun batean ez da ez subjektibismo edo miopia profesionala. Intentzio politiko argi bat da.

Hauteskunde kanpainako gauzatxoak

HHauteskunde kanpaina baten harira, euskarari ematen zaion trataera publikoa ere kontuan hartzekoa izaten da. Sakonean, egiten dena eszenifikazio bat dela badakigu, baina bueno, euskara eszena politikoan egotea ez da txarra. Aitzitik, beharrezkoa da zeharo. Partidu Popularrak berak ere ageriko publizitatean euskara dextente sartu du.

PSE-EEK, aldiz, batere ez. Gainera, badirudi sozialisten artean euskaraz edo euskalgintzaren inguruan ikuspunturen batzuk eskaintzeko moduan zeudenak, Gipuzkoako sozialista batzuk, alboratuta geratu zirela kanpainan (susmo pertsonala besterik ez da, beharbada okerra).

Beste alde batetik Juan Jose Ibarretzek lehendakarigai jeltzaleak euskara ikasi duela frogatu ahal izan da. Irakurrita akaso edo gortina atzeko *txibatoekin*, baina beste askok baino hobeto egiten du. Euskara ikasten enpeño pixkat jarri duela ezingo zaio ukatu. Pronostiko gehienetan lehendakari postuan jartzen dute Ibarretxe, eta hala bada, euskara behar protokolarioetarako baino gehiagorako baliagarri dakiola opa diogu. Esate baterako, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko orduan. Plana onartua dago zirriborro gisa. Dokumentua hurrengo Jaurlaritzak garatzeko utzi du listo Euskararen Aholku Batzordeak, eta euskalgintzarentzat asko dago jokoan Plan horretan. Dударik gabe, hauteskunde kanpainako gai-ordenetan atzeratuta geratu da euskararen eta Plan Nagusiaren gaia, bakegintza, Konstituzioa eta frentismoa gailendu direlako agenda politikoetan. Hala ere, hurrengo legegintzaldia ere bereziki garrantzitsua izango da euskalgintzarentzako.

Aipatzekoa da, halaber, Herri Batasunaren iritziz Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia «oso ona» dela, prentsaurreko batean azaldu zutenez. Ez bakarrik «ona», baizik eta «oso ona». Ekimen instituzionaletik jaio eta haren gidaritzapean garatu den plangintza bat izateko, harrigarri samarra ere suerta dakiok batzuei HBren aldeotasun dudagabe hori. Akaso PSE-EE eta PP guttiz kontra eta hortzak zorrotz daudelako izango da.

Azkenik, hauteskunde kanpaina hau izan da «Internetz erretransmititu» den lehena. Mitin batzuen irudiak Internetz zuzenean emateak zer zentzu duen ez dute alderdiek argitu. Irudi kontua dela ematen du, ezer baino gehiago. Beste medio publizitario bat, ez besterik. Horrez gain, teknologien ezarpenaren inguruko ekimen batzuk sartu dituzte alderdiek programetan, baina ez dakit bada, teknologia berrien kultur eraginari inork arreta eskaini dion. Hizkuntzaren etorkizuna ere eremu horretan jokatu-

ko da neurri handi batean, eta horretaz jabetu beharko dute, behintzat, hizkuntzarekiko halako ardura etiko bat behar luketen politikari abertzaleek.

Itxura batean, Juan Jose Ibarretxe halako irudi teknologiko bat ematen duen gizona da. Baina zer da irudia edo itxura eta zer egia? Ez genuke nahastu behar, bestalde, teknologiaren erabilerarekiko kezka izatea eta teknokrata bat izatea. Ez dira sinonimoak. Esaten duten bezala, Ibarretxe lehendakari bihurtzen bada (akaso zuek lerro hauek irakurtzen dituzuenerako), izango dugu aukerarik frogatzeko nora jotzen duen gizonak.

Wyoming-Tolosa?

Teknologiaren erabilera itxurazko edo propagandistikoaren beste adibide bat Kilometroak'98 Ikastolen jaikoa izan zen. *www.euskara@mundiala.da* bezalako lema aukeratu zuten, baina lema besterik ez zen izan. Gero, bertso-saio bat ere egin zen bertsolari bat zuzenean Wyoming-eko ikasgela batetik ari zela. Konexio miragarri horrek goraipamen asko jaso zuen, baina benetan badu balio errealik erakustaldi horrek, marketin operaziotik harantzago? Nik nire zalantzak dauzkat. Kilometroak'98k ez du ezer egin Inter-nera begira, kenduta berandu jarritako web orri zentzugabe bat. Euskararen etorkizunerako ahalmen eta gaitasun teknologikoa nahi baldin bazen azpimarratu, Wyoming-Tolosa bideo-konferentzia baino mami gehiagoko kontua behar zen. Propagandak ez gaitu salbatuko XXI. mendean: euskara mundiala dela esatea huskeria da; euskara mundiala egitea da koxka.

Wyoming-Tolosa bertso-konexioaren haritik gisa bereko beste ekimen teknologiko baten berri jakin dugu: ETB-SAT, satellite bidezko euskal kanala, Ameriketara begira. Euskal etxeetan ikusiko omen dute, itsasoaz gaindi. Probetxurik aterako ahal diote, musean ari diren bitartean atzean telebista piztuta izango duten horiek Wyoming alde horretan. Auzi honetan ere, propaganda eta marketina ikusten dut nik, baina mamia edo muina, auzi honen

egiazko garrantzi teknologiko edo kulturala non den ez zait hain bistakoa egiten... Eta gainera, ETB-SAT-en jaiotza zoriontsu eta baikorrak kontraste egiten du honen aurreko Galeusca telebista proiektuaren itxiera edo porrot isilarekin. Hura ere oraingoaren bezalako su-festekin anuntziatu ziguten...

Egingo dugu

Amaitzeko, *Egin*-en itxiera-ondorengoei dagokienez, auzi kezkarri hau estalita balego bezala ageri zaigu. Espainiara begira bizi diren komunikabideek sinestarazi nahi dituztena da hori, ez gaitezen engaina. Azken asteotan, ekimen berriak ikusi ditugu: aferaren mamia zein den zabaltzeko txostena prestatu duen Adierazi taldea, eta Jabier Salutregi *Egin*-eko zuzendari kartzelaratuaren aldeko beste ekimen bat. Medio gehienek entzungor egiten diete plataforma hauek esandakoari, eta ondoren, lotsarik gabe esaten dute «*Egin*-en itxierak erreakzio eskasa piztu zuela». Mayor Orejaren ministeriotik azken aldi honetan banatu dituzten kontsignen artean horixe dugu bat: Euskal Herrian ez duela eraginik izan *Egin*-en itxierak, eta horrek eraman duela ETA bere ahultasunaz jabetzera eta su-etena behartuta deklaratzera.

Garzon epailearentzat ere ez dago su-etenik, eta milioika pezetako fidantzak ezarri dizkie *Egin*-eko administrazioan arduradun izandako beste pertsona batzuei, Jesus Mari Zalakain irakasleari kasu. Alerta egotea komeni da: adierazpen askatasunaren kontrako basakeria judiziala ez da inondik ere zuzendu; eta Garzon epailearen *ikerlerroetan* (nolabait esateko) ager daitezkeen hurrengo jomugak denon buruan daude.

Mila milioi pezeta biltzea helburu duen proiektu berriak aurrera segitzen du. Hauteskunde kanpainaren berroan, *Egingo dugu* lema oihartzuna lausotuta agertu izan da, baina bitartean, etenik gabe, komunikabide proiektu berri bat gorpuzten ari da Euskal Herrian. *Egin*-en ondorengo izango da proiektu berria, baina, hala ere,

Liburuak



IDAZKARITZA

Jaso ditugu

151

Jaso ditugu Idazkar

- 1997ko ekitaldia industri politika. Jarduketa esparru orokorra 1996-1999 / Ejercicio 1997 política industrial. Marco general de actuación 1996-1999. INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA (E.J.). Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 29,5 x 21 cm. 125 or.
- Antoine d'Abbadie. 1: Pensées, études et voyages de 1835 (carnet inédit). ABBADIE, Antoine d'/Urkizu, Patri; Arkotxa-Scarcia, Aurelia; Arkotxa, Fermin*. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 159 or.
- Antoine d'Abbadie. 2: Recueil de textes ethnographique, géodésiques, linguistiques, littéraires. ABBADIE, Antoine d'/Urkizu, Patri; Estornes, Idoia; Arkotxa, Fermin*. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 456 or.
- Antoine d'Abbadie. 3: Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma 1851-1897. ABBADIE, Antoine d'/Urkizu, Patri; Intxaurrendieta, Patxi; Xarriton, Piarres*. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 486 or.
- Archivo General de Navarra (1134-1194). ALEGRIA SUESCUN, David; LOPETEGUI SEMPERENA, Guadalupe; PESCADOR MEDRANO, Aitor. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 227 or.
- Argitalpen Katalogoa / Catálogo de Publicaciones. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 15,3 x 14 cm. 89 or.
- Arranopola!. (i). RIVAIS, Yak/Arretxe, Jon//Rivais, Yak. Elkar. Donostia. 18,5 x 13 cm. 128 or.
- Asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen estatistika 96 / Estadística de entidades de seguro libre de asistencia médico-farmacéutica 96. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 68 or.
- Atzoko Zegama. AZURMENDI AGIRRE, Xabier. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 307 or.
- Ba omen zen errege bat... (i). JANER MANILA, Gabriel/Atxega, Nerea//Ginesta, Montse. Elkar. Donostia. 18,5 x 13 cm. 100 or.
- Bapatean 97. EHBE. Euskal Herriko Bertsozale Elkarte; Elkar. Donostia. 21 x 13,5 cm. 308 or.
- Dolores Ibarruri «Pasionaria». BARANDIARAN, Alberto. Elkar. Donostia. 18 x 12 cm. 113 or.
- Egile berrientzako literatur lehiaketak (1995). Narrazio laburra. Olerkia. Bertso Paperak. Saritutako lanak. ERRO, Jeremías; LAKASTA, Juan Krutz; MANGADO, Fco. Javier; BIDADOR, Joxemiel; IRUJO, Xabier; ALZUART, Mikel; LARRETXE, Patxi; ZINKUNEGI, Manuel. Iruñeko Udala. Iruña. 23,5 x 17 cm. 174 or.
- Enpresa-Taldeak. ZELAIA, Adrian. Udako Euskal Unibertsitatea. Bilbo. 24 x 17 cm. 153 or.
- Erakundeen hizkuntz normalkuntza planetarako eskuliburua eta Indexpla aplikazio informatikoa. ASKOREN ARTEAN. Euskara Elkarte eta Herri Aldizkarien Topagunea; EKB. Donostia. 31 x 21,5 cm. 79 or.
- Errenazimentuko Artearen Berrikusketa / Revisión del Arte del Renacimiento / Révision de l'Art de la Renaissance. ASKOREN ARTEAN. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 516 or.
- Estatistika Boletina 97. IV. hiruhilekoa / Boletín de Estadística 97. IV. trimestre. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 109 or.

- Estadística Boletina 98. I. hiruhilekoa / Boletín de Estadística 98. I. trimestre. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 109 or.
- Estadística Boletina 98. II. hiruhilekoa / Boletín de Estadística 98. II. trimestre. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 110 or.
- Euskal Estatistika Kontseilua Txostena 1997 / Consejo Vasco de Estadística. Memoria 1997. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 29,7 x 21 cm. 44 or.
- Euskal Herriko Erromanizazioari buruzko 1. Nazioarteko Solasaldia / 1er. Coloquio Internacional sobre la Romanización en Euskal Herria / 1ème. Colloque International sur la Romanisation d'Euskal Herria (1). ASKOREN ARTEAN. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 528 or.
- Euskal Herriko Erromanizazioari buruzko 1. Nazioarteko Solasaldia / 1er. Coloquio Internacional sobre la Romanización en Euskal Herria / 1ème. Colloque International sur la Romanisation d'Euskal Herria (2). ASKOREN ARTEAN. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 403 or.
- Euskal Herriko Eskolarteko IX. Bertsolari Txapelketa 1997. ASKOREN ARTEAN. Bizkaiko Ikastolen Elkarte. Bilbo. 21 x 13,4 cm. 59 or.
- Euskal urtekari estatistikoa 97-98 / Anuario Estadístico vasco 97-98. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 20,5 cm. 666 or.
- Euskararen Unibertsoa Jardunaldiak (Martxoak 7-8. 1997). EUSKARAREN UNIBERTSOAREN TALDEA. Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua. Donostia. 24 x 17 cm. 123 or.
- Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak / Ley de Elecciones al Parlamento Vasco. (b/e). EUSKAL AUTONOMI ELKARTEKO ADMINISTRAZIOA. OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIOA SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 17 x 12 cm. 333 or.
- Ez zaigu ahaztu. BARANDIARAN, Alberto. Susa. Zarautz. 20 x 12,5 cm. 170 or.
- Anemometroa. ESTANKONA, Igor. Susa. Zarautz. 20 x 12,5 cm. 91 or.
- Foguera de las Villas de Vizcaya de 1514. ENRIQUEZ FERNANDEZ, Javier; HIDALGO DE CISNEROS AMESTOY, Concepción; LORENTE RUIGOMEZ, Araceli; MARTINEZ LAHIDALGA, Adela. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 275 or.
- Foguera-Vecindario de las Villas de Vizcaya de 1511. ENRIQUEZ FERNANDEZ, Javier; HIDALGO DE CISNEROS AMESTOY, Concepción; LORENTE RUIGOMEZ, Araceli; MARTINEZ LAHIDALGA, Adela. Eusko Ikaskuntza. Donostia. 24 x 17 cm. 341 or.
- Frankenstein. (i). SHELLEY, Mary/Mendiguren, Iñaki//Ortiz, J.M. Elkar. Donostia. 18 x 11 cm. 52 or.
- Gaizka Barandiaran. Bere bitzita eta lanak. VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari. Arrasateko Udala. Arrasate. 20,5 x 14 cm. 82 or.
- Giza hezkuntzarako gunea. Eskola-sistema eta astialdiko taldearen arteko topagunerako oharrak / El centro socioeducativo. Apuntes para el encuentro entre el centro escolar y el centro de tiempo libre. (e). ARRIETA, Joseba; AURREKOETXEA, Manu; AZANZA, Mikel; MORENO, Julia; ORMAZA, Ruper; PUYO, José María; ROA, Juan Pablo; SANGRONIZ, Nestor/Martin Pardo, Maria Concepción**. Ede Fundazioa; Bizkaiko Ikastolen Elkarte. Bilbo. 23,5 x 16,5 cm. 104 or.
- Gure barria 1975. MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier. Elkar. Donostia. 21 x 12,5 cm. 118 or.

- Hamaika abere-ipu. Bizkaiko herri-alegiak. ASKOREN ARTEAN/Arejita, Adolfo; Astigarraga, Asier. Labayru Ikastegia; Bizkaiko Ikastolen Elkarte. Bilbo. 22 x 21 cm. 77 or.
- Hauteskunde Nagusiak / Congreso de Diputados. 1996 martxoak 3 marzo 1996. (e). HERRIZAINGO SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 21 x 30 cm. 335 or.
- Hiztegia hizkuntza arrotzen ikaskuntzan. (i). BOGAARDS, Paul/Urkizu, Boni. HABE. Donostia. 20 x 13,5 cm. 304 or.
- Industri produkzioaren indizea 96 / Índice de producción industrial 96. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 116 or.
- Industria Akitania. Euskal AE. Nafarroa multzoan / La industria en Aquitania. C.A. de Euskadi. Navarra / L'industrie en Aquitaine. C.A. d'Euskadi. Navarre. (e). SOULE, Bernadette; IRADI ARRIETA, Josu; GONZALEZ, Andrés Valentín. Euskal Estatistika Erakundea. Gasteiz. 22 x 23,5 cm. 33 or.
- Isadora Duncan. OSORO IGARTUA, Jasone. Elkar. Donostia. 18 x 12 cm. 140 or.
- Jarduera ekonomikoen gidazerrenda 91-96 / Directorio de actividades económicas 91-96. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 86 or.
- Joskera lantegi. GARZIA GARMENDIA, Juan. IVAP. Gasteiz. 24 x 17 cm. 596 or.
- Kanibalaren kaiolan. MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier. Elkar. Donostia. 20 x 12,5 cm. 133 or.
- Kanpo merkataritza 96 / Comercio exterior 96. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 114 or.
- Latinamerikarra '98. Beste Bake baten Aberria. VIGIL, José María; CASALDALIGA, Pedro//Cerezo Barredo, Maximino. Egile editorea. Nikaragua. 19 x 16 cm. 256 or.
- Leviatana. (i). ROTH, Joseph/Matauko, Edorta. Susa. Zarautz. 20 x 12,5 cm. 91 or.
- Mamu istorioak. (i). ANONIMOA; LEMON, Mark; SHERIDAN LE FANU, Joseph; HOOD, Tom; ANONIMOA; CROWE, Catherine/Mendiguren, Iñaki//Ortiz, J.M. Elkar. Donostia. 18 x 11 cm. 65 or.
- Mandelaren Afrika. OLASAGARRE, Juanjo. Susa. Zarautz. 20 x 12,5 cm. 137 or.
- Nafarroako Euskararen Historia Soziolinguistikoa (1863-1936). Soziolinguistika Historikoa eta Hizkuntza Gutxituen Bizitza. ERIZE ETXEGARAI, Xabier. Nafarroako Gobernua. Iruña. 23,5 x 17 cm. 577 or.
- Nik ere Germinal! egin gura nuen aldarri. IZAGIRRE, Koldo. Susa. Zarautz. 20 x 12,5 cm. 190 or.
- Olentzero eta zazpi saguak. 3-6 urte pintatzeko liburua. X.X.//Morente, E. Bizkaiko Ikastolen Elkarte. Bilbo. 21 x 26 cm. 12 or.
- Olentzeroren buruhaustea. 3-6 urte pintatzeko liburua. X.X.//Morente, E. Bizkaiko Ikastolen Elkarte. Bilbo. 21 x 26 cm. 12 or.
- Oles ta Oles. HERRIKOIA/Arregi, Nerea; Astigarraga, Asier; Mendizabal, Mikel**//DSN. Labayru Ikastegia; Bizkaiko Ikastolen Elkarte; Elkarlanean. Bilbo. 24 x 14 cm. 63 or.
- Orain. BORDA, Itxaro. Susa. Zarautz. 20 x 12,5 cm. 107 or.
- Oraingo gazte eroak. Gogoetak ETaren sorrera inguruko kultur giroaz eta gaurkoaz. AZURMENDI, Joxe. Enbølike. Irun. 21 x 15 cm. 158 or.

Jaso ditugu

- Ospitaleez kanpoko estatistika publikoa 96 / Estadística extrahospitalaria pública 96. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 107 or.
- Sugearen iraultza (Euskal Herria iraganalditik geroaldirantz). NABERAN, Josu. Gaiak. Donostia. 20,5 x 16,5 cm. 291 or.
- Tentazioak. OSORO IGARTUA, Jasone//CORNEJO, Mikel. Elkar. Donostia. 21 x 12,5 cm. 167 or.
- VII. Beasain Idazlehiaketa 1997. Saritutako lanak. D.L.H.; D.B.H.; Ertainak. ASKOREN ARTEAN. Beasaingo Udala. Beasain. 23 x 17 cm. 264 or.
- Zenbaki sorginduak. GALARRETA, Xabier. Marjinalia. Astigarraga. 20 x 14,5 cm. 104 or.



JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20009 DONOSTIA
Tel. 943.21.80.92
Fax. 943.21.82.07
jakin@jalgi.com